

Hegats

Literatur aldizkaria

17/18



EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEA

Hegats

L i t e r a t u r a a l d i z k a r i a



EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEA

IDAZKUNTZA-KONTSEILUA

<i>Burua:</i>	Andolin Eguzkitza
<i>Kideak:</i>	Rikardo Arregi Jerardo Elortza Kirmen Uribe
<i>Koordinatzailea:</i>	Maite Gonzalez Esnal
<i>Diseinua:</i>	Txema Aranaz Maite Gonzalez Esnal
<i>Maketa:</i>	Lamia Curia, 25-sotoa. 31001 Iruña

Euskal Idazleen Elkartea

Zurriola hiribidea, 14-1. ezk.
20002 Donostia
Tfa.: 943-27 69 99. Faxa: 943-27 72 88

ISSN: 1130-2445
L.G.: Na-359/90

Literaturbideak

Wisława Szymborska. <i>Ahizparen laudorioa eta beste zenbait poema</i>	9
Iban Zaldúa. <i>Ertzainarena</i>	39
Andolin Eguzkitza. <i>3 poema</i>	50

Kritikabideak

Emilio López Adan. <i>Erbestean idaztea</i>	57
Itxaro Borda. <i>Nor da nor</i>	75
Juan Garzia. <i>Hamaika pauso alferrik?</i>	83

Idazletzaz mintzo

Bitoriano Gandiaga. <i>Ni neu euskal idazleetako bat</i>	99
Aingeru Epaltza. <i>"Strip-tease" saio bat Goierrri-n</i>	110

Liburu-iruzkinak

CONRAD, JOSEPH. <i>El agente secreto</i> . Jon Alonso.	125
KORTAZAR, JON. <i>Luma eta Lurra</i> . Roberto Mielgo Merino.	128
LERTXUNDI, ANJEL. <i>Letrak Kalekantoitik</i> . Jerardo Elortza.	130
PROULX, E. ANNI. <i>The Shipping News</i> . Itziar Laka.	133
NAWAL AL-SA'DAWI. <i>Mujer en punto cero</i> . Karlos Cid.	137
SACKS, OLIVER. <i>An anthropologist on Mars</i> . Lourdes Oñederra.	140
SAIZARBITORIA, RAMON. <i>Bihotz bi. Gerrako kronika</i> . Mari J. Olaziregi.	142
SARAMAGO, JOSÉ. <i>Cadernos de Lanzarote</i> . <i>Diário I; Diário II; Diário III</i> . Rikardo Arregi.	150
TAMARO, SUSANNA. <i>Adonde el corazón te lleve</i> . Elixabete Garmendia. ..	153

Literaturbideak



Wisława Szymborska

Iban Zaldua

Andolin Eguzkitza

Ahizparen laudorioa eta beste zenbait poema

Itzulpena eta oharrak:

Rikardo Arregi Diaz de Heredia, Kirmen Uribe eta Magdalena W'grzyn

Nobel Sariak berez eta ezinbestez dakarren mesfidantza barnebarnean genuelarik, Bilboko liburudenda batera sartu ginen Wislawa Szymborska saritu berriaren lana aurkitzeko asmoz. Aurkitu genuen, bai, eta, jakina, liburu bana erosi. Lauzpabost poema presaz eta urduri irakurri bezain laster, ahanzi genituen Nobel Sari guztien mixeriak eta faltsukeriak: eskuartean genituen hitzek zirrara zuten sorburu eta emozioak piztu zituzten gure baitan; eskuartean genituen hitzek bizitza zuten oinarri eta guk bizitza literatura bezainbeste maite dugu. Szymborska euskaratzeko nahia edo beharra, berdin dio, berehala etorri zitzaigun beraz.

Wislawa Szymborska ezezaguna zen guretzat, ez baina XX. mendearen bukaera honetan Polonian egiten den poesia: Czeslaw Milosz eta Zbigniew Herbert (Lwow-en jaioa, gaur egungo Ukrainako L'viv-en) batez ere, gutxiago Tadeusz Ró"ewicz. Azken urteotako poesiarik onena polonieraz egiten dela entzun dugu noiz-edonoiz, eta horrelako hitz handiek mami gutxi gordetzen duten arren, agerian da Poloniako poesiaren berezitasuna. Poloniako historia mindua, batez ere Bigarren Mundugerran gertaturiko guztia, berezitasun horren oinarria da. Nola idatzi Auschwitz (OŒwi'cim, polonieraz) eta gero, galdetzen du Adorno pentsalari alemaniarrek. Poloniako poetek badakite nola idatzi Auschwitz eta gero, badakitelako, ikusi dute jadanik, bihar beste Auschwitz

bat (edo gauza okerrago bat, aurrerapena bizkor doa) gertatuko dela.

Auschwitz eta gero Poloniako poetek mesfidati begiratzen die- te Arte, Filosofia, Erljio eta Kulturari, ideia eta hitz handiosoei. Miloszen hitzetan ideia ustez garbi horiek gizon-emakumeak en- gainatu egin dituzte, bizitzearen egia estaliz eta, haren ordezt, egia abstraktuaren zama eramatera behartu. Kulturak benetako bizitza ahantzi du, Artea, kaleetako gizon-emakumeei gertatzen zaienari itsu, bere baitara bildu da eta lurralde antzuenetan erroak sartu nahi ditu barregarri. Itxura dotoreen atzean ezkututzen den izua agerian uzteak poeta horien begirada argitu egin du, azkartu. Mendebaldeko Europa garatuan nagusitu diren molde ustez mo- dernoen noraezaz jabeturik, Poloniako poetek iparrorratz bana hartu, ez baitira guztiak berdin-berdinak, eta gure denboraren itsaso arriskutsua zeharkatzeari ekin diote begiak ondo irekita.

Nobel Saria zela-eta, Szymborskaren berri ematean egunka- riak betiko axolagabekeria eta ezjakintasunez aritu ziren: emaku- me adineko bati, emakume eta adineko izateagatik egotzi ohi zaizkion ezaugarri topikoak metatu, sailkapen eta definizioen ku- txatik atera eta Szymborskaren poesia *lirikoa* (hau da, biguna) edo *filosofikoa* (hau da, astuna) zela esan zuten lasai asko. Salbuespena euskaraz etorri zen Juan Garzia Garmendiaren esku jakintsutik ondo helduta (*El Correo*, Territorios, 1997ko maiatzak 29); ahol- ku ona, Szymborska irakurtzera gonbidatuz, eta opari ezin hobe- a, poema baten itzulpena, eskaini zigun irakurleoi.

Norbaitek pentsa lezakeenaren aurka, Wislawa Szymborska- ren poesia, eta oro har gainerako poeta poloniarrena, ez da nega- rrari emana; iraganaren oroitzapen etsiek, ukazioaren aldarrikatze antzuek eta itxaropen ezaren mineriek ez dute leku handirik. Beste poesia motetan sarriegi agertzen zaizkigun nortasun egola- tra negartiak bazterturik daude betiko. Poesia egiten hastean Szym-

borskaren lehen baldintza erreparoa da, errezeloa. Szymborska ez da poesiaz fido, ezta bere buruaz ere. Ironia eta nahita bilaturiko urruntzea dira, beraz, haren poesiaren giltzarri nagusiak. Kaosaren zurrunbiloan etengabe murgildurik igeri egiten ikasi du, hitz handiosoek agintzen zuten egonkortasun eternalaren gainbeheraren ondoren nahikoak zaizkio oreka behin-behinekoak eta halaber gizon-emakumeen bizitza laburretan gertatu, gertatzen eta gertatuko diren tragedia eta komedia txikiak baina ez guztiz hutsalak. Bizitza guztiak esanguraz beterik baitaude. Azken finean eta haren hitz berberak erabiliz, galdera xaloak dira oraindik ere premiazkoenak. Idazlearen beraren afera pertsonalak gorderik daude edota, agertzekotan, besteenak ere diren neurrian agertuko dira, guztion bizitza arrunten parte ezin arruntago diren neurrian. Eta zer esan iraganaz, historiaz. Epikotasun eta heroitasun oro alboraturik, gure bizitzaren ispilu lausotu baina garbia da arbasoen bizitza, inoiz ez da ezertarako garai ona, beti da zerbaiterako garai ona. Szymborskak paradoja erabiltzen du ironiarekin batera, bizitzaz eta munduaz dugun ezjakintasuna argitzen saiatu eta hausnarketa posible egiteko.

Miloszek esan berri du Wislawa Szymborska kontzientziaren poeta izanik, gai izan dela jende desberdin askorengana heltzeko. Lerrootan aipatu ditugun arrazioengatik, lerroartean susmatuko dituzuenengatik eta aipagarriak ez diren beste askorengatik maite dugu Wislawa Szymborska. Bederatzi poema hauek euskaratzeko, jatorrizko testuez gain, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez argitara emandako itzulpenak izan ditugu kontuan.

ROZMOWA Z KAMIENIEM

Pukam do drzwi kamienia.

- To ja, wpuść mnie.

*Chcę wejść do twego wnętrza,
rozejrzeć się dokola,
nabrać ciebie jak tchu.*

- Odejdź- mówi kamień.-

Jestem szczelnie zamknięty.

*Nawet rozbite na części
będziemy szczelnie zamknięte.*

*Nawet starte na piasek
nie wpuścimy nikogo.*

Pukam do drzwi kamienia.

- To ja, wpuść mnie.

Przychodzę z ciekawości czystej.

Życie jest dla niej jedyną okazją.

*Zamierzam przejść się po twoim palacu,
a potem jeszcze zwiedzić liść i kroplę wody.
niewiele czasu na to wszystko mam.*

Moja śmiertelność powinna cię wzruszyć.

- Jestem z kamienia- mówi kamień-

i z konieczności muszę zachować powagę.

Odejdź stąd.

Nie mam mięśni śmiechu.

Pukam do drzwi kamienia.

- To ja, wpuść mnie.

*Słyszałam, że są w tobie wielkie, puste sale,
nie oglądane, piękne nadaremnie,
gluche, bez echa czyichkolwiek kroków.*

Przyznaj, że sam niedużo o tym wiesz.

HARRIAREKIN SOLASEAN

Harriaren atean jo dut.
—Neu naiz, utzi sartzen.
Zure barrura sartu nahi dut,
begiratu bat eman;
arnastu nahi zaitut.

—Alde! —dio harriak—.
Hermetikoa naiz, itxia erabat.
Zati-zati eginda ere
zatiok itxiak ginатеke,
hauster eginda ere
hausterra itxia.

Harri baten atean jo dut.
—Neu naiz, utzi sartzen.
Jakinmin hutsez nator.
Eta soilik bizitzak ase dezake.
Zure jauregian paseatu nahi dut,
eta gero hosto bati bisita egin, eta ur-tanta bati.
Ez dut asti gehiegirik.
Ez al zaitu nire hilkortasunak hunkitzen?

Harrizkoa naiz —dio harriak—.
Eta seriotasunari ezinbestez behar diot eutsi.
Alde!
Ez daukat irri-muskulurik.
Harriaren atean jo dut.
—Neu naiz, utzi sartzen.
Zure baitan, gela eskerga hutsak gordetzen dituzula esan didate,
inork ikusigabeak, ederrak alferrik,
gormutuak, ez dute inoiz inoren oinotsik entzun.
Aitor iezadazu! Zeuk ere ez zenekien.

*-Wielkie i puste sale- mówi kamień-
ale w nich miejsca nie ma.
Piękne, być może, ale poza gustem
twoich ubogich zmysłów.
Możesz mnie poznać, nie zaznasz mnie nigdy.
Całą powierzchnią zwracam się ku tobie,
a całym wnętrzem leżę odwrócony.*

*Pukam do drzwi kamienia.
- To ja, wpuść mnie.
Nie szukam w tobie przytułku na wieczność.
Nie jestem nieszczęśliwa.
Nie jestem bezdomna.
Mój świat jest wart powrotu.
Wejdę i wyjdę z pustymi rękami.
A na dowód, że byłam prawdziwie obecna,
nie przedstawię niczego prócz słów,
którym nikt nie da wiary.*

*- Nie wejdiesz- mówi kamień.-
Brak ci zmysłu udziału.
Żaden zmysł nie zastąpi ci zmysłu udziału.
Nawet wzrok wyostrzony aż do wszechwidzenia
nie przyda ci się na nic bez zmysłu udziału.
Nie wejdiesz, masz zaledwie zamysł tego zmysłu,
ledwie jego zawiązek, wyobraźnię.*

*Pukam do drzwi kamienia
- To ja, wpuść mnie.
Nie mogę czekać dwóch tysięcy wieków
na wejście pod twój dach.*

*- Jeżeli mi nie wierzysz- mówi kamień-
zwróć się do liścia, powie to, co ja.*

—Gela eskerga hutsak —dio harriak—.

Baina ez dago tokirik.

Ederrak, beharbada, baina ez
zure sentimen motzen gusturako.

Ikus nazakezu baina dastatu inoiz ez.

Aurrea ematen dizu nire azalak,
baina atzea barrenak.

Harriaren atean jo dut.

—Neu naiz, utzi sartzen.

Ez natorkizu betiko babes eske.

Ez naiz dohakabe.

Ez nago kale gorrian.

Nire munduak bertara itzultzea merezi du.

Sartu bezala aterako naiz, esku hutsik.

Zure baitan egon naizelako froga bakarra

nire hitzak izango dira,

inork sinetsiko ez dituen hitzak.

—Ez zara sartuko —dio harriak—.

Partaidetza-sena falta zaizu.

Eta ez da ordezeko senik.

Dena ikusteko ahalmena bera ere

alferrikakoa duzu parte hartzeko gauza ez bazara.

Ez zara sartuko; sen hori zugar xede hutsa da,

ahalegin hutsa, fantasia hutsa.

Harriaren atean jo dut.

—Neu naiz, utzi sartzen.

Ez naiz bi mila mende zain egoteko prest

zure aterpera sartzeko.

—Ez badituzu nire hitzak sinesten —dio harriak—,

zoaz hostoarengana eta gauza bera esango dizu,

*Do kropli wody, powie to, co liść.
Na koniec spytaj włosa z własnej głowy.
Śmiech mnie rozpiera, śmiech, olbrzymi śmiech,
którym śmiać się nie umiem.
Pukam do drzwi kamienia.
- To ja, wpuść mnie.
- Nie mam drzwi- mówi kamień.*

(1962)

POCHWAŁA ZŁEGO O SOBIE MNIEMANIA

*Myszolów nie ma sobie nic do zarzucenia.
Skrupuły obce są czarnej panterze.
Nie wątpią o słuszności czynów swych piranie.
Grzechotnik aprobeuje siebie bez zastrzeżeń.*

*Samokrytyczny szakal nie istnieje.
Szarańcza, aligator, trychina i giez
żyją jak żyją i rade są z tego.*

*Sto kilogramów waży serce orki,
ale pod innymi względami lekkie jest.*

*Nic bardziej zwierzęcego
niż czyste sumienie
na trzeciej planecie Słońca.*

(1976)

edo ur-tantarengana, hostoak esana errepikatuko baitizu.
Galdeiozu, halaber, zure buruko ile bati.
Barrez lehertzeko zorian nago,
naturak galarazten didan barreaz.

Harriaren atean jo dut.

—Neu naiz, utzi sartzen.

—Ez dut aterik —dio harriak.

NORK BERE BURUA GUTXIESTEAREN LAUDORIOA

Zapelatzak ez dio bere buruari ezer leporatzen.
Ez du kezkarik erakusten pantera beltzak.
Pirainek ez dute inoiz euren jokaera zalantzan jartzen.
Eta kriskitin-sugeak bere burua onesten du etengabe.

Ez da mundu zabalean txakal autokritikorik.
Otia, kaimana, trikina eta ezpara
euren larruan gozo bizi dira.

Ehun kilo pisatzen du orkaren bihotzak,
baina, funtsean,
arina da luma bezain.

Eguzkiaren hirugarren planetan,
kontzientzia garbi lasaia
aberekeriaren zantzu argiena dugu.

POCHWAŁA SIOSTRY

*Moja siostra nie pisze wierszy
i chyba już nie zacznie nagle pisać wierszy.
Ma to po matce, która nie pisała wierszy,
oraz po ojcu, który też nie pisał wierszy.
Pod dachem mojej siostry czuję się bezpieczna:
mąż siostry za nic w świecie nie pisałby wierszy.
I choć to brzmi jak utwór Adama Macedońskiego,
nikt z krewnych nie zajmuje się pisaniem wierszy.*

*W szufladach mojej siostry nie ma dawnych wierszy
ani w torebce napisanych świeżo.
a kiedy siostra zaprasza na obiad,
to wiem, że nie w zamiarze czytania mi wierszy.
Jej zupy są wyborne bez premedytacji,
a kawa nie rozlewa się na rękopisy.*

*W wielu rodzinach nikt nie pisze wierszy,
ale jak już- to rzadko jedna tylko osoba.
Czasem poezja spływa kaskadami pokoleń,
co stwarza groźne wiry w uczuciach wzajemnych.*

*Moja siostra uprawia niezłą prozę mówioną,
a całe jej pisarstwo to widokówki z urlopu,
z tekstem obiecującym to samo, każdego roku:
że jak wróci,
to wszystko
wszystko
wszystko opowie.*

(1976)

AHIZPAREN LAUDORIOA

Ahizpak ez du poemarik idazten,
eta seguraski ez du jadanik poemarik idatziko.
Amarengandik datorkio ohitura, gureak ez baitzuen poemarik
idazten,
eta aitarengandik, jakina, hark ere ez baitzuen poemarik
idazten.

Ahizparen aterpean seguru sentitzen dut neure burua:
ahizparen senarrak ez luke inolaz ere poemarik idatziko.
Badakit nire hitzek Adam Macedofskiren¹ testu bat ekartzen
dutela gogora,
baina etxekoen artean ez du inork poemarik idazten.

Ahizparen kaxoiek ez dute poema zaharrik barruan,
haren poltsan ez da poema idatzi berririk.
Eta bazkaltzera gonbidatzen nauenean ere,
badakit ez duela poemak irakurtzeko asmoz egiten.
Bere zopak gozo-gozoak dira eta ez dute esanahi ezkuturik.
Eta kafea ez da inoiz eskuizkribuetara erortzen.

Etxe askotan, inork ez du poemarik idazten,
baina kideren bat hasten bada, gutxitan izaten da bakarra.
Batzuetan, poesia urjauzien antzera erortzen da belaunaldiz-
belaunaldi,
eta elkarrekiko sentimenduen baitan zurrunbilo arriskutsuak
ditu sortzen.

Ahizpak ahozko prosa dotore samarra du
eta literatur-lana postal turistikoetan agertzen du soilik,
urtero-urtero promesa bera errepikatzen duen testu honekin:
bueltan
dena
kontatuko du,
den-dena.

POKÓJ SAMOBÓJCY

*Myslicie pewnie, że pokój był pusty.
A tam trzy krzesła z mocnym oparciem.
Tam lampa dobra przeciw ciemności.
biurko, na biurku portfel, gazety.
Budda niefrasobliwy, Jezus frasobliwy.
siedem słoni na szczęście a w szufladzie notes.
Myslicie, że tam naszych adresów nie było?*

*Brakto, myślicie, książek, obrazów i płyt?
A tam pocieszająca trąbka w czarnych rękach.
Saskia z serdecznym kwiatkiem.
Radość iskra bogów.
Odys na półce w życiodajnym śnie
po trudach pieśni piątej.*

*Moraliści,
nazwiska wypisane złotymi zgłoskami
na pięknie garbowanych grzbietach.
Politycy tuż obok trzymali się prosto.*

*I nie bez wyjścia, chociażby przez drzwi,
nie bez widoków, chociażby przez okno,
wydawał się ten pokój.
Okulary do spoglądania w dal leżały na parapecie.
Brzęczała jedna mucha, czyli żyła jeszcze.*

*Myslicie, że przynajmniej list wyjaśniał coś.
A jeśli wam powiem, że listu nie było-
i tylu nas przyjaciół, a wszyscy się pomieścili
w pustej kopercie opartej o szklanke.*

BERE BURUA HIL ZUENAREN GELA

Zuen ustez gela hutsik zegoen.
Eta baziren han hiru aulki bizkarralde sendoz hornituak.
Lanpara bat ilunpeen aurkako borroka etengabea.
Idazmahaiak, gainean paper-zorroa eta egunkariak.
Buda bat arduragabeko, eta Kristo bat arduratsu.
Zazpi elefante zoriona ekartzeko, eta kutxan agenda bat.
Zuen helbideak agertzen ez zirela uste duzue?

Ez libururik, ez diskorik, ezta irudirik ere ez zegoen zuen ustez?
Eta bazen han tronpeta lasaigarri bat esku beltzen artean.
Saskia bere lore xamurraz.
Poza. Jainkoen pindarra.
Ulises apalategian atsedena hartzen lo goxoan
Bosgarren Kantuaren lanak bukatu ondoren.
Moralistak
izenak urrezko letretan,
liburuetako larru dotore zurratuetan.
Ondoan, politikariak, tente!

Eta gela hark
irteera izan bazuen. Hori bai, atetik baino ez.
Eta ikusmirak ere bazituen, hori bai, leihotik baino ez.
Eta leiho ondoan betaurrekoak zeuden, urruna begiratzeko.
Burrumba egiten zuen euli batek, alegia, artean bizirik zen.

Gutunak dena azaltzen zuela uste duzue.
Eta ez zela gutunik esaten badizuet?
Asko gara adiskideak, baina guztiok sartu ginen
baso batek eutsiriko gutunazal huts batean.

KRÓTKIE ŻYCIE NASZYCH PRZODKÓW

Niewielu dożywało lat trzydziestu.
Starość to był przywilej kamieni i drzew.
Dzieciństwo trwało tyle co szczenięstwo wilków.
Należało się śpieszyć, zdążyć z życiem
nim słońce zajdzie,
nim pierwszy śnieg spadnie.

Trzynastoletnie rodzicielki dzieci,
czteroletni tropiciele ptasich gniazd w sitowiu,
dwudziestoletni przewodnicy łowów-
dopiero ich nie było, już ich nie ma .
końce nieskończoności zrastały się szybko.
Wiedźmy żuły zakłęcia
wszystkimi jeszcze zębami młodości.
Pod okiem ojca mężniał syn.
Pod oczodołem dziadka wnuk się rodził.

A zresztą nie liczyli sobie lat.
Liczyli sieci, garnki, szalasy, topory.
Czas, tak hojny dla byle gwiazdy na niebie,
wyciągał do nich rękę prawie pustą
i szybko cofał ją, jakby mu było szkoda.
Jeszcze krok, jeszcze dwa
wzdłuż połyskliwej rzeki,
co z ciemności wypływa i w ciemności znika.

Nie było ani chwili do stracenia,
pytań do odłożenia i późnych objawień,
o ile nie zostały za wczasu doznane.
Mądrość nie mogła czekać siwych włosów.
Musiała widzieć jasno nim stanie się jasność,
i wszelki głos usłyszeć, zanim się rozlegnie.

ARBASOEN BIZITZA LABURRA

Gutxi heltzen ziren hogeita hamar urte betetzera.
Zahartzaroa zuhaitzen eta harrien pribilegioa zen.
Haurtzaroak otsoa otsoko den aldi laburra irauten zuen.
Presaka ibiltzea ezinbestekoa zen bizirik izateko
ilunabarrean,
lehen elurren garaian.

Hamahiru urteko erdiberriak,
ihien artean habi bila lau urterekin,
hogeikoak chiztarien buru ziren,
bazeuden duela gutxi eta jadanik ez daude.
Infinitoaren ertzak berehala batzen ziren.
Sorginek araoak esaten zituzten ahapeka
hortzak artean gazte.
Semea gizondu egiten zen aitaren begiradapean.
Aitonaren begi lausotuek ilobaren jaiotza ikusten zuten.

Ez zituzten, ez, urte beteak inoiz kontatzen.
Sareak, eltzeak, txabolak eta aizkorak, bai ordea.
Denborak, zeruko izarrekin eskuzabal,
esku-ahur ia hutsa eskaintzen zien
eta berehala ukatu, damaturik.
Beste urrats bat, urrats bi
ilunpeetan jaio eta ilunpeetan hiltzen den
ispiluzko ibaian zehar.

Denbora galtzerik ez zuten,
ezin utzi galderak biharko,
ezta ezagutzak berandu hartu ere, goiz baino.
Jakituriak ile urdinei hartzen zien aurre,
argi egin baino lehen argi ikusi behar zuen,
ahotsa entzun behar hots egin baino lehen.

*Dobro i zło-
wiedzieli o nim mało, ale wszystko:
kiedy zło triumfuje, dobro się utaja;
gdy dobro się objawia, zło czeka w ukryciu.
Jedno i drugie nie do pokonania
ani do odsunięcia na bezpowrotną odległość.
Dlatego jeśli radość, to z domieszką trwogi,
jeśli rozpacz, to nigdy bez cichej nadziei.
Życie, choćby i długie, zawsze będzie krótkie.
Zbyt krótkie, żeby do tego coś dodać.*

(1986)

SCHYLEK WIEKU

*Miał być lepszy od zeszłych nasz XX wiek.
Już tego dowieść nie zdąży.
lata ma policzone,
krok chwiejny, oddech krótki.*

*Już zbyt wiele się stało,
co się stać nie miało,
a to, co miało nadejść,
nie nadeszło.*

*Miało się mieć ku wiosnie
i szczęściu, między innymi.*

*Strach miał opuścić góry i doliny.
Prawda szybciej od kłamstwa
miała dobiegać celu.*

Ongia eta gaizkia.
Gutxi zekiten bi horiez eta dena zekiten:
gaizkia gailentzean, ostentzen da ongia;
ongia agertzean, zelatan da gaizkia.
Bata zein bestea garaitezinak dira,
itzultzerik baden lurraldeaz haraindi ezin erbestera.
Horregatik, ez da pozik izu itzalik ezean,
ez-eta etsipenik itxaropen izpirik ezean.
Bizitza, luze izanagatik, beti da labur.
Ezer gehitzeko laburregi.

MENDEAREN HONDARREAN

Lehenagokoak baino hobea izan behar zuen, gure XX. mende
honek.

Dagoeneko ez du frogatzeko betarik,
azkenetan baitago,
ibili herrena,
laburra hatsa.

Gertatu behar ez zuen gauza gehiegi
gertatu da,
eta heldu behar zuena
ez da heldu.

Udaberriak lehertu egin behar zuen
eta, besteak beste, zorionak.

Izuak ibar-mendiak behar zituen utzi.
Egiak, gezurrak baino bizkorrago,
helburura behar zuen iritsi.

*Miało się kilka nieszczęść
nie przydarzyć już,
na przykład wojna
i głód, i tak dalej.*

*W poważaniu być miała
bezbronność bezbronnych,
ufność i tym podobne.*

*Kto chciał cieszyć się światem,
ten staje przed zadaniem
nie do wykonania.*

*Głupota nie jest śmieszna.
Mądrość nie jest wesola.
Nadzieja
to już nie jest ta młoda dziewczyna
et caetera, niestety.*

*Bóg miał nareszcie uwierzyć w człowieka
dobrego i silnego,
ale dobry i silny
to ciągle jeszcze dwóch ludzi.
Jak żyć- spytał mnie w liście ktoś,
kogo ja zamierzałam spytać
o to samo.*

*Znowu i tak jak zawsze,
co widać powyżej,
nie ma pytań pilniejszych
od pytań naiwnych.*

(1986)

Ez zegoen zertan errepikatu behar
zenbait zorigaitz,
gerra, esate baterako,
eta gosea, eta abar.

Babesgabeen babesik ezak
begirunea merezi zuen,
eta konfiantzak, eta antzerako gauza horiek.

Mundu honetan atsegin hartu nahi duenak
erronka ezinezkoa
du aurrez-aurre.

Ergelkeria ez da barregarria.
Jakituria ez da alaia.
Itxaropenak
utzi zion neskato eder
eta abar izateari, tamalez.

Jainkoak, azkenik, gizaki on eta indartsuaren baitan
sinetsi behar zuen,
baina ona eta indartsua
bi gizaki dira beti.

“Nola bizi?” gutun batean galdetu zidanari
egin nahi nion nik
galdera bera.

Berriro, beti bezala,
eta arestian esandakoari jarraiki:
premiazkoenak
galdera xaloak dira.

TORTURY

Nic się nie zmieniło.

*Ciało jest bolesne,
jeść musi i oddychać powietrzem i spać,
ma cieką skórę, a tuż pod nią krew,
ma spory zasób zębów i paznokci,
kości jego łamliwe, stawy rozciągliwe.
W torturach jest to wszystko brane pod uwagę.*

Nic się nie zmieniło.

*Ciało drży, jak drżało
przed założeniem Rzymu i po założeniu
w dwudziestym wieku przed i po Chrystusie,
tortury są, jak były, zmalała tylko ziemia
i cokolwiek się dzieje, to tak jak za ścianą.*

Nic się nie zmieniło.

*Przybyło tylko ludzi,
obok starych przewinień zjawily się nowe,
rzeczywiste, chwilowe, wmówione i żadne,
ale krzyk, jakim ciało za nie odpowiada,
był, jest i będzie krzykiem niewinności,
podług odwiecznej skali i rejestru.*

Nic się nie zmieniło.

*Chyba tylko maniery, ceremonie, tańce.
Ruch rąk osłaniających głowę
pozostał jednak ten sam.
Ciało się wije, szarpie i wyrywa,
ścięte z nóg pada, podkurcza kolana,
sinieje, puchnie, sline się i broczy.*

TORTURAK

Ez da deus aldatu.

Gorputza mingarria da,
jan egin behar du, arnasa hartu, lo;
leuna du azala eta, azpian, odola,
hortz eta azkazalen erreserba ona du,
hezur hauskorrak, artikulazio luzakorrak.
Torturatzeko, hau guztia hartzen da kontuan.

Ez da deus aldatu.

Gorputzak dardar egiten du
hala Erromaren fundazio aurretik nola geroztik ere,
hala Kristo aurreko XX. mendean nola ostekoan ere.
Torturak berdin dirau, lurra txikitu den arren,
dena hementxe bertan gertatzen dela ematen duen arren.

Ez da deus aldatu.

Biztanle-kopurua handitu egin da soilik,
erru zaharrei berriak gehitu zaizkie,
benetakoak, balizkoak, une batekoak, baliogabeak;
baina oihu gorputzak jaurtikia
errugabearena izan da eta izanen;
betidaniko izari eta neurrien arabera.

Ez da deus aldatu.

Agian moduak, zeremoniak, dantzak,
baina burua babesteko, eskuek
keinu bera egiten dute beti.
Gorputza uzkurtu egiten da, libratzeko borroka egiten du,
luze erortzen da lurrera, belaunak tolesten ditu,
ubeldu egiten da, puztu, lerdea eta odola dario.

*Nic się nie zmieniło.
Poza biegiem rzek,
linią lasów, wybrzeży, pustyń i lodowców.
Wśród tych pejzaży duszyczka się snuje,
znika, powraca, zbliża się, oddala,
sama dla siebie obca, nieuchwytna,
raz pewna, raz niepewna swojego istnienia,
podczas gdy ciało jest i jest i jest
i nie ma się gdzie podziąć.*

(1986)

POGRZEB

*„tak nagle, kto by się tego spodziewał”
„nerwy i papierosy, ostrzegałem go”
„jako tako, dziękuję”
„rozpakuj te kwiatki”
„brat też poszedł na serce, to pewnie rodzinne”
„z tą brodą to bym pana pewnie nigdy nie poznała”
„sam sobie winien, zawsze się w coś mieszał”
„miał przemawiać ten nowy, jakoś go nie widzę”
„Kazek w Warszawie, Tadek za granicą”
„ty jednak byłaś mądra, że wzięłaś parasol”
„cóż z tego, że był najzdolniejszy z nich”
„pokój przechodni, Baśka się nie zgodzi”
„owszem, miał rację, ale to jeszcze nie powód”
„z lakierowaniem drzwiczek, zgadnij ile”
„dwa żółtka, łyżka cukru”
„nie jego sprawa, po co mu to było”
„same niebieskie i tylko małe numery”*

Ez da deus aldatu.
Ibaien bidea izan ezik,
baso, kosta, desertu eta glaziarren muga izan ezik.
Leku horietan zehar errari dabil arimatxoa,
desagertzen, itzultzen, hurbiltzen eta urruntzen da,
bere buruari arrotz, eskuragaitz,
orain bere izaeraz seguru eta gero zalantzakor;
bitartean, gorputza bada, izan eta izanen da,
eta ez du inon babeslekurik.

HILETA

«hain ustekabea, nork esango»
«kirioak eta tabakoa, esan nion ba»
«ondo esan beharko»
«kendu estalkia loreci»
«anaia ere bihotzekoak jota, etxetik datorkie»
«bizar horrekin ezta ezagutu ere»
«bila zebilen, behar ez zuen tokian beti muturra sartzen»
«berriak hitz batzuk esan behar zituen, baina ez da inondik ageri»
«Kazek Varsovian, Tadek atzerrian»
«hik bai jakin, ez dun euritakoa alferrik hartu»
«bera azkarrena izan ez izan, horrek ez du axola»
«tarteke gela bat, Barbarak ez du onartuko»
«bai, egia da, zuzen zebilen, baina horrek ez du ezertxo ere esan nahi»
«berniz eta guzti, ezetz asmatu zenbat»
«bi gorringo eta azukre-goilarakada bat»
«ez zen bere kontua, zer atera du onik»

„pięć razy, nigdy żadnej odpowiedzi”
„niech ci będzie, że mogłem, ale i ty mogłeś”
„dobrze, że choć ona miała tę posadkę”
„no, nie wiem, chyba krewni”
„ksiądz istny Belmondo”
„nie byłam jeszcze w tej części cmentarza”
„śnił mi się tydzień temu, coś mnie tknęło”
„niebrzydka ta córeczka”
„wszystkich nas to czeka”
„złóżcie wdowie ode mnie, muszę zdążyć na”
„a jednak po łacinie brzmiało uroczyściej”
„było, minęło”
„do widzenia pani”
„może by gdzieś na piwo”
„zadzwoń, pogadamy”
„czwórką albo dwunastką”
„ja tędy”
„my tam”
(1986)

«urdinak ez beste, eta neurri txikiak»
«bost aldiz eta erantzunik ez»
«ados, egin nezakeen, baina zeuk ere bai»
«eskerrak gutxienez andreak lanpostu hori zuela»
«ez ditut ezagutzen, ahaideren batzuk edo»
«Belmondo bera da apaiza»
«hilerriaren alde honetan ez naiz egundo izan»
«berarekin egin nuen amets duela gutxi, izan nuen susmo txarren bat»
«alaba ere ez da makala»
«denoi helduko zaigu»
«eman alargunari..., ez naiz garaiz helduko...»
«latinez tonu irmoagoa zuen»
«joanak joan»
«ikusitarte»
«garagardo bat har genezake»
«deitu, hitz egingo dugu»
«laua edo hamabia hartu»
«ni hemendik»
«gu hara»

KONEC I POCZĄTEK

*Po każdej wojnie
ktoś musi posprzątać.
Jakiś tak porządek
sam się przecież nie robi.*

*Ktoś musi zepchnąć gruzy
na pobocza dróg,
żeby mogły przejechać
wozy pełne trupów.*

*Ktoś musi grzęznąć
w szlamie i popiele,
sprężynach kanap,
drzazgach szkła
i krwawych szmatach.*

*Ktoś musi przywlec belkę
do podparcia ściany,
ktoś oszklić okno
i osadzić drzwi na zawiasach.*

*Fotogeniczne to nie jest
i wymaga lat.
Wszystkie kamery wyjechały już
na inną wojnę.*

*Mosty trzeba z powrotem
i dworce na nowo.
W strzępach będą rękawy do zakasywania.*

*Ktoś z miotłą w rękach
wspomina jeszcze jak było.*

BUKAERA ETA HASIERA

Gerra bakoitzaren ostean
garbiketa-lanak egin behar norbaitek.
Ordena gutxienekoa
ez da berez jarriko.

Norbaitek bide bazterretara
bildu behar ditu zabor-hondakinak,
igaro ahal izateko
gurdi gorpuz beteak.

Norbaitek murgildu behar du
lokatzetan eta errautsetan,
besaulkietako malguki,
beira ezpal,
eta zapi odolduen artean.

Norbaitek habea eraman behar du arrastaka
hormari eutsi ahal izateko,
norbaitek leihoetako kristalak jarri behar ditu,
eta ateak erroetan sartu.

Ez da oso lan fotogenikoa,
eta urteak behar izaten dira.
Kamara guztiak dagoeneko
beste gerra batera joanak dira.

Zubiak berriro ere,
ostera ere geltokiak.
Jasoaren jasoaz listu egingo dira mahukak.

Norbaitek, erratza eskuan,
gogoan du oraindik nolakoa zen dena.

*Ktoś słucha
przysłuchując nie urwaną głową.
Ale już w ich pobliżu zaczną kręcić się
tacy,
których to będzie nudzić.*

*Ktoś czasem jeszcze
wykopie spod krzaka
przeżarte rdzą argumenty
i poprzemieni je na stos odpadków.*

*Ci, co wiedzieli
o co tutaj szło,
muszą ustąpić miejsca tym,
co wiedzą mało.
I mniej niż mało.
I wreszcie tyle co nic.*

*W trawie, która porosła
przyczyny i skutki,
musi ktoś sobie leżeć
z kłosem w zębach
i gapić się na chmury.*

(1986)

Norbaitek entzun,
eta moztu ez zioten buruaz baietz dio.
Baina laster ariko dira bueltaka euren inguruan
horri guztiari aspergarri deritzotenak.

Oraindik, lantzean behin,
norbaitek argudio herdoilen bat
ateratzen du sasi artetik
eta zabor-metara bota.

Zer den eta zer ez den
aspalditik dakitenek
bidea utzi behar diete
apenas ezer dakitenei.
Apenas ez, gutxiago.
Tutik ere ez.

Belarra hazi berri da
Kausen eta efektuen gainean.
Norbaitek hantxe etzan behar du,
eta, galburu bat hortzetan,
hodeici begira egon.

1. Erdeinuzko aipua. Adam Macedofski irakurleko zabala baino areago eskerga duen olerkari
eta marrazkilaria poloniarra da.

FITXA BIBLIOGRAFIKOA

Jatorrizko iturriak:

Poezje.

Kraków: Wydawnictwo Literackie. 1989.

Widok z ziarnkiem piasku.

Poznań: Wydawnictwo A5. 1993.

View with a Grain of Sand.

London: Faber & Faber. 1996.

Frantsesezko edizioak:

Dans le fleuve d'Héraclite.

Beuvry: Maison de la poésie Nord-Pas-de-Calais. 1995.

De la mort sans exagérer.

Paris: Fayard. 1996.

Deux poétesses polonaises contemporaines.

Mundolsheim: l'Ancrier éd. 1996.

Gaztelaniazko edizioak:

Paisaje con grano de arena.

Barcelona: Lumen. 1997.

El gran número. Fin y principio.

Madrid: Hiperión. 1997.

Nik, egia esan, ez nion ezer berezirik nabaritu, lehenengo egunetan behintzat. Akaso aurpegia ezaguna egiten zitzaidala, ezagunegia, kaleetako oinezkorik arruntenaren estereotipoarena bailitzan. Berandu heldu zen, ikastaroa hasi eta laugarren edo bosgarren astean, ordurako lehenengo afaria egina genuelarik. Izan ere gutako askok lehendik ere elkar ezagutzen genuen, lehenengo urratsetik hain zuzen ere. Edozein kasutan, ez zitzaigun arraroa iruditu, ikastaroan berandu sartzea nahikoa ohikoa baita, batez ere azkenaldi honetan, hizkuntza-eskakizun aldaketak direla-eta askori izugarrizko presa sartzen baitzaie. Marianorena ordutegi aldaketa soila bide zen, arratsaldeko ordutegitik goizekora; hala esan zigun behintzat, eta garai hartan ez genuen izan haren hitza dudatan jartzeko inongo arrazoirik.

Urriaren bukaeran gertatu zen hori. Eguraldia zakarra zen eta gela hartan hotzez hiltzen ginen komuntzaduren sekretuak eta subjunktiboaren bihurtzeak ikasten genituelarik. Euskaltegiak, geroz eta laguntza ofizial eskasagoekin, ez zuen berogailua ordaintzeko adina diru, ez behintzat egun osorako, eta ez zen pizten arratsaldetan baizik, gehienez bi orduz, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzuak gure eskualde termikoan etxeak zortzi orduz berotu behar zirela gomendatzen zuenean. Garaje izena ere merezi ez duen bebarru zahar bat zen egoitza, kanporako leihorik gabekoa, iluna

eta gaizki isolatua. Ikasle eta irakasle militanteen belaunaldien ahaleginek margo bizi, trantsizio garaiko euskal-eslogan eta marrazki naifez estali nahi izan zituzten paret triste haiek, baina hezetasuna indartsuagoa gertatu zen eta izkina batzuk jadanik urdintzen hasiak ziren, tximeleta, lore eta euskaltzale hipotetikoen masen irudiak nolabaiteko erdiragarritasunez jantziz.

Ikasgelan hamalau gara, hamabost Marianorekin, hogeita lau Jaurlaritzako ikuskaria datorrenean inguruko tabernetan erreklutatzen ditugun behin-behineko ikaskide faltsuak kontatzen badiugu: dirulaguntzen auzia ez dago txantxetarako, zuzendaritzakoek behin eta berriro gogorazten diguten bezala. Lau ordu luzez aritzen gara ikasketak konpartitzen, goizeko zortzietatik eguerdira arte. Hamarrak aldera eten bat egiten dugu, ia beti kafea hartzera abiatu ohi garelarik gu sartzerakoan automatikoki bertan duten Laboralak oparitutako Oskorriren konpaktu bakarra jartzen duten pareko tabernara. Eskolako giroa lasaia da oso, ikasketa erritmoa bezala: Mentxuk, gure irakasleak, ez du irudimen gehiegirik, ezta presarik ere. Normalean beti eskema berbera jarraitzen du: lehenengo orduan irakurketa eta ortografia, bigarrenean aditzak eta ariketak, hirugarrenean elkarrizketa eta laugarrenean gramatika, idazlanak, diktaketak eta zalantzak. Berrogei urte inguru du eta janzten duen arropa hippya anakroniko xamar geratzen ari zaio, nire ustez behintzat. Ez dirudi horrek axola dionik, ezta aurrean dituen ikasleek ere: halako indiferentzia batez inpartitzen ditu eskolak, metodikoki, zehazki, aurrean sumatuko ez bagintu bezala, orain dela hamasei urteko bere aurreneko ikasle berberak bagina bezala, beti berdinak, sekula aurrera egin gabe. Adibideak, behintzat, ordukoak dira: “Oso ondo jokatu ez zuen arren, Satrustegik sartu zuen irabazteko behar zuten gola”, “Kepak esan duenez, Euskaldunako langileek greba egiten jarraituko dute”, “Ez Andaluzian bakarrik, Estatu osoan ari da zabaltzen langa-

bezia”, “Itoizen kontzertuan ezagutu genuen elkar”, eta antzeko hamaika. Gogo berotzen zaio, ordea, zozketarako txartelak ikasleen artean banatu, euskaltegiko kartelak lekedatu edo plazan antolatzen den pseudo-azokan txorizo egosia taloarekin zerbitzatu behar duenean. Orduan bakarrik ikusi dut irribarretsu eta alai.

Baina hori beste kontu bat da. Marianoz ari nintzen. Ez niola ezer berezirik sumatu aipatu dut. Altua, hogeita hamar bat urte, tripa piska batekin, despistatu xamarra, haren begi urdin sakonak ziren atentzioa deitzen zuten bereizgarri bakarra. Ekonomikaseko ikasketak eginak zituela eta —nola ez— Eusko Jaurlaritzako funtzionarioa zela esan zigun. Ezer berezirik ez hiri santu honetan. Ailegatu zenean gurea baino euskara traketsagoa bazuen ere —honek, egia esan, ez du gauza handirik esan nahi—, berehala hartu zion Mentxuri martxa (eza). Isila zen oso, eta galdetzen ziotenean baizik ez zuen erantzuten: izugarri kostatzen zitzaion *motu propio* hitz egitea. Zein den isila eta zein arlote galanta, berehala nabaritzen da euskaltegi batean, elkarrizketa ordu madarikatuei esker hain zuzen ere. Egia da gaiak ez direla bereziki erakargarriak: ea zer gertatuko zaien euskal taldeei aurtengo Ligan, nora joango zinateke oporretan, bertsolaritza gaur, abortoa, homosexualitatea, bertsolaritza berriz ere... ia-ia ikastaroero errepikatzen diren leloak. Noski, urtetik urtera geroz eta gehiago sakontzeko gai gara-edo —eskerrak— baina azkenean badakizu, kasik zehaztasun osoz, besteak zer pentsatzen duen amnistiaz edo Europar Elkar-teari buruz, eta asperdura nagusitzen da. Hala ere, beti dago gogotsuren bat arestian agortutako gaiari txinparta berriak ateratzeko prest, eztabaidaren benetako profesionala, sofisten abileziaz aurten jarrera bat eta datorren ikastaroan justu kontrakoa defendatzeko gai den horietakoa. Mariano, edozein kasutan, ez zen kasta horretakoa eta eztabaidetan isil-isilik geratu ohi zen, bere koaderno arrosan oso letra txukunaz apunteak hartu eta hartu.

Mikel, ordea, aipatu dudan *tertuliano* tankera horretakoa zen. Tximaluzea, beti jertse more zulatu batez jantzia, txiste edo ironia iraunkorra ahoan, polemista sutsuaren lana egiteagatik euskaltegiak soldatutxo bat ordaintzen ziola zirudien. Mikel intsumisioa zen, eta antzeko beste hiru edo lau talde ez-gobernatar horietako partaidea, baina, tamalez, bere hitz-jarioa ez zen intsumisioa eta objektzioa bezalako gaitara mugatzen: den-denaz zekien, berdin eskubaloiaz zein nazioarteko politikaz edo ekonomiaren mundializazioaz, eta beti besteen iritzien kontra jartzeko prest gainera. Euskaldun berri-gaiak, jakina den bezala, bi talde nagusitan banatzen dira: alde batetik, euskara gaizki egiten dutelakoan lotsatu eta, hortaz, gehienetan txintik esaten ez dutenak –sagardotegira urtero egiten dugun afarian izan ezik, zeinetan bertsoak eta guzti kantatzen baitituzte, euskal ahozko literaturaren kalte iraunkorerrako– eta, beste aldetik, inongo lotsarik gabe edozer gauza botartzeko prest daudenak, Mikel bezala. Lehenengo ikastarotik jasaten dut eta neskei, orokorrean, oso atsegina egiten bazaie ere –ez dut inoiz ulertuko– ez dut berarekin tratu handiegirik izan, ezta nahi ere. Afarietan, esate baterako, ez da batere komenigarria haren alboan jartzea, ziur egon baitzaitezke uneren batean uraz edo zerbait okerragoz dutzatuko zaituela, golkoa ogi-apurrez beteko dizula edo, erretzailea bazara, zigarroan petardotxo sartuko. Behin baino gehiagotan otu zait berari eta, derrigorrez, biktimari hain barregarria iruditu behar zaion ohitura honek Sistemaren kontrako borrokari eta munduko herri zapalduen senidetasunari zernolako mesedea egiten dien galdetzea baina, azkenean, ez naiz ausartu, bere hurrengo gezi dialektikoaren beldur-edo.

Mikel izan zen, noski, Mariano ertzaina zela jakin zuen aurrena, auskalo zein bidetatik (kontaktuak al zituen polizian? Agente bikoitza genuen, akaso? Enpin, ez naiz orain hasiko gutxienez bi aldiz irakurri behar izan dugun Xabier Montoiaren *Non dago*

Stalin?-en bezala...)). Agian manifestazioren batean ikusi zuen, edo patruilatzen, edo egoitza ofizialen bat zaintzen, edo beste norbaitek esanda, berdin dio. Ez dut uste berehala esan zigunik. Lehenengo egunetan ez zuen ezer egin, baina berarekin zakar portatzen hasi zela gogoratzen dut, eta tabernara joaten ginenean ez zion inongo kasurik egiten. Mementu hartan ez nion garrantzirik eman eta, egia esan, aipatu dut Mariano ez zela bereziki komunikatiboa: izkina batean esertzen zen eta kafesnea zurrupada txikiz edanez *El Correoko* kirol orriak kontu handiz pasatzen zituen erritmo berberean. Baina zaila zen, aste osoan zehar, Mikelen trufa jasan gabe egotea, eta Mariano libratzen ari zen. Hurrengo pausua begiradak izan ziren, begirada itsusi horiek, eskolako giroa zeharkatu eta Mikelen idazmahaitik Marianorenena zuzentzen zirenak, honek ahoa ireki bezain laster. Eta zurrumurruak, ondoko ikaskideari xuxurlatutako irainak, errespetu falta geroz eta argiagoak.

Mikelen gorroto hartaz konturatzen hasiak ginenean gertatu zen. Mentxuk ez zuen egun hartan eztabaidagaia berak jartzeko asmorik edo gogorik, eta nahi genuenaz hitz egitea agindu zigun. Mikelek ez zuen instant batean dudan egin ere: Euskal Herrian indar errepresiboek duten jarrerari buruzko debatea proposatu zigun. Tira, pentsatu nuen, klasiko bat, baina ez dugu hirugarren urratsez gero berriro ere errepikatu. Entzun genituen iritziak nahikoa topikoak izan ziren, noski, oso kritikoak, jakina. Batzuen jipoi eta taberna-erregistroen anekdotarioa Polizia Nazionalaren garaietatik hona ederki loditu dela konturatzeko parada izan bagenuen ere (eta, hortaz, polizia guztiak berdinak edo oso antzekoak direla, txakurrak beti txakur...), eztabaidak, aditz trinko batzuk gora-behera, ez zuen nigan interes handiegirik piztu. Ezta Marianorengan ere, gramatika-akats gutxiko hizketaldi monotono eta leunki erradikala bota zigularik. Azkenengo hitza, beti

bezala, Mikelek hartu zuen –aurki hamaiketakoaren ordua izan behar zen–, eta Marianorentzat izan zen. Irribarre maltzur batekin, hipokrita hutsa zela aurpegiratu zion, ea Arkauten hura bezalako gezurrak esaten irakasten zieten, manifestazioetan infiltratzeko Negu Gorriak-en kamisetak erosten eta erabiltzen erakusten zieten bezala. Batzuk ez ginen berehalakoan konturatu, Mikelen hizkera oraindik nahikoa traketsa zelako eta gauzak beti arrapaladan kontatzen dituelako, baina piztu zen iskanbilaren erdian gertatzen zenaz jabetu ginen. Mariano gorri-gorri eginda zegoen, non sartu ez zekiela; «Kabroia!» eta «Alde hemendik!» entzun genuen. Mentxu gure irakasleak ez zekien zer demontre egin eta, beraz, atsedean ordua aurreratzea erabaki zuen. Ziztu bizian atera ginen denok: Mariano komunera, Mentxu idazkaritzarantz, eta beste guztiok tabernara, *Gaztelugatxe* milagarren aldiz entzutera.

Zuritoak inoiz baino ugariagoak izan ziren solasaldi hartan, neskak eta mutilak denak elkarrekin ia lehenengo aldiz, ez genuen ez Errealaz ez oposaketez ezta filmeez ere hitz egin, baizik eta Mariano gure ertzainaz. Lehenengo konklusioa argia zen: mundu guztiak zion susmorik txarrenak hartuta, «Funtzionarioa, ja!», nik barne, egia ez bazen ere; ez nuen besteen aurrean lotsagarri geratu nahi. Norbaiti *berrozia* ala *beltza* izan zitekeela otu bazitzaion ere, hamar minutuko eztabaidatxo baten ondoren hipotesia baztertzea erabaki genuen. «Fijatu al zarete tripan? Hori ez duk *beltza* ni pa Dios». «*Beltzak* kankailu batzuk izan ohi dira, traste beldurgarriak, bi metrotakoak-edo. Behin batez, Parlamentu aurretik nihoala...», etab. Mikelek oso argi zeukan, noski: eskolako asanblada egin behar genuen tipo nazkagarri hura euskaltegitik botatzeko. Nik zerbait esan nahi izan nuen baina, berandu egiten ari zela eta, eskolara itzuli ginen.

Ikasgela hutsik zegoen oraindik: Marianok komunean jarraitzen zuen, entzerraturik-edo, eta Mentxu, seguruasko, irakasleen

batzarrean egongo zen, urduri, besteei galdezka, zer egin ez zekie-
la. Bost axola Mikeli: «Hau gure artean konpondu behar dugu. Ez
dadila tipo hori sartu erabaki bat hartu artean». Gelako atea itxi
eta eztabaidatzen hasi ginen. Laster hiru talde zeudela ikusi zen:
Mikelekin batera Mariano euskaltegitik botatzearen aldekoak, ni
bezala horrelako neurri erradikalak hain argi ikusten ez genitue-
nok, eta txintik ere esaten ez zutenak. Zeresanik ez, lehenengo
jarrerakoek gehiengoa osatu eta, gainera, ozenago hitz egiten zu-
ten. Mikelek, abilki, bere protagonismoa alde batera utzi zuen eta
bera baino suminduagoak ziruditen ENAM tankerako ikasleei
utzi zien elkarrizketaren zama: «Ezin dugu horrelakorik ametitu,
hemen esaten dugun guztia erabil dezakete», «Txakur horrek
aurpegi ona jarriko digu *ikusiren* agintera errezitatzen duen bitar-
tean, baina manifestazio batean ez digu gupidarik izango». «Ho-
rregatik ez zen sekula etortzen kartelak jartzera, zerri hori». «Nork
esango zukeen, aurpegi horrekin eta torturatzailera...».

Ni ez nengoen ados. «Zertarako botako dugu kalera?», esan
nuen, «Bale, niri ere ez zait gustatzen eskolan ertzain bat izatea
baina, tira, euskara ikasteko eskubidea izango du, ezta? Beti izan-
go da euskaraz ez dakien bat baino hobea, uste dut...». Maria eta
Marta ere, Lakuako bi idazkari donostiar, nire alde agertu ziren,
apalki izan bazen ere. Talderik handiena sabaira begira zegoen,
edo leihoaren beste aldean ikusten zen parke izpirantz. «Ez zaitetz-
te baboak izan» esaten zigun urtero Kubara brigadekin joaten den
Aintzanek, «ertzainak ez dira fidatzekoak-eta. ETBko telesaille-
tako familia inozo horietako bat ematen duzue...». Estrategiaz
aldatu behar nuen bidezkoa iruditzen ez zitzaidan hura geldiarazi
nahi banuen: «Nik ez dudana ulertzen da, Mikel, nolatan zu
bezalako antimilitarista batek horrelako jarrera gogorra eta intole-
rantea izan dezakeen. Utzizu bizitzen...». «Bai ta zera ere», eran-
tzun zidan berak: «Ertzaintza gaitz militaristaren beste adierazpen

bat baino ez dugu, ondo baino hobeto dakizun bezala. HABEra joan dadila edo *Bakarkarekin* ikas dezala, benetan gustokoa badu euskara, baina ez dadila etorri hau bezalako euskaltegi herrikoi batera. Nahikoa dugu kaletik ikusten ditugun uniformeekin-eta...». Txaloak. Berriro saiatu nintzen: «Baztertzen baditugu okerrago izango da, ez duzue uste? Gizartearekin kontaktua galduko dute eta errepresio-makina soilak bihurtuko dira, goardia zibilak bezala, beren *casa-cuarate*letan itxita, edozein kalte egiteko prest. Hemen, behintzat...». Barreak nagusi ziren gelaren beste aldean. «Isildu zaitez!». «Ez daukazu puta ideiarik ere!». Nire ahaleginak ez zuen emaitza onik ekarri eta, burua makurtuz, amore ematea erabaki nuen. Donostiako nesketako batek erresistentzia pittin bat oposatzen jarraitu zuen, baina ez zuen zeregin askorik *bidaltzaileen* erretorika eta oihuen aurka.

Ordurako asanbladak, geroz eta gehiago, ohiko gai baten inguruko gure eztabaidetako bat zirudien, eta horrelako irrealitate kutsu geroz eta handiagoa hartzen nion. Han geunden jarrera baten eta bestearen aldekoak, gure iritzi izerditsuak ahalik eta euskara garbienera itzultzen saiatuz, eta ahalegin hori egin nahi ez zuten lotsatien gehiengo isila ere, aldioro errepikatutako saiakeren ondorengo benetako saioa antzezten egongo bagina bezala: Mentxu bakarrik falta zen, arbelean eztabaidan zehar ateratzen ziren ideia nagusiak –eta bazter batean zuzendu beharreko akatsak– letra txukunez idazten eta kolorezko klarionez azpimarratzen. Banekien, ordea, halakoak nola bukatzen ziren: Mikelen garai-pen dialektikoarekin. «Gainera, ez al du gezurra esan? Ez digu adierazi, bada, Ertzaintzari buruz *benetan* pentsatzen zuena. Zenbat aldiz ez ote zigun ziria sartuko!». Ordurako algara bizian geunden eskolan. «Ezetz». «Baietz». «Txakurrak kanpora». «Eta euskaltegiari diru-laguntzak kentzen badizkiote?». «Hemen ez dago demokraziarik». «Bost axola niri». «Ez dira ausartuko». «Bozka deza-

gun». «Ertzain horrek hemen jarraitzen badu beste euskaltegi batera joango naiz». «Bozka dezagun». «Ba al dugu legezkoa-sunik horrelako erabaki bat...?». «Zakurraren putza». Etab., etab.

Bozkatzea erabaki genuen, azkenean. Oraindik eztabaidatxo txiki bat jasan genuen, batzuek besoa altxatuta bozkatu nahi zutelako eta beste batzuek, ordea, sekretupeko botoa eskatzen zutelako; hortaz, lehenik eta behin bozketa-bidea erabakitzeko kontsentsu batera heldu ezinik ibili ginenez, beste bozketa bat antolatu behar izan genuen lehenago. Prozesu guztiaren amaiera aldera Mentxuk sartzeko baimena eskatu zigun, baina Mikelek, barrutik eta ozenki, lehenengo gure asanblada bukatu behar genuela esan zion, euskaltegiak, edozein kasutan, errespetatu behar zuen erabaki demokratiko eta herrikoia hartzeko denbora behar genuela. Bozketa, azkenean, papertxoekin burutu genuen: sei boto Mariano kaleratzearen alde, hiru kontra eta bost abstentzio.

Mikelek, izugarritzko garaile aurpegiarekin, atea ireki zion Mentxuri berria handikiro komunikatzeko; Mentxu ez zen gelara sartu eta ziztu bizian berriro ere idazkaritzarantz jo zuen. Hurrengo pausua Mariano komunetik atera eta herriaren erabakia jakinaraztea genuen; hartarako ez nuen uste Mikel hain ausarta izango zenik, baina zalantza izpirik gabe, bere botatarrez euskaltegiko zolua bortizki zapaltzen zuelarik, bainugelarantz abiatu zen besteok atzetik jarraitzen geniola. Komuneko ate bietatik itxita zegoen bakarraren aurrean kontzentratu ginen hamalauok, ertzain gorrotatuaren esperoan. Mikelek ez zuen hura berriz ere eskolan sartzeko intentziorik: ikasmahaitik koaderno eta guzti hartua zion; aurpegira jaurti nahiko ziola pentsatu nuen. Bost-hamar minutu itxoin genuen; nik, egia esan, hartutako erabakia gaizki iruditzen bazitzaidan ere, banuen istorioaren bukaera zein eta batik bat nolakoa izango zen jakiteko interesa, morboa akaso, ikastaroan hain gauza gutxi zirudien Mariano horren *be-*

rrozi portaera ezagutzeko. Baina alferrik. Asperturik, Mikelek komunetik atera behar genuela erabaki zuen, eta laupabost kolpe gogor eman zituen atean. «Kakalarria-edo? Nahikoa izan dugu gaurkoz, ez duzu uste?». Erantzunik ez. Azkenean norbaiti atea irekitzea otu zitzaion eta komuna hutsik zegoela konturatu ginen. Akabo! Mariano aspaldi joana zen, eskolako asanblada egiten genuen bitartean edo, agian, oraindik tabernan ginelarik. Dezepzio kutsu bat suma zitekeen bildutako ia guztien aurpegietan. Ez ginen demokratikoki hartutako erabaki horren jabe ere.

Ez genuen Marianoren notizia gehiago izan euskaltegian: barrutik Kim Bassinger-en argazkiez apainduriko eskolako koaderno arrosa bera ere ez zuen jaso, eta bertan kuxkuxeatzeko izan genuen aukera antzuak —aparteko interesik gabeko ohar soilak ziren— ez gintuen gehiegi kontsolatu. Ez zen inongo salaketarik egon, eta prentsa *faxistan* ere —Mikel egunkari guztiak arakutzen dituen horietakoa da— ez zen gertakizunari buruzko aipamenik egin. Euskaltegiak, behintzat, ez zuen diru-laguntzarik galdu, eta lehenengo egunetan irakaslea urduri xamar etorri bazitzaigun ere, lasaitzen joan zen denbora pasatu ahala. Mikel eta biok berriro adiskidetu ginen-edo, eta hurrengo afarirako ez zen eskolakideen arteko aiherrik geratzen, noizean behin Mikelen ironietarako eta guztion barrerako aitzakia bihurtu den batzuen *bigun*, kristau edo ahul fama alde batera utzita. Herriak odolik gabeko garaipen berri bat lortu zuen, eta hori pozgarria da beti.

Nik, ordea, beste behin ikusi dut Mariano, orain dela egun pare bat, ustekabean. Egia esan, ez nuen espero, lurrak irentsi izan balu bezala desagertu zelako, eta nik ez nuen arazoa gehiago astintzeko gogorik, mementuz behintzat. Arkauten bertan izan zen, entrenamendu bat zuzentzera joan nintzelarik. Patio nagusira daraman atea zeharkatzerakoan sumatu ninduen eta harriturik geratu zen ni uniformeaz ikustean; hala ere, ez zuen bere jarrera

martzialean ia aldaketarik azaleratu eta, hutsik egin gabe, arauak agindu bezala agurtu ninduen. Mementu batez geratu eta hauxe bakarrik esan zidan: «Zure kontu, ezta?». Nire irribarre laburrak, ezbairik gabe, dena kontrolpean zegoela adierazi zion, Mikel nor zen eta non bizi zen bagenekiela, eta ez zela denbora gehiegi igaroko gure bisitaldia hartu baino lehenago. Apaindurazko «la-sai» bat gehitzekotan egon nintzen, baina, zertarako? Ederki ulertu genion elkarri horrekin soilik eta zereginiek Akademiaren aurrez aurreko puntetara ginderamatzen. Egun argitsua zen, ederra. Ziur nago Marianorentzat argitsuagoa bihurtu zela, bat-batean.

3 poema

Outros terão
um lar, quem sãiba, paz, um amigo.
A inteina, negra e fria solidão
está comigo

FERNANDO PESSOA

I

Urtatsa

Ilusioen garaia joan da.
Joan dira loreak,
pagoaren hostoak eta
satsa gualdeko hamaika t'erdietan
batzen duten langileak.

Zazpi Kaleetako karriketatik ibilki
joan egin zaizkit
amodiozko jotzen nituen nahiak,
sagar gorrien modura
zail eta gordin gura nituen gorputzak,
eta zikin eta hondakinen artean
zabuka nabil
kalearte honetan galdua:
baso beltzean haizea balebil bezala
orrien harramantzak izutua,

hazkorrien erdian euria balekar bezala
beldurrez abaro bila,
ene bihotza odoletan balego bezala
nigarrez bakar eta eroa.

Zeren amak eguerdian
zuzen eta,
beti egiten duen bezala
ustekabeen, itaundu baitit
amodiorik ote neukan,
eta ezkontzeko esperantzarik,
eta gezur batez erantzun behar izan baitiot.

Bizitza laburra dela eta bizkor iragaten
erran baitit,
eguzkiaren printzak
laster direla hiltzen eta
bebingoan agortzen errekastoetako urak,
urteak joan eta
desertuak zabaldu ahala.

Eta hotzaz eta beldurrez
mozkortu naiz
zikin eta hondakinetan,
ondotxotik satsa batzen duten langileak
joan badoazala.

Ostera ere

Egunokaz ostera ere
erabaki behar izan dut
aurrera egin behar dudala,
Afrikarantz doazen hegaztien moduan
egin behar dudala ernamuin kementsuen bila,
gozo eta zapoetsua den bizitzaren iturburuetara,
ilunaren ihes
argi beroaren lurraldeetara.

Egunokaz ostera ere
begitandu zaidalako
korapilo eta urre hurrunik ez dagoela,
ondoko landaminetako loreak direla gure grazia,
zeruari aurrez begiratzeko kemena,
neure artean hots egiten duen ate hertsidekiari
jar diezaiokedan ukendua,
iluntasunaren haranetik igarotzekotan,
beldurrez itota, baina esperantzaz blai
gidatuko nauen artzain bakarra,
ibiltzeko adorea.

Eta egunokaz ostera ere
aurrera segitu dut.

Damatxo bentanakoa
egon zakidaz kontuan
amore batek huts emonaitik
beste asko dago munduan

Erraten ohi dute amodioa
neguko beroa bezalakoa dela,
edo udako hotzaren antzekoa,
labur, eder eta
lapurren modukoa,
ustekabeen hutsik uzten gaituztenak
egiten digutenean etxean
bisita.

Erraten ohi dute amodioa
kantu eder bat bezalakoa dela,
edo latsa bateko ur gardenaren antzekoa,
bizkor, xamur eta
pikopasen modukoa,
ahoa uzten digutenean azukrez eta
minez betea.

Erraten ohi dute
haizkorri latzak amodioaren antzekoak direla,
lirain eta sotilak
baina igonezinak.

Kritikabideak



Emilio Lopez Adan *Beltza*

Itxaro Borda

Juan Garzia

1995ean, Galizian egindako Galeuzca-biltzarrean irakurritako testua

Egungo emankizunean erbesteratuez arituko naiz. Ez da gauza konplexua emigrantea eta erbesteratua bereiztea. Biok sorterritik kanpora joanak dira, baina edozeinek daki arrazoinak ez direla berberak. Atzerrian egoteko moduak ere ez.

Erbesteratua ez da nahitara joan, ez dute igorri ere: zio politikoak zirela eta errepresioaren beldurrez (askotan, errepresioa sufrituta) joan da. Euskal Herrian, kanpoan idatzi duten gehienak erbesteratuak izan dira, bereziki Gerla Zibila bukatu eta ihes eginak. Gure kasuan, erbesteratu hori ia beti abertzale izan da. **Toribio Etxebarria** eibartar sozialista dugu salbuespen bat, kasik bakarra.

Atzerrian egoteko modu berezia dute erbesteratu politikoeak. Aberri urrunaren politikari lotuak izateak ematen die kutsua, eta idazteak ez die kentzen. Gure erbesteratuari ezin dakioke aplikatu “idazlearen zinezko aberria hizkuntza dela”: badu beste aberri bat, arrunta eta orokorra, historiari, geografiari, pertsonen arteko harremani dagokiena. Harrizko eta haragizko aberri horren alde aritzeagatik dago erbestean. Eta hizkuntza ez zaio aski aberriaren oinarri fisiko eta sinbolikoa baztertzeko.

Gure idazlea emigrantea bezalakoa ez bada, ez da ere etxeko hizkuntza berarekin eramana aberri fisikotik kanpora joaten den artista, askotan aberkideek nazkatuta. Erbeste hori ez da erbeste politikoa eta ez du esanahi bera. Joyce Italian eta Parisen ez da

gure idazle-eredua. Alta, gutxi izanik ere horrelakoak izan ditugu euskaldunen artean, eta kanpoan elkarrekin bizitzeak lotu ditu jatorri desberdineko idazleak. Politikoak ez ziren erbesteratu izpiritual horiek ere aipatuko ditut gero. Haiekin batera euskal literaturarentzat garrantzizkoak izan diren beste idazle batzuk, batere erbesteratuak, baina, kanpoan egonik, muntazko lanak ekoizteko diktadurak ezarritako mugen haraindian joan direnak.

Erbestean burutu zen lehen lana Bibliaren itzulpena izan zen. 1942an **Aita Raimundo Olabide** arabarra Okzitaniako Tolosan hil zen, bere *Itun Zar eta Berria* bukatuta. Lan eskerga, irakurtezi-nezko hizkuntzaz idatzia, **Olabidek** gaztelaniaren eragina menderatzeko errekurtsio guztiak erabili baitzituen, berdin hitz berriak, berdin edozein euskalkitako termino fosilizatuak, berdin aditz trinkoaren forma logikoak baina inoiz ez erabiliak. Erbesteratua hil zen, eta beraren lana ere gure alor literariotik kanpoan gelditu da, gizandi batek eraikitako jauregi bitxia eta inorgabetua bezala.

Gerlaren ondorioz kanpora joaniko nazionalisten multzoan, berriz, badira pertsona errealista eta zolituak. Beren lehen lanetarikoa bat argitaletxe baten sortzea izan zen, azpiegitararik gabe ez baitzegoen idazterik. Nazionalistek idazkiari garrantzi handia ematen zioten ideia mantentzeko eta hedatzeko, itzuliko ziren egunaren zain.

Isaka López Mendizabal eta **Andres María de Irujok** sortu zuten 1942an Ekin editoriala Buenos Aires-en. Frankismoaren bukaera arte liburu anitz argitaratuko zituzten, gehienak erdaraz eta edukin politikoarekin. Euzko Alderdi Jeltzalearen zerbitzari fidela zen eta alderdi horrek izan dituen ohizko jarreraren arabera ibili zen: euskarak leku sinboliko eta sentimental ederra izanki, funtsezko ekoizpena gaztelaniaz egin zuten.

Baina nola ez aipa Argentinan egindako lehen inprimakia? **Isaka Lopez Mendizabalen** *Xabiartxo* izan zen. 1943an. Liburuxka hori haurrentzat egina da, haien lehen irakur-liburu gisa. Gure etxean ere aitak irakurtzen zigun. Uste dut familia nazionalista askotan haurtzaroaren oroitzapen handia dela. Azalean Xabiartxo, mutil koskor kirrua, txapela eta espartinak jantzita, ahoa zabalik dago liburuari so, eta eskuetan duen liburuaren azalean beste Xabiartxo bat dauka, ahoa zabalik bere liburu ttipiagoari begira...Hau idazten dudalarik gure aitak ilobari eskainitakoa daukat mahainaren gainean. Gerla baino lehen idatzi zuen **Lopez Mendizabalek** eta frankismoaren beldurraren pean etxeko egongelako tiradera baten, zapien artean, ezkatutua zena ez dakit Ameriketatik edo nondik heldua zen, baina, dudarik gabe, Euskal Herrian ginen haurrak eta Argentinako erbesteratuak lotzen gintuen, hari mehea, soka luzea.

Gerlak utzitako inpresioa agertarazi behar zuen erbesteko literaturak. Ez dakit zergatik baina gutxitan egin du. Herrimina, berriz, usu ukan du idazgai. Euskarazko lehen tituluetariko bat hortaz beteriko poema-bilduma da: 1946an **Jokin Zaitegik** atera zuen *Goldaketan*, hain zuzen. Liburu liriko bukolikoa dugu, utzitako aberriaz mintzo.

Ameriketan argitaratutako lehen narrazioek emigrazioa ikutzen dute bereziki. **J. A. Irazustaren** liburuak dira *Joanixio* (1946) eta *Bizia garratza da* (1950). Batetik bestera, emigrazioaren irudi positibotik erbesteratzearen ondorio gordinetara pasatzen da, eta kanporatze berria, lehenagoko emigraziotik desberdindua, gerlaren ondorioa da.

Gerla bera bi idazle nazionalistek daukate gai. 1948an **Jose Eizagirrek** *Ekaitzpean* argitaratu zuen Buenos Aires-en. Moldiztegian paper horiska, kanela usain berezi duena, erabili zuten. Honela dio sarrerak: «azkenengo gure gudate izugarriaren zipriz-

tin beltzak mendi-mendian izkutatuta dagon baserri bateraño nola iritxi diran gaitzat artuta *Ekaitzpean* deitzen deten ipuinberri au asmatu eta argitaratzen det»: Kanela usainaz lagundua orriotako ilustrazioak begiratzen ari naiz: hasieran etxeko supazter goxoa, gero heriotzaren sarrera, karlistak beren txispa eskuetan atejoka, eta bukatzeko mendi arteko baserri idilikoa ekaitz bortitzak inarrosia. Azken orrialdean Ekin editorialaren liburuen zerrrenda: «en idioma vasco», bi, eta gero besteak, kasik berrogeita hamar, erdaraz. Euskarari bere garaiko lekua diote ematen, bukolismo orbangabeari lotuta; kanpotik etorritako erasoari aurpegia, gaztelaniaz. Ez da gauza berria gure artean.

Bigarren idazlea, **Telesforo Monzon**. Ene iduriko, beste pisu batekoa. 1945ean *Urrundik*. Bake-oroi atera zuen Mexikon: olerkiak, Euskal Herriko penaz eta oroitzapenez egina, herrimina eta nostalgia nagusi. 1947an *Gudarien egiñak*. Gerra gogoratzeko poemak Biarritzen, erbesteko lehen liburua iparraldean, gudarien goraipamena. *Urrundik* Bergaran, **Monzonen** herrian, ikusi nuen 1967an; militantzia antifrankista eta klandestinitatearen denborak ziren niretzat, ETAn. Liburua erakutsi zidaten aterbe ematen zigun etxe batean: ongi forratua zen, ez baitzituen alferrik trebeskatu hogeitaz urte txibato, kapeloker eta karlisten mehatxuen pean. Arratsalde euritsuan, galerian, irakurtzen egon nintzen, **Monzonen** herriminaren sorburuan bertan, Gipuzkoako industri-herri isil hartan. Poeta ederra gizona.

Esperientzia honetan erbesteko literaturak bere bi aurpegiak erakusten zizkidan: idazten duenarentzat herriarekin lotura bada, herrian zanpatua dagoen irakurlearentzat da ukatua izan baino lehengoko gomuta, orain dabilen erresistentziaren zantzoa eta biharko askatasunaren promesa. Errol astuna edozein libururentzat, nahiz eta forratua izan.

Monzonen liburua Euskal Herriko iparraldean, edo hobe esan-

da Frantziak gobernatzen duen Euskal Herrian, erbesteko lehena dela esan dut. Iparraldean egoteari «erbeste» deitu diot eta honek beste problematika bat dakar.

Har dezagun *Nós*, Castelaoren albuma. *Na veira do Miño* du izena estanpak. Haurrak galdetzen dio aititari: «E os banda d'alá, ¿son máis estranxeiros que os de Madrî?». Eta Castelaok jarraitzen du: «Non se soupo o que lle responden o vello».

Ez naiz harritzen zaharren erantzuna argitu gabe uzten bagaitu. Zer erantzungo luke? Ezetz, Miñoz edo Bidasoaz bestaldean hemen bezala dela? Nork sinetsi? Kanpoan bizi behar izan ez duen nazionalistak aski du definizio trinko eta argi batekin: aberri bakarra, kito. Baina... guretzat, Ipar Euskal Herria erbestea izan da. Alta, Euskal Herrian ginen.

Sendimendu bikoitz hori zaharra da. Hendaiaiko herriak eramanen gaitu mendez mende. Han, uraz bestaldean, hurbil eta zabal ikusten dira Gipuzkoako lurra Haizkibel mendiaren bizkar luzeak menderatuta; moilatik itsasoa, muga eta denbora berean pasabide guztien sinboloa, harresiz inguratutako Hondarribiatik bereizten gaituena. Hemeretzigarren mendean, **Jose Maria Iparragirre** kantaria, Ameriketara ibilia, zahar eta akitua, Euskal Herria itzuli zen 1877an; euskal foruak suntsitu berriak ziren, autonomismoa bizi-bizia eta euskaltzaletasun berri eta beroak bidaia ordaindu zion. Bordelen lurreratua Hendaiaara heldu, eta txunditurik gelditu da: «Hendaian nago txoraturikan, zabal-zabalik begiak, hara Espainia, lur hoberikan, ez da mundua guztian». Espainia. Baina, politika ez balitz, hain desberdinak dira Lapurdi eta Gipuzkoa?

Gure mendearen hasieran **Unamuno** ere egon zen Hondarribiari so. Erbestean, nostalgiaz beteriko euskalduna, nahiz eta

abertzalea ez izan. Baina paisaia desberdina da abertzale den ala ez den euskaldunarentzat?

Bekatua denena da. Nihaur, erbestean idatzi dutenen konpainian onartzen banauzue, 1978an oraindik (*Euskadi 1984*) bi orrialde eskaini nizkion Hendaian haize hegoaren epelak jota, udazkenean, erbesteko sendimendu nahasiak gogoratzen zituen protagonistari.

Nola ahaztu, erregistro berean, gero askotan aipatuko dudan idazle garrantzitsuenetariko batek, **Txillardegik**, Hegoaldera itzuli zenean egin zuen artikulua?: Iparraldeko erbestean **Larresoro** goitizenaz sinatu zuen lan asko; Donostiara itzulia, honela zioen, «bego Larresoro Lapurdiko bere muinoan...». Etapa bat bukatu zen, klarki erbesteko etapa.

Beraz, erbestea zen Iparraldea, nahiz eta hizkuntza bera, edo kasik bera, izan. Erbestea hizkuntzaren gainetik, erbestea ere hizkuntzaren ondoan. Lehen esan dut nola erbestera politikoak harekin daraman karga handiko ondarea, politikaz oratua; eta politika, atzo eta gaur, estatuaren aurka, estatuari begira, egiten da. Estatua aldatuta, erbestea.

Oraingo Euskal Herrian ongi dakigu nola kulturaren inguruko ekintzetan erraz batzen garen Bidasoaz bi aldetakoak, alderdi politikoetan mugaren haustura bizi-bizia den bitartean.

Horregatik itzuli behar gara Biarritzera eta gero Donibane Lohizunera heldu zen **Telesforo Monzonengana**. Hark hautsi zuen erbeste politikoaren kuskua eta, beste batzuk bezala, buru-belarri sartu zen Iparraldeko bizi kulturean eta literaturan. Erbestean izanki ere, bere herrian zela erakutsi zigun.

1960tik aurrera idatzitako teatroa Iparraldean kokatzen da,

hasi *Hazparneko anderea* (1960) eta buka *Eneko Bizkai eta Maria Lorka*, 1966an. Azken hau berri-berri estreinatua zen 1968an, hango jendartean bizitzea lehen aldiz gertatu zitzaidanean.

Monzon ez zen bakarra izan. Hegoaldeko erbesterratu batzuek parte handia izan dute Ipar Euskal Herrian bertsoalaritza berpizteko; gogora ditzadan **Teodoro Hernandorena** berrikitan zendua eta **Manu Sota**, bilbotar aristokrata, mendizalea, poeta.

Iparraldean ere lan egin zuen **Jose Migel Barandiaran** antropologoak. Han aurkitu zuen herri kultura bera, eta lekuan lekuko inkestetan jarraitu zuen, Saran eta Arberuan bereziki. Zekarren tradizio kultuari jarraipena eman zion aldizkari zientifikoak sortzen: 1946an, *Ikuska*, Saran; 1947an Gernika bazkunaren *Eusko Jakintza* aldizkaria Baionan, euskaraz, espainolez, frantsesez eta noizbehinka alemanez edo ingelesez ere artikulu zientifikoak ager-tarazten zituen.

Honela agertzen zaigu erbesteko literaturaren beste funtzio bat, diktaduraren pean ezinezkoa ziren alorrei segida ematekoa. Kontutan hartu behar da frankismoak euskararen erabilpena hilerrietatik ere erauzi nahi zuela. Urte askotan zehar euskal aldizkari zientifiko bakarrak, nahiz eta antropologia eta etnologiari parte handiena eman, erbestean argitaratu ziren. Hegoaldean, *Euskera*, Euskaltzaindiaren buletina, 1956an berriz hasi zen agertzen, eta *Jakin* (hasiera *Yakin*) urte berekoa da. Hogei urte gerla galdu eta gero.

Literatur aldizkarietan ere gauza bera gertatu zen. Donostiako *Egan* izan da frankismoaren pean aintzindaria: 1948an hasia, 1954tik aurrera hasi zen guztiz euskaraz. Baina zentsurak jotzen zuen. Horregatik, erbesteko literatur aldizkariak izan zuten pre-miazko garrantzia. Eta parte handi baten idazle batzuen izpiritu

irekiari buruz. Jelkideak eta apaizak ziren, baina euskaraz idazten zuten guztiei zabaldu zizkieten ateak. Egia esateak ez du dolurik egiten eta zilegi bekit, ateo eta anarkista izanik, eskerrak ematea urte haietako abade horiei.

Izenak eman behar ditut: **Andima Ibiñagabeitia** eta **Jokin Zaitegi**, eta *Euzko-Gogoa* aldizkaria, 1950ean Guatemalan sortua. Haren orrietan gerla aurreko idazleak aurkitzen badira, **Ibiñagabeitia** eta **Orixe** bezala, idazle berriei irekia zen, eta gutartean leku berezi duten anitz han trebatu ziren. Aipa ditzadan **Salbatore Mitxelena**, **Juan San Martin**, **Gabriel Aresti**, **Txomin Peillen**, **Jon Mirande**, **Jon Etxaide**, **Txillardegia**... Aldizkari honen eragina barneko lehen liburuetan ere ikusten zen, nahiz eta informatu gabeko irakurleentzat era kriptikoan izan. Har dezagun **Jon Etxaideren** *Purra! Purra!* ipuin sorta, Zarautzen 1953an Unzurruntzagak publikatua, 16 pezetatan. Eranskin gisa dakarkigu *Alostorrea* eleberritxoaz *Euzko-Gogoa* deritzaion aldizkariak egin irizpidea; editoreak ez digu esaten non argitaratzen den aldizkari hori, are gutxiago nor den artikulua izenpetzen duen I'tar A. Zentsurari muzin egiteko moduan hor ziren Ameriketakoak, barnealdean egiten ari zen berriaren berme. *Euzko-Gogoa* 1956an Biarritzera aldatu zen eta 1959an desagertu. Gerla ondoko ereintza, hala eta guztiz ere, egina zen.

Erbestean berrogei eta hamar inguru aldizkari-edo agertu ziren. Batzuek alderdiaren organoak edo buletinak, oso konfidentzialak asko, gutxi banatuak gehienak. Interes literarioaren alde tik, denak ez dira aipagai. Euskarari emandako lekuaz, gogora ditzadan *Irrintzi* Caracasen, *Gernika* Buenos Airesen eta bereziki *Euzko-Deya*, PNVren aldizkaria, Parisen. Honetan, ohi bezala, euskaraz gutxi, batez ere garrantzi politikoa zuten gaiak ikutzeko; alta, bazeukan *Euskal Orriya* gehigarria, **Andoni Urrestarazuk** animatuta. Han idazten zuen **Ibiñagabeitia** euskararen burkide sutsuak; Parisen argitaratu zen 1953an bere *Euskera irudi bidez*.

Noizbait ere **Mirandek**. Niretzat *Euzko-Deya* da oroitzapenen beste euskarri esankor bat. **Andoni Urrestarazu**, **Umandi**, arabarra zen; gerla osteko denbora ilunetan berak hasi zituen euskarazko ikastaroak gure Gasteiz lotian, militarrez betetako hiri probintziano eta kontserbadore hartan. Gogoratzen naiz, oso umea izanki ere, gure etxean entzundako ahopezko elkarrizketaz: nola ikurrinak ageriak izan ziren Fray Frantziskoren ibilbidean, nola lagun bat torturatu zuten, nola Andoni entseiatu zen muga pasatzen Aldudetan eta ezin...Gero, bere euskarazko gramatika, 1955ean argitaratuko *Gramática Vasca*, guztiz aranista eta garbizalea, izan zen gure lehen euskarazko metodoa. Hamalau urterekin, Gasteizko Institutuak euskarazko gaueskolarako uzten zigun areto hotz eta bakartian, kanpoan izenak apuntatzen zituen Apodaka salatariaren beldurrez, ari ginen dotzena bat lagun liburu mardularen ondoan, «ni naiz, zu zara, bera da...». **Urrestarazu** ezagutu nuen gero Parisen 1960an, ni nerabe eta bera 1953tik erbesteratua, eta berriz aurkitu Baionan 1968an niri ere erbesteratzea gertatu zitzaidanean. Desberdintasun politiko eta literario handien gainetik, euskara oroz gainetik maitatzen zuen gizon prestuaren oroitzapen ona utzi dit.

Hain zuzen, Parisen bizpahiru euskaltzaleren inguruan sortutako giroak eragin handia izan zuen gure bizi literarioan. Adibide bat hartuko dut: **Jon Mirande**. Idazle zuberotarra ez da izan erbesteratu politikoa; bera da hasieran aipatu dudana erbesteratu izpiritual nabariena. Euskal populu arrunta eta euskal politikoa eta idazleak oso urrunak ikusten zituen. Ideiaz nazia zen, hierarkietan sinetsita, demokrazia eta erlijio berdintzaileen etsai. Parisen bizi zen barne-amorruan, depresioaz eta alkoholaz andeatua. Baina hizkuntzarekin zeukan harremana aberatsa zen, eta gure

literatura modernoan bidarri diren lanak utzi zizkigun. Gure egungo gaiari dagokionez, Parisen trebatu zen euskara literarioan, erbesteratuen ondoan.

Andima Ibiñagabeitia izan zen haren eta **Txomin Peillenen** euskara irakaslea Parisen 1949tik 1953ra, Guatemalara joan arte. **Alfonso Irigoienek** eman zigun Paris horren berri 1989an Baionan, **Txomin Peillen** euskaltzain berriari egin zion erantzunez: hogeita hiru urte zituen bizkaitarrak, hogeita zazpi **Mirandek**, hogeitaz **Peillenek**. **Irigoienek** era bizi-bizian kontatu zigun hango giroa: Euskal Ordezkaritza, Jose Antonio Agirre lehendakaria, **Ibiñagabeitia** eta **Umandi** euskaltzaleak, **Federiko Krutwig** kanporatu berria, eta Amerika, Europa eta mugaz honaindiko Euskal Herria lotzen zituen gutuneria. Sare horri esker erbesteko aldi-zkarietan atera zituen lehen artikulua **Mirandek**. Gero, beste erbesteratutako batekin, **Federiko Krutwigekin** izan zituen harremanak. **Krutwig** Bilbotik zetorren; Euskaltzaindian sartzeko egin zuen hitzaldia zela-eta, kanpora joan zen. Bere eredu linguistikoa lapurtar klasikoa zen eta da, hamazazpigarren mendeko euskara eklesiastiko bat, hitz eta kalko grekolatinoz beteak: hots, eliterako euskara hiperkultua. Elitetan sinesteak eta demokrata-kristauen gorrotoak nonbait bildu zituen. **Krutwigen** eragin linguistikoa nabaria da **Miranderengan** 1959 eta 1962 artean. **Miranderen** ideia nazi-elitistak ez dira inoiz aplikatuak izan euskal politikan, baina 1962an Buenos Aires-en **Krutwigek** argiratu zuen *Vasconia, Estudio dialéctico de una Nacionalidad*, erdaraz idatzitako politika liburuan, **Miranderen** aztarnak nabariak dira. *Vasconiak* gure belaunaldiko militanteen artean oso eragin handia ukan zuen. **Krutwigek**, ETArekin ondoan ibili zenean, ezker muturreko mintzamoldeak bereganatu zituen; diskurtso horien azpian **Miranderi** zor diona ez da inoiz ikertua izan, eta nire iduriko aski handia da.

Politika aipatu dugu eta alor horretan ere beste zirkulu bat ixten da, barnealdea eta kanpoaldea biltzen dituena. Zeren eta politikaz idazteko edota frankismoaren nazional-katolizismotik kanpoan urratsak emateko Espainiako mugetatik haraindian idatzi behar baitzen. Espainolez idatziz ere gauza bera gertatzen zen; euskaraz are gehiago, pentsamenduaren gainean zegoen lauzak hizkuntza ere zanpatzen zuelako.

Pentsamendu librerako genero aparta da entsegua, eta entsegua ere ikutu zuen erbesteak. Hiru izen gogoratuko ditut.

Lehena **Jokin Zaitegi**, klasikoei emana; Mexikon 1946an ageri zen bere *Sopokel'en antzerkiak* eta Guatemalan beranduago *Platon'en atarian*. Azken liburu hori ere heldu zen gure Gasteizko etxera, ez dakit zein bidetik: filosofiaz ere euskaraz idatz daitekeela frogatzen zigun, nahiz eta gure garaiko heinerako ulertezina izan. Baina gauza garrantzitsua zen gaitasun horren froga bizia eskue-tan ukaitea. Ameriketatik etorritako altxorra ez zen txikia.

Bigarrena, **Salbatore Mitxelena**: **Iñurritza** sinaduraz argitaratu zioten 1958an Baionan *Unamuno taabendats*. **Salbatore Mitxelena**k olerki garaikidean oso garrantzitsua izan den *Arantzazu, euskal sinismenaren poema* argitaratu zuen 1949an; olerki erlijioso horren zamaz ez zen ohartu zentsura. **Unamunoren** gainean Baionan argitaratu zuen. **Unamunoren** itxura berezia zen: frankismoak ez zuen maite, euskal nazionalismoak ere ez. Zintzotasunaz eta sakontasunaz egindako entseguak tabuen eta aurreiritzien haraindian joan behar dela erakusten zuen.

Azkena, gure garaikide hutsa den **Jose Luis Alvarez Enparantza**, **Txillardeg**i. Beraren lanen artean, bi titulu gogoratu behar ditugu: *Huntaz eta hartaz*, 1965ean, eta *Hizkuntza eta Pentsaker*a, hurrengo hamarkadan. Lehenarekin arrunt modernitatean gaude, gaiaz eta tankeraz. Bigarrena, **Larresorok** sinatua, marxismoaren esan batzuk estrukturalismoaren argitan aztertze

da, egileak dioen bezala. Erantzun gordinak jazo zituen, batez ere Euskadiko komunisten aldetik. Garrantzi handia izan zuen eztabaida horrek gure artean. **Txillardegiren** figura beti izan da gatatzakatsua. Haren antimarxismo militantea topikoa da gure artean eta, ene iduriko, askotan lausotzen du. Ez zuen ongi ulertu 1960tik aurrera ideia marxistek Hegoaldean zituzten esangura eta lekua. Espainolismoari zion gorrotoak haien edukin sozial eta kulturalak ezkutatu zizkion. Hor dugu lekuko **Rikardo Arregiri** egin zion kritika. Baina erbestek ematen zituen ahalak inork baino hobeki erabili zituen: idazteko askatasuna eta ideia garaikideetan murgiltzeko ahalbidea. Idazteko askatasuna ez zegokion gero etxera itzuli behar zen ikerleari. Kanpoan burutu zituzten beraien lanak marxismoa eta bereziki marxismoa eta arazo nazionalak ikertu zituzten beste idazle euskaldunek, hala nola **Joxe Azurmendi** eta **Gotzon Garatek**. Baina ikertzea eta argitaratzea ez zen gauza bera. Erbesteratua izan gabe, **Azurmendik** usu kolaboratu zuen *Branka* aldizkarian; *Branka Txillardegik* eta **Krutwigek** sortu zuten Belgikan; 1971 arte, 14 zenbaki argitaratu zituen. Aldizkari guztiz politikoa zen, ETArek banaketan erdian sortuta, **Txillardegiren** marka bizia zeraman. Sozialinperialismoa borrokatzeko egina, marxismoaren obsesioan; marxismoa salatua zen apaiztegiaren ibilitakoen fede dogmatiko berria zelakoan. Artikulu asko euskaraz zen, eta **Azurmendiren** sinadura maiz aurki zitekeen. Erbestek emandako ahalbidez baliatu zen 1971n Baionan *Hizkuntza, etnia eta marxismoa* argitaratzeko.

Gotzon Garatek Alemanian landu zuen *Marxen marxismoa*, baina dagoeneko 1971an gauzak aski aldatuak ziren karga politiko esplizitua ez zeukan liburua barnealdean agertarazteko. Entsegu politikoaren artean, erbesteko azkeneko bat da **Jokin Apalategi** eta **Paulo Iztuetaren** *Marxismoa eta Nazional arazoa Euskal Herrian* (Baiona, 1974): azken finean ETAk izandako eboluzioaren analisi militantea zen eta trantsizioa ez zen oraindik aski

aurreratua horrelakoak ere publikatzen uzteko. Euskal nazionalismoaren historiaz nik idatzitako liburuak bere lehen edizioa ukan zuen Hendaian 1974an; 1975ean Ministerio de Información y Turismok aholku eman zion Donostiko editoreari, Luis Jimenez de Aberasturiri, liburuaren ez argitaratzeko. Gero, 1976an Donostian ageri zen, prozesu baten mehatxu pean baina ondoriorik gabe. Esperientzia hori guztiona da. Egia esan, denbora berrietan sartu gara, eta ezin publikatutako literatura politikoa klandestinitatearekin lotuko da.

Gerla ostean klandestinitatea eta erbestea elkarrekin ibiltzen ziren. Mendiko eta txoko ilunetako hitzordu ezkutuetan biltzen genituen beste aldetik etorritako paketeak, beren titulu debekatuekin. Eta argialetxeen helbideak urruneko lekuetara eramaten gintuzten: Editorial Vasca Ekin, Perú 175, Buenos Aires; Goiztiri, 14 rue des Cordeliers, Bayonne; Ediciones Gudari, auskalo non... Ekinek bazeukan sorta bat, *Aberri Ta Askatasuna* deitua; EGIkoek igortzen zizkiguten *Eusko Ami* eta *Zure anaia ixilkari* liburuxka militanteak, poltsikoan eramateko egokiak, beldurra-
ren eramaileak baina betiko paper horia eta kanela usainarekin.

ETA ez zen *Aberri Ta Askatasuna* deitu, «ata» hitza sortzaile batzuen belarri bizkaitarrentzat «ahatea» bezain erridikulua zelako. *Euskadi Ta Askatasuna* deitu eta hamar urteren ondotik etorri zitzaizkigun testu marxisten lehen itzulpenak: F. Krutwigenak, *Liberalkeriarri aitzia*, eta *Praktikaz*, 1968koak, Espainiako maoistek argitaratuak, bere euskaraz idatzita; Julen Madariagaren *Ekai-arauketa dialektikorrari buruz* ETAk 1971an argitaratua, eskuliburu sobietar baten itzulpena, edukina eta hizkuntza berdin astunak. Eta gero beste batzuek orain praktikatzen dugun euskara batuaren lerroan, nahiz eta usu lehen urratsen trakeskeriek markatuta: *Estadua ta iraultza* 1973an, *Alderdi komunistaren manifestua*, 1974an, edo Engelsen itzulpena 1975ean, *Ludwig Feuerbach eta aleman filosofia klasikoaren amaiera*.

Orain marxismoa ez dago gehiago modan. Alta, aldizkari klan-destinoen denboretan pasatutako orduak zerbait utzi digute: inork gehiagok ez du esango «gizarte mota» klase soziala esateko, eta horrelako ariketetan trebatu ginen denok. Batzuetan, gainera, ezusteko ederrak aurkitzeko: Baionan esan zidan **Bernardo Atxagak** bere lehen testuetariko bat guk Belgikan argitaratzen genuen *Gatazka* aldizkarian ageri zela. Ez nekien zein etorkizunez beteriko kolaboratzaileak genituen.

Erbestetik egindako itzulia bukatzen ari zaigu. Kondagintzari heldu behar diogu.

Federiko Krutwigek, 1979an argitaratu zuen *Belatzen Baratza* Leuvenen eta Bruselan bilbatu zuen, Bilbora itzuli baino lehen. Erbestean asmatutako azken narrazioa dugu, izena egokia bazaio «summa» berezi honi. Lehenago, erbestean eta kanpoan ere idatzi dira gure literatura modernoaren atarian diren eleberri garrantzitsu batzuk. Azkenerako utzi ditut, sorkuntza literarioan narrazio luzeak duen garrantziarengatik.

Idazle ezagun batzuek kondagintzari ekion zioten erbestean. Gerlaren ondorioen harian, **Martin Ugaldek** adibidez, *Iltzaileak* argitaratu zuen 1961ean eta Caracasen; adjektibo gogorra kapelokerrei zegokien, liburuaren marrazkiek garbi erakusten dutenez. Memoria historikoa daukagunontzat, buruan moldiztegian bezain argi grabatua dugu irudia.

Gerla aurreko idazle eredugarriek ere zerbait egin zuten erbestean. Beraien artean **Orixe**, **Nikolas Ormaetxea**. Iruñeko kartzelatik Iparraldeko erbestera heldu zen. Han bere munduan bizi

zen; *Urte guziko Meza-bezperak* argitaratu zituen 1950ean, Azkainen. Gero Ameriketara, Ekuadorren 1950etik 1954ra arte; garai haietako fruitua dugu *Quito'n arrebarekin*. Haren euskara gaur ere eredugarria da batzuentzat. Baina, gehienen ustez bederen, haren anbizio nagusia, euskaldunen poema nazionala idaztea, ez zen gauzatu. *Euskaldunak* dugu liburu hori. 1950ean Zarautzen argitaratu zuen Itxaropena argitaldaria, egilea oraindik kanpoan zela. Liburua hamabost urte lehenago bukatua zeukan. Kontzeptuoz beste garai batetik zetorkigun, Errepublika denboretatik, euskaldunek alderdi politiko nazionalistak genituen denbora iraganetatik; gainera, egilea erbestean zegoen. Aski arrazoi jende anitzek debozio handiz hartzeko. Alta, laster aktualitatea galdu zuen.

Aktualitate sinboliko eta kontzeptualaz ari naiz. Zibilizazio baserritarra zeukan oinarrian, zentzu kontserbadore-katolikoan ulertua. Hots, hemeretzigarren mendearen inguruan nazionalista integristek izoztu zuten moldea. Eta hain zuzen 1960tik aurrera gure artean hedatzen ari zen sentsibilitateak euskal munduaz emandako interpretazio horrekin hautsi nahi zuen. Ideiaz eta garaiak haratago joan gura zuen belaunaldi berriak; dialektika modan zen, eta aintzina eta aintzinean elkarrekin deklinatzen ziren.

Katolizismoa baino zaharragoak ziren mitoak aipatzen zituzten begizorrotx berriek. **Mirandek** neopaganismorako zeukan plegua aipatua dago. Gero, nola ahaztu, erbestean eta kanpoaldeaz mintzo, **Jorge Oteiza**, *Quosque tandem...!*-en egile ospetsu eta ospatua, Amerikan egon zela luzaz? Etorkizunari begira, gizarte hiritar eta industrial berriarentzako erantzunen bila, langileria eta modernitatearen aldera makurtzen ziren tirria berriak. **Orixek** gainditua zen.

Alta, nazionalismoaren arazoetan sendimenduak duen lekua bizi-bizia da. Sentsibilitate sozial, politiko eta kulturalen aldetik

Orixerengandik urrun egonik ere, *Euskaldunak* poeman jasotzen duen Pello Mari Otañoren olerki sarkorra askok irakurri dugu emozioz:

Zazpi aizporen gai dan oiala
ebakirikan erditik,
alde batera iru soiñeko,
utzirikan lau bestetik.
Guraiziakin bereizi arren,
bakoitza bere aldetik,
ezagutzen da jantzi dirala
zazpiak oial batekin.

Azkenean Euskal Herrira itzuli zen **Orixe**, eta hainbat lekutan bizi ondoren 1961ean iloba apaizaren etxean hil zen.

Txillardegi aipatuko dizuet segidan. Harekin sartuko gara oraingo euskal literaturan. *Elsa Scheelen* 1969an ageri zen Bilbon. Dagoeneko barnealdeko giroa bizia zen eta euskal letren protagonismoa, gauza naturala, jendea bizi den eremu naturalera etorria zen. Alta, nobela Belgikan idatzia da. Problematika, unibertsal; paisaiak eta giroak, hangoak. **Jose Luis Alvarez Enparantza** Iparraldean ikusia nuen bere taldea ETAtik joan zenean; ez dakit nola konpondu garen hautu desberdinak egiteko beti... Ezagutu, bera eta bere familia Belgikan ezagutu genituen gero; haur txikiak zaintzera andrea eta biok joan ginen behin baino gehiagotan Morichar enparantzako bere etxera. *Elsa Scheelen* irakurriz elkarrekin irri egin genuen autoa garbitzeko belgikarren lan eskerga eta intraszendeteak deskribatzen dituenean. Ematen du ohitura txikien arrotzasunak gure nortasunean finkatzen gaituela; Leuvenen entzun nion lagun bati **Azurmendiren** esaldi bat: «Suedian ginebra edaten dute garagardoarekin: han sentitu nintzen euskal-

dun». Oroimenez aipatzen ari naiz hogei urte pasata; lagunaren sendimendua atzo balitz bezala dakusat.

Txillardegiren liburua Josaphateko zingira baketsuan bururazten da. Euskal Herrikoarenean pausa gaitezen. Uste dut Caste-laok esan zuela «zorioztua jaio, bizi eta hil leku berean egiten dituen»; lehena eta azkena, behintzat, ez dizkigute ukatuko.

Beste bi eleberri gogoratu nahi ditut. Kanpoko lanak dira, ez erbestearenak. **Miranderen** *Haur besoetakoa*, 1970ean argitaratua, eta **Ramon Saizarbitoriarena**, *Egunero hasten delako*, 1969koa, Friburg-en 1968ko apirilaren 25ean datatua. Bigarrena ulertezina da Europako giroa kontutan hartu gabe; Suitzan gertatzen da eta abortua du gai. Zerbait suposatu zuen narratiba berrian. **Mirandek**, esan dudanez, harreman oso estuak izan zituen erbestearekin eta erbestean nagusi ziren ikuspegi politiko, linguistiko eta kulturalekin. Parisen aldizkari bat sortu zuen, *Igela*, 1962 eta 1964 artean argitaratua, «tabu ugarien erakuztekoztz», hain zuzen. Sexualitatea aipatuz, eliz-gizonak, kristau-demokratak, eta euskal nazionalismoa zafratuz, itxura marjinala landu zuen. Erbeste sinbolikoaren forma eta edukina ongi karesatzen zituen.

Sinboloetan sartuta, barneko erbestea ere aipa nezake. Gogora dezadan **Fermin Irigaray**, **Larreko**, idazle nafarra, dagoeneko gizon adintsua Mugimendu Nazionalak Iruñea menderatu zuenean. Gizon eskuindarra, mediku ezaguna, gorrien kontrakoa, hala ere guztiz hunkitua frankisten desmasiez eta arrunt minduta euskararen kontrako erasoaz. 1936tik 1940ra arte euskaraz idatzi zituen bere koaderno ezkutuak, gertatzen ari zenaz bere buruarekin mintzo, bakardade osoan.

Baina gaitik urrundu gara.

Euskal literaturaz eta erbesteaz hitz egin dugu. Jende anitz eta lan asko. Kasik 1937tik 1954ra arte iraganaren gomuta eta bihar-ko esperantza erbesteak bildu zituen. Zentsuraren inposaketetatik ihes egiteko barneko idazle anitzi eman zien non idatz kasik 1960ra arte. Gero, politikari lotutako eginkizunen artean, narratiban eta saiakeran ildo berriak lur arrotzean ere zulatu ziren.

Gaur egun, erbeste bakarra klandestinitatea da. Ez hemen, ez han, inon ez. Eta, alta, oraindik bizirik dirau alorrak. Gure orain-go idazle batzuek kanpo horretan idazten dute, etxean argitaratzen baditugu ere. Aipa dezadan bat, adiskide bat, **Joseba Sarrionandia**. 1983an Herrera de la Manchako kartzelatik atera zuen *Ni ez naiz hemengoa*; han ere 1985ean galizieratik itzuli zituen *Poemas naufragos*; gero, ez dakigu nondik, *Marginalia* bidali zuen 1987an. Erbeste gogorrean idazten duen laguna. Demokrazian ere horrelakorik badela gogoratuz bururatuko dut gaurko hitzaldia.

Non dago nor

Biarritzen, 1997ko Galeuzcan irakurritako txostena

Bidaiak aipatzen direlarik aireportuaren edo leiho-hegiaren itxurak datozkigu burura, bidaiatzeko bi moldeak zehaztuz: alde bate-tik, «munduan barna» kurritzea, eramangarria eskutan eta zakua bizkarrean *like a rolling stone*, eta, bestetik, «etxe-xokotik» kanpo-ra so, luma ahurrean edo zeruaren sakonari uztarturik ametsetan. Anitzek munduari ehun mila bider ingurua eman diote, loak hartzea zail zitzaien gauetan. Eta itzarrian, begiak leihotik ihes abiatu orduko, mundua norberari den bezala, ametsak ere ezin alda, zabaltzen zaio. Baina ez da bakoitza une kontenplari horietan aurkitzen bere nortasunaren parean, edo ez du bederak bere bilakuntzarako arkebiderik hor kausitzen.

Norberaren bila hasteko, lehenik, behar du bakoitzak onartu bere jendetasun bakuna, NI delakoa, hots. Eta ez da erraz, gurea bezalako gizarte batean, non axalez noski, funtsean indibidualista errea delarik, kolektiboaren gutasuna hain goretsia eta azkarra den, XVIII. mendeko *jansenismo*-tik libratzea.

Norbera putzu hondogabea da eta ilunean zulatzearen bortxaz *ikatz* baliosa argira ekar daiteke. Zenbaitek bere izatearen onak eta mugak aski laster atzematen dituzte; askok, ordea, bizi guzia higatzen dute helburu horren lortzeko, ezina beti larrimin sortzai-lea delarik.

Azkenik, aitor dezakegu NI haren txerkatzearen ondorio lehe-na, harrigarriki, GUaren onarpena dela, preseski gatibatzen, setiatzen eta lehertzen gaituen GU hura.

Eginbide hori elkarrekin jorratuko dugu; aitzinetik hartatik barkamen eskatu nahi nizueke, erreferentzia gutirekin aritu naizelako, txosten hau ximple, ximpleegi eta xoil, xoilegi idurituko zaizuelakoan. Leiho-hegi eta aireportuetarik urrunegi ihardun dugu aurten, eta gauak bidaiaz baino, biharamunaren antsiatz kordokaturik pasatu ditugu.

Hara.

Ez da nehoiz aise izan norberarentzat, jende bakar eta bakuna dela onartzea, horren onartzea bere on-gaitzekin. Gainera bizi garen gizarteak alde horretarik ontsa gerizatzen gaitu, eta uste dut kultura zapalduak are gehiago aixolbetzen gaituztela, eta jakina, munduan zehar herrialde eta kultura menperatu, ukatu, mutilatu eta ihardukitzera behartu franko dago. Aspalditik jasaten dituzte gure kulturek, gure hizkuntzek, estatu handiengandikako erasoak, eta mendeetako xendretan *salbabideak* bilatu dira: politikan gaitz, orduan erlijioan. Halatan, erran dezakegu adibidez, eliza bere erreforma eta kontra-erreforma sail guztiekin, salbabide gertatu dela kultura gutitu eta gaitzetsientzat. Erran genezake ere, urrunago joanez, Euskal Herrian, hain sarkor izan diren jansenismoaren erakaspenak aterbe indartsuago baten lehiaren ikur zirela edo direla.

Eta, XXI. mendearen bezpera honetan, edozein alorretan, izan politikan –asumitu beharra duguna...–, izan kulturari, izan kirolean, neke zaigu jansenismo ohiaren austeritateetik eta gutasunetik ilkitzea. Alabaina, erlijioaren oinarrian lotura dago, lotzea; eta lotuak izateko jendeek kate-mailak bezala behar dute, denak berdinak, denak helburu berari tiraka. Helburu finkoa argi delarik, NI bakunak oro ezabatzen dira, GU instrumental, tresna, arnes,

lanabes bilakatzearren. Helburu nagusietarik bat, dakikezuenez, hil ondoko *betiereko zoriona* da.

Giro horretan, norbera izaten saiatzea *bekatu* da. Ez dea atso-titz zahar bat, maiz entzuten dena karia horretara (*astoak bere burua lauda*), ederki erakusten duena, saldotik kanpoko norberaren bilakuntza debaldezkoa dela. Bere buruaz mintzo dena, idazten duena, bere burua nolazbait agertzen duena, gehienetan *gaizki ikusia* da gure jendartean, urguilu-ontzi eta aho-zabal gisa. Gure gizarteak, gainera, *eritasun psikologikoak* ukatzen ditu; halatan, ez du balio *zinkurinaka* aritzeak ere. Hizkuntzari dagokionez, euskara hagitz aberats da norberaren desbalorizatzeke eleetan. Euskaldunok kontuz gabilta horrekin.

Pentsa dezakegun bezala, norberaren eta guaren arteko harremanak ez dira oso lasaiak: NIak ahalkea sortzen du eta GU ez da nahikoa erreala, nortasunari sari egokiaren eskaintzeko. Moztura hori antsia eta frustrazio hazle izan daiteke. Dikotomia hori idazterakoan, hizkuntza bera ez da ausartzen NItasunaren, hain da ...keria, azaltzera. Alta, aterabide indibidual eta kolektiboak bilatu dira, 1987an Baldin Bada taldeak abesten zuen *Gaizki sentitzen naiz* horren ahanzteko, garai bakoitzak bere moldea urtu duelarik:

XIX. mendean Ameriketara *emigratzeak* ahalmenu dio partitzaile askori kolektibotasunetik askatzea, fisikoki eta mentalki norberaren bila abiatu ondoren; hots, norberaren errealizatzea, batez ere sozialki. Pariserako exodoak ondorio berdina eduki du: joan diren anitz ez dira itzuli, nahiz eta bihotz-xokoan atxiki duten *Euskal Herriaren amodioa*, urtean behineko Pariseko euskaldunen bazkarietan ahoak eman ahala kantatu.

1968ko maiatzeko *iraultzatxo*-tik landa, milaka gazte abiatu da bideetan Katmandura iristeko asmoz, barne-bideak guru bizardun baten sahetsean zulatzen hasteko. Garai horretan onarga-

rria da Josean Artzek idatzi zuen *Izturitzetik Tolosan barru* izeneko poema bilduma, liburuan barne eta kanpo-bidaiaren lekuko zituen olerkiak biltzen baitira. Orduan, Euskal Herria bera zen Katmandu amestua. Ordea, orokorki, giro hori kontuan hartuz, berritasuna zen Artzerena, euskal literaturari behatzen baldin bazaio agertzen baita kezka kolektiboak –fedearakilakoak barne–, nagusi izan direla idazleen lumapean XX. menderaino bederen. Oraino ere, hein batean literatura *pedagogikoa* da, guttitan baizik irakur baitezakegu idazle baten barne-bidai minberatsuen berri-rik, salbuespenak salbu.

Idazterakoan eufemismoak erabiltzen dira, metaliteratura plazaratzen da eta literatura-mailan gehiago aztertzen dira teknikak, maisutasun eta trebeziak, idazle baten bideak baino; gehiago aipatzen dira sariak, merkatuak, mintzaldiak, itzulpenak eta argitaletxeak... Deus galtzekorik ez dutenak dira maizen ausartzen norberaren bila dabilzala aitortzera, hitza helburuaren zerbitzuko ezarri-rik: Jon Miranderekin adibidez, Jakes Ahamendaburu, Aurelia Arkotxa, Tere Irastortza, Andolin Eguzkitza, Juanjo Olasagarre eta beste zenbait. Erran behar da, nitasunaren bilatze-lanak publikatzen direlarik, idazle hasi-berri gazteen obrak direla, eta konfesio ahalkegarriak bailitzan, adinean aitzina joanago eta autoreak *gaztaroko obrak* deituz kokatzen dituela bere bibliografian. Adinarekin, haize eurizua-ekin bezala, ez baita ausartzen edonor aterkirik gabe karrikara jaustera.

Norberaren bila abiatzen da norbait pairamen eta sufrimendubidea egokitzen zaiolarik. Diote behintzat, hersturetan barna jendea aldatzen dela. Ordea, norbera bere ezaugarri arruntenekin moldatzen da, gizarte, politika eta kultura mailan, hau da, BES-TEekilako harremanetan. Azken hogeikada honetan, *etxe-zulo* joera orokorra dago, *cocooning* deitzen dena ingelesez, bizitza

sozialaren eta bizitza pribatuaren arteko borrokaren ondorio gisa uler daitekeena. Adibidez, frantses estatuan 1945etik gaur eguneraino, borondatezko kideekin ibiltzen ziren 1901eko legeen arabera batasun franko bazen, baina egun *borondatezko tasuna* galitzen ari da, batasunak peko erre kara dihoaz, jendeak arrazoi ezberdinengatik etxean nahiago duelako. Funtsean, bada *etxe koikeria* horretan besteari buruz beldur eta lotsa handia. Iduri du Sartre ren erran famatua –*infernua, besteak dira* delakoa– ontsa barneraturik dugula. Eta norberaren bila abiatzea, edonon bestea, etsai, adiskide eta sustengu, gurutzatzea da.

Nahitara, borondate deliberatuz, nehor ez doa *norberaren bila*, salbu filosofoak, poetak, jakintsu zenbait eta psikoanalisi a segitzen dutenak; Beste arekilako arazoak eta beren tokia besteari buruz finkatzekoa dutenak orozbat. Ardura, bideari lotzera kolpe emozional batek, amodioak, herioak, eguneroko bizitzaren oihalaren urrakoak behartzen gaitu. Ezbeharrak, baikor edo ezkor, bizia hankaz gora aurtikitzen digu, orekak hausten eta eredu onartu erabilgarriak ezabatzen. Jendea orduan, hormarik gabeko etxea bilakatzen da; noski, etxegabeak bideetan –estakuruak estakuru– galtzen dira, helburuak itxuratuz. Norbera bilatzean, ez baitezakegu eredu barik iraun., senditzen da larritasunez eredu berrien plantatzeko premia. Norberaren bilatzea, eredu bilatzea da.

Muga-egoerak deitzen ahal ditugu bizian gertatzen diren porrot eta eredu arrunten suntsiketak, gure buruak nahasirik nabaritzen ditugunean, ohizko gerizetarik kanpo, dudaren, antsiaren eta beldur inkontrolatuaren barne-zurrunbiloetan. Egoera horretan galderak jaulkitzen zaizkigu, eta galdera bakoitzari ihardespena aurkitu behar zaio, ihardespena bera galdera-sortzaile bihurtzen delarik, goizak argituko duelakoan noizbait. Galderei erantzun arau, norbera agertzen da, aldi berean, laxo, kuraios, urguilutsu, lotsati, inkiet, kezkatu, tematsu, fededun; anitz gauza, zenbait gogotik onartzen direnak, eta zenbait ahalkez, harriturik, itzalera

bidali nahi genituzkeenak. Jendeak bere buruaren iduripen ona baitauka ohituraz.

Idazteari dagokionez, muga-egoeretan ez dakigu hitzak ihar-dukiko duenez, ala biziaren gisa mila puska odoltsutan hutsean barreiatuko den! Aldaketa garaiak –etxe, herri, lan, amorante...– pairatzen ditu idazkerak, argi baita idaztea, jendea nola, etxekoi dela egunen jarrai urrian garatzen delarik, dena keria, joko, usantxa bilakatu estilo eta baliabide mekaniko. Idaztea ekintza fisikoa da eta gorputzak zein gogoak jasaten dituen gaitzak, kolpeak, desirak eta egoera-kanbiamenduak oro isladatzen ditu, edo behintzat, aldaketaren hozka gainditurik, isladatzen saia daiteke. Gertakarien arabera, idaztea biluzten da, edo metaforaz apaintzen du erranahia, prudentziaz edo lotsaz gorde beharrez. Bide horretan dabilen idazleak norabidea finkatzen du, baina ez da osoki libre, mamia eta gaiarekilako urruntasunik ez duelako. Funtsean urruntasunik ez luke lehiatuko.

Bide dolorosa da norberaren bilatzekoa, bortxazkoa delako gehienetan. Bortxazkoa eta beti sortzailea, barne-nahasmenari erresistitzea den heinean.

Bidaiak oro odisea bat dira, izan barne-izan kanpobidaia. Aldamenean, idaztea oldartzen delarik, dagoen kaierak lekuko, noski. Du Bellay eta Ulises homerikoak kanbiaturik itzuli ziren, zenbaitek hilik uste arren, beren herrietara. Egia erran, barnebidaiak ez du bukaerarik eta horretan dabilenak ez du gutitan baizik pausatzeko leihorik atzematzen. Itxura hori kantatzen zuten garai batean Hertzainak taldekoek:

Euriaren kolpeak
Hegastegietan
Arrotzaren moldeak
Zure begietan...

Munduarekilako harreman berri, bakarti eta arrotza da barnebidai baten emaitza edo uzta, ez da derrigorrez ongi bizitzea, hori zuhurren esku dago xoilik.

Munduarekilako harreman berria diogu eta honek zehaztapena merezi du. Bitxiki, NIa bilatzean, bakardadea gurutzatzen eta onartzen denean, GUtasunak jotzen gaitu bidean: GU horma uhargia bezala altxatzen da bidean, mingarri eta aldi berean salbagarri. Bestea hor da, bakar hura ere, dudaz beterik, haize larrugarri guziei bihotza zabalik. Egoera horretan, bestea gure antzekoa dela ohartzekak, bakartasunetik elkartasunera eramaten gaitzake. Bestea ez da gehiago behialako *infernu*; unerik beltzenez, idatz ez zenezakeenean, telefono-dei batez hitza askatu dizuna izan daiteke, eskua luzatu dizuna, bere bakardadea aitortu duena, bizi eta dena ere bururaino eramaten lauhazkatuko zaituena.

Norbera izatea, itzal-argiekin, ez da preseski jendarteak eskatzen duena; alderantziz, gizarteak nahi gaitu gorderik, sentimendurik eta ardurarik gabe, bata bestearen etsai, jeloskor, eta horretan bermatzen da gure gobernatzeko. Halatan, katexima iduri du honek baina, norbera izateak besteekilako erantzunkizun erraldoia dakar: mundua bat dugu eta ororena da, zati berdintsuetan.

Idaztea, orduan, komunikatzea bilakatzen da, munduaren irakurlea bilakatzen delarik idazlea, literaturgiroko tratularien desirkundeetarik urrun. Idaztea eta irakurtzea, biak, orduan esperientzia –behin bizi garenez zergatik esperientzia dei ekintza horri?– bakunak eta batuak bihurtzen dira. Gurutzuneak.

Larritasunez eta muga-egoeretan.

Adibidez, hizkuntza ihes doakigularik.

Bururatzeko, zer erran eta zer erants? Leiho-hegiak, aireportuak, tren geltokiak denak izan daitezkeela barne-bidaiarako baliabide eta dei, bidaia-mota hori indibiduala eta intimoa baizik ez delako. Zenbaitetan norberaren bila abiatzea, munduan dugun

leku zehatzaren neurtzen hastea da, norberaren mugekin jotzea eta muga horietan haustea; barne-bidaia beti doloretsua da, baina doidoia ikasi edo jastatu libertateak, bizitza arruntean urrats ezberdinetara eraman gaitzake.

Libertatea ardura-une berezia da. Biluzia. Hutsa. Hastape-nean, ez da zuzen jakiten zer egin libertatearekin; hargatik, naturak hutsa laket ez duenez gero, betetzen da, aldi berean osogarri eta ustekabeko diren ekintza zein pentsamenduekin. Guztiak gabiltza bide horretarik, etengabe, taigabe, errabiaz eta bakarretan eritzeraino. Abandonuak eta bilakuntzak moldatzen gaituzte jende.

Ildo horretarik idaztea eskumakila leiala da. Beharren dugunean apurtzen eta eguna urratzean, bat-batean jaulkitzen dena, aitzinago joaiteko. Agian, idazkeraren ikuspegi baikorregia da honako hau; egia da, ordea, unerik ilunena argitzeko gai dela.

Hamaika pauso alferrik?

Ramon SAIZARBITORIA. 1996. *Hamaika Pauso*. Donostia: Erein

Hamaika Pausoren irakurleak arrisku handi samarra du gertalekua eta dekoratua gai eta mamiarekin berarekin nahasteko. Zehazkiago, zirkunstantziak protagonista bihurtzeko. Tentazioa larria da, noski, abiapuntuko *anekdotatzat* hartu den gertakari historiko apenas disimulatuaren morboa saihesgaitza baita, oso, edozein euskal irakurlerentzat, eta haren ingurumari guztia ere bai: protagonisten ETArekiko lotura, garai *heroikoak*...

Ez dut nik ukatuko liburuak zehazki bezain ederki erretrata-tzen duela garai hura (garai honen sorburu zuzen den garai hori): nik zuzenean nahiz zeharka ezagutu dudak neurrian, bederen, ondo ere ondo pintatua ikusi dut gure burua erretaula zabalean. Jakina, hala ez deritzonak (edo iritzi nahi ez edo ezin duenak, kasu guztiak baitira posible gurean) eskubide osoa du begien bistatik pasatu zaiona ukatzeko, alde horretatik liburuak fisikoki baitira iritzi-zabalak: itxi egin dezake liburua (edo, nahiago badu, begiak).

Argiraratu berritan, batek baino gehiagok aipatu zuen (lagu-narte informaletan, jakina, kritikak –begiak ez dakit, baina– ahoa itxirik baitirau) zalantza egitekoa zela nola hartuko zuten liburua testuinguru historiko hori bizi izan ez duten irakurleek, eta bereziki gazteenek. Ez dut datu nahikorik kontu hori zertan geratu den jakiteko, eta zaharrak ere mutu somatu ditut liburuaren aurrean (mututasun hori, bide batez esanda, aski ozena gertatzen da, bestela hain berritsu eta iritzi-jario diren batzuen kasuan...).

Nik neuk, kontrako arazoa nuen, izatekotan. Garaiaren eta kontatuaren hurbiltasun ia inpujikoaz aparte, gertalekuek ere nire ibilbide biografikoa errepikatzen baitzuten, peto-peto: Barzelona, Bidasoaldea...

Nire maiseaketa honetan ere, haatik, konturatzen ari naizenez, arrisku bertsua dago: nola-halako zirkunstantzietan luzatu, eta liburua horretara mugatzen dela pentsaraztea, gogoz beste bada ere. Horregatik, azalaren eta bistakoenaren deskribapenean luza-galdu gabe, jo dezadan mamira, horretarako literaturgintzaren alderdi formalei buruz gustura esango nituzkeenak ere bidean utzi behar baditut ere (ez baitira mami gutxikoak, bere formalean: xehetasunetarako joera morbido, ia fetitxista hori; motiboen *kon-dentsazio* ezari-ezarikoaren teknika...)

Literatura jatorrak (salba dezagun adjektibo hori erabilkeria-tik) nola edo hala existentziaren oinarritzko kontuei heldu behar dielakoa zuzentzat jorik, eta liburua literatura jatorraren sail horretan bete-betea sartzan delako nire irakurle-esperientziari jaramon eginik, galdera bat egin beharra dago kontuari analitikoki ekin orduko: zertaz dihardu eleberriak?

Neure zoroan ere, ikasia dut honezkero horren erantzuna ezin litekeela erabatekoa izan (non eta liburua bera ez den hitzez hitz kopiatzen), baina hala ere oraindik uste dut nondiknorako orokorren bat bereiz daitekeela gaien berezko eta idazleen areagoko katramilatze bihurritik. Eleberri bat nondik nora ez doan, behintzat, ados jartzeko modua egon daitekeela, alegia.

Saizarbitoriarena ez doa, esate baterako, kinka historiko jakin batek izugarritzko pisua izan dueneko belaunaldi-giro baten erre-tratuaren aitzakian, diagnosi politiko gutxi-asko disimulatu bat egitera (nahiz horretarako materialik ere atera litekeen noski, zeharka, liburutik). Are gutxiago, ez dago inolako onespen ez gaitzespen politiko-moralik. «Gure herri gaixoari kinka gaizto

hark utzi dizkion ajeak» parafrasea litekeena ere ez da eleberriaren gai zuzena, ez tonuz eta ez ikuspuntutuz...

Zer, orduan?

Ustez, superrestrukturazko eraikin ideologikoen eta biziraute gordinerako borrokaren arteko kontu bat da nagusi liburuak aurkezten digun mundutxoaren horizontean. Ez dira, beraz, aurrekoen beste muturretik, gosea, premia materialak eta kalamitate edonolakoak ere gai. Liburuaren mundutxoko pertsonaiek gainditua dute bizirautearen maila oinarrizkoen hori. Hain zuzen ere, halako premia larririk ez duenaren baitan lehen planora pasatu ohi duen behar-nahikunde bat da nagusi, ustez, pertsonaien motibazioetan: sexualitatearekin lotzen dena.

Gosetik sexualitatera jauzi zuzenegia egin dudanez, pentsa liteke animaliazko sen huts halako batez ari naizela, baina ez da hala. Bi zentzutan ez da, gainera, hala.

Alde batetik, *desiraren* esparruak bizitza osoa hartzen duela badakigu (heriotza ere barne) Freudetik (lehenagotik ere bai, baina ez hiztegi *zientifikoz*): zentzu horretan, eleberri honetako elementu guztiak (politikoak barne) aski modu esplizituan ageri dira loturik (iruzkingile profesional eta guzti: J. J. Lasa) sexualitatearen alderdi zuzenago, *genitalagoekin* (Iñaki Abaitua protagonistarena da kasurik nabarmenena, baina ez bakarra).

Beste alde batetik, giza sexualitate *genitala* bera ere ekintza sinboliko-linguistikoa ere bada aspalditik, haragiaren premia itsu bezainbeste bederen (eta eskerrak esan beharko). Ez da, beraz, harritzekoa sexu-giharren kitzikaren partaide izatea genitaleekin zerikusirik izateko itxurarik ez duena ere (biologiaren morrontzaz eta hiztuntasunaren ahalaz); bestetik –dena *totum revolutum* bilakatu izanaren abantailak–, hurbileneko porrot eta ezinak fantasia nahiz ideologiaz urrundu, estali edo konpentsatu nahi izatea ere ez da harritzeko gauza...

Adibide gisa, azter dezagun apur bat kasurik nabarmenen hori. Iñaki Abaituak bi *amodio* ditu eleberrian. Aurrena, maitale *eroso* bat ezagutzen diogu, Bartzelonako *deserr*ko orduen asperdura arintzeko aproposa: sexua eta konpromezurik eza. Euskal Herri-tik kanpoko maitale ezkondu horrek, paraleloki, aberriarekiko gogo-jarrera era berean eroso ahalbidetzen dio: hangotik (maitatzea erabakiko balu gehiegi lotuko lukeenetik) aske, eta kanpoan sustraitzeko arriskurik gabe. Horregatik edo saiatzten da hain zorrotz kontu pragmatiko hutsekin baino ez lotzen *amodio* hori: aurrena, sexu-jardun fisikoarekin (antisorgailuen deskribapen higuin garri izateraino zehatza...), eta gero, berriz –une batez sentimentalegi jarri izanaren zigorrez eta erosotasun koldarrez, *fifty-fifty*–, etar ihesleak (liburuaren estiloari traizio egiten ari natzaio Ortiz de Zarate deitura hutsez ez izendaturik) berari *eskatu* dion *mesede*-promesa betetzeko erabiliz, bien arteko etenaren tenorean justu. Gero, handik urteetara berriro topatzen direnean, beraren jokabide zeken-koldarraren lekuko bizia izatea aurpegiratzen dio-la dirudi Iñaki Abaituak Susanari.

Ordurako, Julia «maitatzea erabaki»a du, antza. Julia konpromezu bikoitza da: aberriarena, txokoarena, batetik, eta, bestetik, Julia emakumearena berarena, eta haren amatasun kunplituarena: alaba.

Erabaki ote du, ordea, deus? Ezen, bai Susanarekiko mozketak markatzen duen ekintzan eta bai Juliaren maitasunaren aldeko apustuan, Ortiz de Zarateren jokabideak erabaki du berak baino zuzenago. Izan ere, azkenean beraren mamu guztien bilduma bilakatzen den presentzia (eta –okerrago– ausentzia) horrek markatu dio maila guztietan patua: idazle gisa, *politikoki*, amodio-kontuan...

Ironiak ironia, erloju esku-aldatuak markatzen duen triangulu tiktaktuan harrapaturik, erabakitzeko geratu zaion tarte apu-

rrean erabiliko du, azkenean, bizi guztian aurreztu duen erabakimen guztia, ekintza bakar batean enplegatuz: itzal oro-hartzaile hura gainetik kendu behar du. Halako muturretaraino iritsi gabe ere uste izatekoa zena frogatuko du horrenbestez, zazpi infernu koxkorretaraino jaitsi ondoren: Ortiz de Zaratek ere beldurra sentitu du heriotza gertuaren aurrean: lasai hil daiteke, bada, bera ere, Julia amets bat izateraino urruntzen duen baina haren bizilekurantz («maitatzea erabaki zuen paisaia»rantz) isuriz doan ibai haren ezpondan.

Gero gizarteak, gaizki-ulertu oso komenigarri baten bitartez, heroi moduko bihurtzea ez zen, ustez, beraren kalkuluetan sartzen... Ala bai?: bai, noski, baina ez aberriaren loria hilezinen galerian sartzearren, baizik Juliari halako heriotzak antzaldaturiko pertsonaia hura maitagarriago izango zaiolako sasi-uste patetikoan: beltxargak kantuz hiltzen omen dira, eta Iñaki Abaituaren herio-ordua ere isuri liriko horrek markatzen du haren baitan, nahiz kanpotik ikusita pantomima baten odol-hotzeko antzezpena den.

Hala, bada, Bartzelonako etxeko pontxodun gurutik hasi, lagunarteko bilera politiko-sentimentaletatik segi, eta Ortiz de Zarate-raino, bi pertsonaia baino ez daude libre txortazentrisismoaren susmotik: narratzaile misteriotsua (idazlearen –Idazlearen?– besten ia dela jo beharko da, Iñaki Abaituarekin batera pertsonaia erdi-bitu orokorrago bat osatzen duena: bere gizagaixotasunaren berri ematen digun gizagaixoa) eta Daniel Zabalegi.

Lehenbizikoaren kasuan, emanik dago azalpena (arriskatu dudan interpretazioan, jakina: bestela, ikuspuntu narratiboaren asepsia esplikaturiko luke: narratzaileak ez du txortan eta amodioan pentsatzen... narratzen ari den unean: akaso horregatik –horretarako– da narratzaile): Iñaki Abaituaren ni-erdi idazle huts, aingerutiarrak, nahikoa lan du beste erdi bizitzan ere bizi behar duen deabru-nahastuaren berri –erdi-autokritikoa?– ematen.

Daniel Zabalegiren kasuan, berriz, gizagaixotasunaren tamainak justifikatzen edo du. Hitzari gogorregi iritziz gero (baina testua ni baino krudelagoa delakoan nago, horretan bederen), «gizagaixotasuna» aipatu dudan lekuan «xalotasuna» nahiz «haurtasuna» ipin dezakezue: are nire argudiabidearen aldekoago litzateke: amaren gonape beltzetik (eta lagunartearen alienazio nortasun-bahitzaitetik: *soziedadea*) askatu gabeko *mutil* ona («ona» «jatorra»ren pejoratiboa da gurean). Amaren gonapetik, eta aitaren hutsune eta zalantzatik, bistan denez. Zalantza okerragoa, jakina, hutsunea bera baino: nahiago luke noski Daniel Zabalegik aitarik ez izatea, izan duela susmatzen duena baino: hipotesi sinplista baina testuak gezurtatuko ez lukeen batetik abiatutik, susmo horren araberrako *jatorrizko erru* halako bat inkontzienteki zuritzea litzateke Daniel Zabalegiren jokabidearen bultzagarri: inimizio historia hain modakoetan ez bezala (justu alderantziz), aita *ez* aurkitzea, alegia (eta, hala ere –edo horregatixe– Aitaren Etxea defenditzen lehena izatea: ama baino ez den etxe edipikoan, paradoxarik gabe).

Gainerakoan, bada (soziedade-txokoetako homofilia konpentsabidezkoa gora-behera), *hori* da *asuntua*. Bestetik, J. J. Lasaren laguntzarik ere ez dugu behar Erosen aldeko lehia orokor hori Tanatosen dantzarekin lotzeko. Pontxodun filosofo hipi-freudianoari Bartzelonako bere Erribera hartan bakean utz diezaiozun, honagoko faunan zentratzeko. Ortiz de Zarateren modukoak beren errolaren laguntzaz militantziaren erdia larrua jotzen pasatzen dutelako susmo ez dakit zenbateraino zabaldura jo gabe ere, arriskuaren aldeko apustuan, Herioren beraren besoetan zuzenean jausteko grina ez bada, harekin flirteatzeko nahikundea bederen suposa liteke.

Iñaki Abaitua bera, berriz (eleberriaren protagonista pattal eta beste eleberri baten idazletzat aurkeztua), lehen paper horretan bederen (eleberrigile gisa Daniel Zabalegiren gora-beheran zen-

tratu baita, eta Tanatos darabil mamu ia bakar horretan), Erosek darabil hasieratik amaieraraino, eta liburua ixten duen irudi ahan-tzezinean ere, berak bilatutako patu-ordearen aurrean eskuartean erakusten duen lumak ez luke soilik –lehen interpretazio batean bururazten zaigunez– balak disparatzen dituen pistola irudika-tuko («etorkizunez kargaturiko arma» delakoaren ezina, alegia), baizik hankatarteko beste ahulago hori ere bai.

Berak bilatutako patua, bai: «maitatzea erabaki zuen paisaia». Heriotzak biribilduko du bizitzak ezin zuena. Heriotzak zentzua eman diezaioke bizitzarik zentzugabeenari: Iñaki Abaitua ere, Daniel Zabalegi bezala, heroi bihur daiteke (herio-heroi). Berak bere mamuen neurriko Daniel Zabalegi bat eleberritu zuen beza-la, bizien interesek eta hilen mamuek irudikatuko dute Iñaki Abaitua epiko bat.

Gezurra?: zer axola dio? Are: nola eutsi bizirik fikziorik gabe? Fikzioen arteko aukera ez da, ordea, garrantzi gabea: berak ere ez daki, akaso, baina horregatik edo bildu du kemena Ramon Saizarbitoriak, hala ere –mundua kabituko litzatekeen *hala ere* batega-tik ere–, Hamaika Pausook idazteko.

Joycek esan omen zuen behin berari zazpi urte luze kostatako obrari irakurleak gutxienez beste hainbeste urte (edo pareko aha-legina) eskaini beharko ziola zuku guztia aterako bazion. Ha-maika Pausok hamaika urte (eta zerbait gehiago, akaso) *kendu* dizkio Saizarbitoriari, eta egoki dirudi denon artean hamaika ordu eta hamaika orri bederen bihur diezazkiogun iruzkin-ordai-netan. Nik neuk, azaldu berri dudan interpretazio saiotik tira pixka bat baino ez dut egin nahi.

Ongi dakidanez oso kontu sentiberez ari naizela, esan dezadan berriro eta argiago: eleberriak ez du ilustratzen tesi politiko-moral zuzenik. Izatekotan, esan dugunez, sexualitatearen eta gaine-

rakoaren arteko lotura horrena dabil denean esplizituki nahiz inplizituki, baina hori ez du gure eleberrigileak asmatu. Izatekotan, gauza berez mundu post-freudiar honetan jakintzat jo behar genukeen horretan jartzen duen enfasia du ezaugarri: hori –eta akaso horrek esplika dezake hain harrera mutua–, eta azterbide hori zeri aplikatzen zaion kasu honetan.

Liburua irakurri ez duenak (edo ez ikusteko betaurrekoekin irakurri duenak) oker uler dezake neuk diodana ere, literaturari jator zaion sotiltasuna eguneroko gure arteko panfletokeria askorekin berdindurik. Ez: ez du sexualitate-arazo berezi batek gainera-
rako (politikoa barne) erabakitzen: nahasian doaz, elkarloturik eta elkarri eraginik: boterea, ezina, fusila eta pitilina, denak ere bi esferetako kontuak dira, eta eleberrigileak ez ditu bere lanean banandurik agertu, guk geure baitan berez ditugun baino garbiago (faltsukiago garbi) bereiz ditzagun. Izatekotan, gure gezurren gezur goxo hori («kontzientzia ona» esaten diote!) gezurtatzeko ahalegina leporatuko genioke: gure barne *ipui*nean hain garbi dagoena *eleberri*-konplexutasunez nahastea du xede ageria. Definizioen zabalerako, Pessoaen ifrentzu hau: eleberrigilea bazter-nahaslea da.

Garbi dago, hala ere, eleberrian, gauzak ez daudela batere garbi, eta nahaste hori da, hain zuzen, eleberriaren gezur-egia zehatza. Kontzientziaren eta jokabideen lausoa zehazteko ahalegin harrigarrian, bada, xehetasun osoz ematen zaizkigu *heroiak* patu ordeko bere paradero tragiko-xelebrera daramatzan estigmatik: *gaixotasun* zentzu-bikoitz batek eta *sukar* halamoduzkoak jota, eskandalu patetiko bat sortzera joango da txapeldun *hegoakebakibanizkiolarien* artera, eta A.ko ibai bazter hartan jasango du bere lehen heriotza sinbolikoa, bere herritar *jatorren* eskutik.

Bestetik, infernu *sukartsu* horretatik bueltan, halamoduzko *mozkorondo* hotz batean, azken erabakirako *kemena* bilduko du,

nahiz kemen sexualaren tresna zuzena zentzu guztietan *izorraturik* eduki... Horregatik edo, gero luma-pistola eskuan *tente* hiltzeko erreflexu-edo hori, Seamus Heaney irlandarrari irakurri berri diodan poema baten hasiera-amaieran intuitu daitekeen bezala:

Nire hatz-erpuu artean

Luma zoztorra egonean; pistola bat bezain eroso.

Hala, bada, sasi-psikologiako sinplekeria manikeoa baino areago, aipatu berri dugun arma sofistikatu horri buruz arma berberaz idaztea lepora dakioke idazleari, eta ez dut uste batere gaizki hartuko lukeenik akusazio hori, non eta *armaren puntan* ez zaion egiten.

Tira: aurreko azalbidean, *enfasi* hitza erabili dut, eta hori ere matizatu beharra dago. Izan ere, Saizarbitoriaren poetikan (balorazio etiko-politikoekiko ageri duen neutrotasun –ezen ez asepsia– *objektibistaren* ildo bertsutik) tonu enfasigabea da giltzetako bat. Ikara eta espantua ongi bereizten dituela, alegia. Horregatik, lehen «enfasia» esan dudan hartan kontu horrek (zabalez eta gune-gunean egotez) hartzen duen lekua adierazi nahi nuen, eta ez gai horri heltzen dionean idazlea espantuka hasten dela inola ere.

Areago: hoztasun ia gorabehera gabe horrek ikaragarriago bihurtzen ditu berez ikaragarri direnak. Daniel Zabalegiren heriotzaren (eta, oro har, heriotzaren inguruko) deskribapenak, kasurako. Sekula ez dut –Borgesek idazle batek sekula erabili behar ez zuela zioen adberbio enfatiko hori «oso gutxitan» zentzuan zuzen ulertuko delakoan erabiltzeagatik– heriotzaren agerpen *fisiko*agorik somatu eleberri batean. Erraza dirudi, baina kontutan har bedi, bere ikaragarritasun ukaezinean ere, kontzeptu abstraktu bat dela berez ezinbestean heriotza (gorpuak besterik dira), eta konbentzio hutsa bilakatzen dela aise literaturan («Ponpa mortis...»): Saizarbitoria hura *ezagutzetik* datorrela dirudi («ezagutu»

hitzaren zentzu guztietan, hor ere); beldurretik eta jakinguratik haraindiko paraheetatik ari zaigula, alegia.

Alde horretatik, ia literalki har liteke aurrerago bota dudan hipotesia: Iñaki Abaitua hilaren heriotz-ondoko nia dateke narratzaile –alferrik– orojakile eta –ezinbestean– erdibitua: horregatik barnera daiteke haren (bere: bizirik zegoeneko bere niaren) misterioan, hura Daniel Zabalegirenean ez bezala.

Bizientzat, berriz, inoren –eta ia ezeren– ezagutza petoa galaraizirik baitago, liburuak askotara ilustratzen duenez. Eta heriotzaren *ezinbestek* beharturiko ezagutzaren ezin larrian bizirik, grina gaizto setati baten modukoa gertatzen da kontzientzia: gauzen muina atzemateko (edo sikiera antz emateko) gauza ez, eta bere alferrikakotasunaz etsirik bertan behera geratzeko ere ez: sorgin gurpilezko biran. Hori da animalia kontzientziadunaren penitentzia gogorra, eta horixe bera, baina erabakimenak aregoturik eta barkabideak errerik, eleberrigilearen infernua. Eta horregatik begiratzen die hain tinko munduko gauzei, eta horregatik jasotzen ditu hain zehatz xehetasunik ñimiñoena, gauza guztietan baitago unibertsoa eta hutsa, malenkonia eta loria, zer berezko atomoz eginak dira. Hortik, munduarenetik fikzio formalera, *Blade Runnereko* humanoidearen azken hitzak eta Borgesen obraren puska handi bat datozeneko oihu isil bakarra: *Ni han izan nintzen: galdu egin behar ote da hori guztia nirekin batera?*: magnolia.

(Nik ere, saiaturaz gero, nire iruzkina aipu *eruditoren* bat edo bestez *zientifikotu* dezakedala frogatu alde, hona, kontu horrekin lotzeko, B. Groethuysen-ek 1933an Kafkaren inguruan esanikoa:

«Guztia *more geometriko* gertatzen da, eta den guztiak geometria infinituki konplexua du. Ikas ezazu ulertu gabe ikusten».

Ildo beretik doake, ustez, liburuaren hasieran (bere baitan liburu guztia kontzentraturik daukan lehen kapitulu mamitsuan)

aiputan dabilen «simetria joycear» delakoa, eta aurreraxeagoko beste hau:

«... patologiaren muga –... Proust...–, osasun txarreko pertsona neurotizatuengan ohi den zehaztasunerako obsesioa».

Eta horregatik –inoren oroimenean geratzeko ahalmena duen guztiaren berdintasun unibertsalari narratzaileak zor dion *begirune/begiramen* horregatik– izan nahi du Saizarbitoriaren begiak *begirale* neutro, eta horregatik –huts berdintzaileak malenkoniazko bere zorabioan xurga ez dezan– heltzen bide die xehetasunei halako fetitxista-amorru setati, objekt(ib)istaz, beste batzuek hitzei berei ere tripak ateratzeraino heltzen diegun modu (zentzu paraxualean) eutsiezin –itxuraz desberdin, baina funtsean– berdintsuz.

Izan ere, Saizarbitoriak darabilenaren beste muturreko bidea *aukera* daiteke *literaturtasunezko* enfasiaren gezurbide klitxez josiari kontra egiteko ahaleginean, enfasiaren parodia, bi bideok ere irakurlearen ulermen aktiboaren baitan geratzen dira, espantu bizi karikaturazkoak eta haren hoztasun neutrala *zuzen* deskodetuko badira: «ez dezagun –*postura* guztiak galduta ere– konpostura gal».

Besteak beste, uste oker bat bada bi bide desberdinon inguruan: parodia beti *txantxa* hutsa dela, eta objektibismoa, berriz, beti *serioa*. *Hamaika Pauson* bada –nik aurkitu dut, bederen–, mozorro tragikoaren eta estilo hotzaren gain-azpitik, umorerik –ironia tristekoa, sorra, beltza, baina umore–: enfasirik gabea, ordea, hori ere.)

«Setati» idatzi dut goraxeago, aurrena «temati» etorri bazait ere, *temaren* horrek bide emango baitit kontzientziaren jira etsiak *Hamaika Pauson* hartzen duen jitearen beste alderdi bati ekiteko. Teman tematzearen, obsesioaren kontua garbi geratuko ahal zen

honainokoa, baina «tema» hitzak nazioarteko zentzuan adierazten duenaz ere mintzatu nahi nuke apur bat, esanahiaren teoria erreferentzial baldarrez oraindik *edukia* eta *forma* zein bere aldetik doazen eta zehatz bereiz daitezkeen *bi gauza* direla sinesten dutenen gaztigagarri.

Musikan duen zentzua interesatzen zait hemen «tema» hitza (eta ez «gaia» itzuli dugun beste arrunt hori): luzean errepikatzen den zer bat, alegia, eta, hortik esanahien arteko zubia: «gaia» (zertaz *diharduen* zerbaitek), «seta» (errepikapen gaitza) eta «motibo» (musikal) nagusia» delakoa (jarraipenezko musika-zatia, agertu-desagertuz doazen beste «motibo» batzuen artean). Izan ere, musikatiko hiztegi eta iruditeria iruditzen zait aproposena liburuaren *gaiaren* adierazpideak eta idazkeraren *seta* pazientzia-tsuak antolatu duten *pieza* deskribatzeko.

Leit-motiv batzuk daude, mailarik abstraktuenean Eros eta Tanatos izen mitikoek laburbil ditzaketenak. Bere horretan, pontxodun guru-moduaren tertulian euskaldunen psikologia bereziari buruz dabiltzan topiko ez guztiz gezurtatuak –eta akaso ez batere gezurtagarriak– alde batera utzirik (bera berez kontra legokeenaren alde ateratzea beste efekturik ez baitute –ustez– Iñaki Abaituarengan: hori, eta Ortiz de Zarateren *ezaguera* egitea), J. J. Lasa protagonistaren orakulo den pasarteetan baino ez dira esplizitatzen (orokorkeriatik urrun dauden xehetasunez, haatik, hor ere: tripazaltetasunaren psikoanalisi, esaterako), baina argumendu guztian presente daude noski.

Horrez gainera (horrekin batera, esan nahi dut), liburu gehiena antolaturik dago berdin-berdin nahiz aldaera txikiren batez agertu-desagertuz doazen *motibo* batzuk oroimenaren espazio-denbora biltzailearen harian josiz. «Joste»aren irudi hori musikan ere erabiltzen da, eta ez dirudi batere irudi desegokia liburuaren (h)aribidea azaltzeko: errepikapenon bitartez hemen sarritu eta han bakanduz bilbatzen diren hitz, objektu, irudi, erlazio, egoera,

gertakari askotarikoek osatzen dute tapiza, nahiz tapizaren irudi hori estatikoegia den aukeran (non eta ez dugun Penelope baten tapiza irudikatzen). Horregatik, idazle txarrek ohi dutenez, beste metafora bat proposatu beharra daukat segidan: ibaiarena, kasurako.

Ibaian ere, fisika zehatzak agintzen bide duen baina intuizioak halabehar nahasitzat jotzen duen eran ager-desager daitezke garraiatutako materialak eta urak berak. Gorago aipatu dudan *kondentsazio* delakoak ibaitik gorago eraman gintzake noski (lainoetara, hain zuzen), baina, metaforak metafora, *hari* desberdinez (ibaia bera diran ibai-*adar* anitzez) ibai-*enbor* bat, isurbide bakar bat osatuz doan ur-ibilia ere izan daiteke eleberriaren jario-josturaren irudi egoki samarra. Mekanismoak, bide batez, irakurlea irudi-fetixismo tematu horretara bihurrrarazten du, eta hala simbolismo-edo nabarmenez ere karga daiteke objektu nahiz *zantzua*, narratzailearen bestelako inolako enfasi-seinale eta espanturik gabe: Daniel Zabalegiren zapata: heriotzaren ikurra azkenean, baina ez hori bakarrik: haurtzaro baten kronika, psikologia baten talismania, haren *horma* hutsetik gizon osoa aterako balitz bezala irudimenean (Proust-ek madalena ospetsuaren azal zimurra baino aurkitu ez balu bezala, alegia).

Beste irudi etengabe errepikatu bat Juliarena da: Hondarri-biako bere etxeko tertulietan Penelopetxo denbora-lekuz aldatu baten moduan alfonbra zuriaren litsak hatzetan jostari beti: lurrean eserita, zigarro bat hatz artetik sekula kentzeke. Ez ditut esplizitatuko irudi horrek idarokitzen dizkidan *sinbologia* guztiak, baina bat bai, bederen: ketan galtzen den presente eternal baten ikurra begitantzen zait Juliaren zigarroa, bere Ulisestxo malapartatuak iragana etorkizunera proiektatzeko odisea epiko-lirikoan bere hatz artean darabilen lumarekin kontrastean. Bien arteko azken enkontruan, zigarroa eta luma alde batera, zakil triste bati eragingo dio amodio-orde intransitibo batek: ondoko tristuran,

Ulises naufragoa autoan bakarrik geratuko da, eta Penelopek, berriz, bertan baina urrun dagoen bere lur betikora itzuliko da, oinak lurrean.

Ibaiaren metaforarekin segiturik (beste zerbaitetarako ekarri baitut hizpidera), eleberraren ur hasieran hain bihurri-banatuak pixkanaka-pixkanaka (hortxe nabari daiteke idazlearen kastorepazientzia: ibaian gora egin du hark lana ibaiari tankera emateko) bilduz doaz, eta azkenean ubide xuxenean sartzen dira: beste bat dirudi orduan nobelak, hasierako erreka-adar lotura-itxurarik ga-beak eta geroko ur-ibili nahasiak ezaguerak zentzu-erreten bakar ulergarri batera ekarri balitu bezala: gertakarien batetortze harri-garriz eta bestez, kasurako, ia trukulentziaren mugaraino *loditzen* da uneren batean *irazkin* tragiko-xelebrea: Hondarribiako etxeko txorta-jotze goardia zibilek etena, Omega esku-aldatu dontsuaren ingurukoak, Zabalegiren amaren ixtorio-mixerioa...

Irakurle batzuek *atseginago* izango dute eleberrijarioaren bigarren alderdi *nabarmenago* eta *korrituago* hori; beste batzuei, berriz (edo berei, beste irakurketa batean), *gozagarriago* egingo zaie aurreko ez-(h)ariko *nahasmendu* kitzikagarria (liburuak horixe besterik ez du agindu bere lehen paragrafotik: amaiera jakineranzko irudi-oroimenaren ibilbide bat): batak bestera darama, ordea, onerako zein txarrerako, nobelan eta bestela, eta biak (*atsegina* eta *gozamena*) aldi berekoak izatea, berriz –*Barthes dixit*–, ez bide da posible.

Amaiera-amaieran, hala ere, (Bidasoa) ibaian bertan murgildurik, ibaiak ibai dirauela ohartuko gara berriro: ibilian, zain adar-anitzak diruditen mendietako latsetatik itsaso zabal berdintzaileraino: *ehundu* ustean, tintaz *irazkin*du ustean, ur bihurtu zaio bizitza esku artean Iñaki Abaituari: paperezko ur geldigaitz hori izango du hil-oihal. (J. J. Lasak emana zion aspaldian abisua: «zoro-zoro goaz geure patuaren bila».)

Idazletzaz mintzo



Bitoriano Gandiaga

Aingeru Epaltza

Ni neu euskal idazleetako bat

Lehenengo akordua: ogi apurrak ereiten nituenekoa

-1928an Mendatan jaio nintzen. Primo de Riveraren diktadurara garaian.

-Nabarriza. Ama gaixotu zelako, osaba Eulojioren etxera. Osaba abertzale, euskaltzale nabaria zen. 1934an Ameriketara joan zen herentzia bat kobratzera edo. Nabarrizko lehenengo akordua: aulki bat hartu, bentana ondora bultzatu, haren gainean zutik, ezkutatzen zihoan eguzkiari begira jarri eta negar ta negar egiten nuela, osabaren barreak gorabehera.

-Antzerkiak bi ere egin nituen. Zine mutua osabak botatzen zuen.

-Lagunak txorizaleak. Nik neguan topatzen nituen habiak.

-Don Nikolas, parrokoa, tailagilea, antzinateko objektuen bil-tzailea. Haren etxean sarri nintzen osabarekin. Osaba ere bazen tailagile. Ordutikakoa dut ofizio eta afizio horietarako joera.

-Osaba patatak-eta ortuko lurreen jartzen ikusten nuen eta nik ogi apurrak ereiten nituen.

-Bi-hiru urterekin joango nintzen Nabarriza.

-Antzerkia bost bat urterekin edo egin nuen.

-1934ean Jaunartzea.

-Ikurrina eta Batzokia.

-Dotrina lehiaketa. Osabak irakasten zidan dotrina eta nik buruz jasotzen nuen.

-Mendigoizaleak. Geu ere osabarekin San Migelera igota gagoz.

-Eskolan euskarazko katona fuera, eta liburu handi bat: entziklopedia edo.

Ikurrindun jertsea

-Mendatarra, esan nahi da baso arteko baserrira, bost-sei urte bete orduko seguru asko, etxeko zaharrena ni. Umezain, ganaduzain, ur eta egur ekarle, errekadu egile, errotara, Nabarriza, Gernikara, Aulestiara. Eskolara urri.

-Behi batek adarkatu eta buru azpian erabili ninduen, harik eta aita etorri zen arte.

-Ikurrindun jertsea.

-Lehengusu milizianoak. Armen lilura.

-Dantzariak.

-Kantuak: Amak kantatzen zituenak. *Orra or goiko ariztitxu baten* eta beste batzuk.

-Aitaren bertso paperak. Atarteko orma zuloetan gordetzen zituen aitak.

Jertsea lejiatara.

-Gerra: euskaldunak eta faxistak.

-Gernika erretzea.

-Amak oilategira deitzen ninduen. Aita Zeharsolo lantzen ganaduekin.

-Faxistak garaile, abertzaleok galtzaile.

-Dena iruleztara, dena ordura artekoaz bestelako.

-Ez *Gora Euskadirik*, Jainkoaren amorearren, amak.

-Eskolan *Cara al sol*. Besoa gora, eskua luze.

-Fletxak eta Pelaioak. Dotore jantzita, gerrian puñala erakar-
garri. Inbidiagarriak.

Eskolara bidali, bai, egin ninduten, beti ere etxean lan gutxia-
go zegoen aldietan. Inork inoiz ez zidan ez etxean, ez eskolan
ikasten nuenaren edo ez nuenaren jarraipenik egin. Nik nire
aldetik ez nion eskolari inondiko gusturik. Ez nekien zertarako
izan zitezkeen eskolako ulertzen ez nituen liburu eta gainerakoak.
Gaurko giroan ulertezina dirudien arren, eman egiten ziren ha-
lako fenomenoak, eta gertatu egiten zen, eskolatik irteteko adine-
ra arte –hamalau urtera arte– maiz samar eskolara joan izan arren,
eskolatu gabe bukatzea eskola sasoia. Horregatik gero, soldadutza
garaia iristean batez ere, gaueskolak.

Nabarriz bezalako herri koxkorretan ze mugimendu zegoen
adierazteko ere bai. Batzokia, zinea, teatroa...

Eta baserriko bizimoduaren esperientzia sakona.

Amagaz ortuan eta
aitagaz barriz soloan,
lurraren errai beretan
hasi nintzen haurtzaroan.
Lurraren errai gordinak
landu barri, lurrunetan;
usainaz akordatzen naiz,
gozo-gaziz, geroetan.

-1939. Makiak eta buelta

-Gerra amaitu zenerako hasi zen jendea bueltaz hitz egiten.

-1940. Arantzazuko Seminarioa. Erdara.

-Mutiko erdaldunak eta irabazleen semeak, alemanen alde-
koak ziren. Gu aliatuen aldekoak.

-Makiak eta buelta. Bazetorren buelta.

-Bost urte euskararik egin gabe.

-Artean Arantzazun igandeetako sermoia euskaraz entzuten genuen.

-Eta, horratik, Humanidadeetako hirugarren urtean Aita Feliziano Idigorasek papertxo batzuk ematen zizkigun hiru-lau esalditxorekin euskaraz ipin genitzan. Nahiago genituen latinez egin. Ez dut uste notarik ematen zigutenik.

-Foruan asteen behingo eskolaldi epel bat.

-Kuestioa da, Forutik bakazioetan etxera joan nintzenean, euskara, erabili ezaren ezaz, baldartu samar nuela eta erdarakadaz josia.

Halandaze nor-nork-nori-rekin burrukan

Adibide hau lekuko: Gure ama isila bazen ere, jakingura handikoa zen, eta goizetako mezetatik etxeratzen nintzenean ea nor ikusi nuen galdetzen zidan. Eta ni berehala hasten nintzaion: Urtubiko izekoari ikusi deusat, Iberreko osabari, Larrostako lehengusinari be ikusitzat eta Elorretako Margariri be bai. Nik ez dakit amak barrerik egiten zuen, baina ni baino gazteago ziren nire anai-arrebek ukalondo zotzen zuten elkar, keinuak trukatzeko zituzten eta azkenerako barre-purrustaka hasten ziren, elkarri galdetuz ea zer ikusi ote nion hainbeste jenderi. Barreok, keinuok eta barre-purrustok ez zirudidaten bide onekoak eta egun baten, neure bizkarretik algaraka ari zirela ohartzuz, haserretu egin nintzen eta agindu ere gehiago ez nuela euskaraz hitzik egingo agindu nien. Egitekotan erdaraz egingo niela. Gurean inork ez zekien gaztelerarik berriz. Amak antzeman zion ni benetan ari nintzela, eta anai-arrebak han zehar bialdu ondoren, sukaldera eramana ninduen eta eser nendila eskatu zidan. Han nengoen ni buru-makur eta mutur-luze. Halako batean amak mahaira deitu

ninduen eta txokolate egin berri-berria eta ogi errea atera zituen. Txokolate haren usainak adiskidetuko zukeen txakur amorratua ere. Ama hasi zen hizketan: «Bittoriano, hurrengoan ez dozu esan behar izekoari ikusitzat, Don Anjeleri ikusitzat, Ertzilgo Paskuali ikusitzat eta holakorik. Ikusi dot, esan behar dozu. Don Kruz ikusi dot, Teiletzaurreko Maria ikusi dot eta hola beti».

Sukaldeko jardun hartan bertan esan zidan beste hau ere: «Ia gu zahartu gara erdara ikasteko, halan da ze, zeuk ikasi beharko dozu euskaraz».

-Foruan, hango bigarren urtean, mixiolari euskaldunen bizitza laburrak idazteari ekin nion. Itzulpen lana zen, mixio aldizkarietatik atereak. Bertsoak idazten ere han hasi nintzen. Lehenengoak Muruetako txakur, katea apurtu zuenari.

Gerra ondoko paisaia

-Gerra ondoko garaietan aldatu zen asko paisaia bera ere, baina artean, garitzak eta artotzak, zelaiak, mendietako larresailak-eta ikus zitezkeen.

-Garoa inportantea zen. Ebaki, garraiatu... Igitariekin tratatu...

-Soro-lantze pixuenak ganaduz egiten ziren.

-Gaztainadi zahar asko oraindik tente.

-Pagadi lepatu ugari ikatz eta egurrerako.

-Auto gutxi eta errepede gutxiago. Garraiorako astoak: esnedunak, azokazaleak.

-1945: Asto bete umerekin etorri zitzaidan Forura, bisita egitera, arreba Maria.

-Kirolak: pilota, artean palankariak, aizkolariak, harri-jasotzaileak, idi-probak, txokor-bilketak.

-Orixeren *Euskaldunak* girotik hurbilxe.

-1948-51: Olite. Euskaraz lagun gutxi batzuekin hitz egiten ausartu. Salatzen gintuzten.

-Euskaraz asko idatzi genuen Oliten. Astero lantxo bat, astero ateratzen genuen aldizkariarako. Bagenuen beste aldizkari bat ere, noizik noizera eta mekanografiaturik eta dotore ateratzen genuena.

-1951-55: Arantzazun. Euskara landu, poematxoak, akademiak euskaraz. Garai honetan euskarari buruzko eztabaida sortu zen gure Kantabriako Probintzia frantziskotarrean A. Villasante (euskararen alde) eta A. Gutiérrezen artean.

-1954. *El estudio del euskera en nuestra carrera*. Villasante. *Region lore* poemarekin lehenengo saria Zarautzen.

-1955. *Acotaciones a un proyecto de pedagogía provincial*. Enrique Gutiérrez.

-1956. Euskaltzaleen biltzarra Euskaltzaindiaren itzalpean. Euskararen aldeko beste bultzada bat da. *Arantzazuko folkloregaien biltzeaz* idatzi nuen bilera horretarako.

-1956. *Jakin*. Euskararen aldeko indarra behetik gora. Gazte askoren parte hartzea.

-Erabakigarria:

-1960: *Congreso de literatura y predicación franciscana en euskera*.

-Biltzar horretarako lan luze bat idatzi nuen: *El euskera en el Colegio Seráfico y en la carrera*.

-1960. Ikuspegia: Garai honetan euskara debekatua zegoen. Euskara egitea nazionalista agertzea zen eta errejimenaren kontrakoa.

-Euskarak tonto egiten zituen umeak.

-Euskara politika zen, euskara bazterrak nahasteko besterik ez zen.

-Euskara berreskuratzea eta beldurra kentzea zen gure egiteko bat.

-Abertzaleek euskarari buruz ziotena inbalidatuta zegoen: politika zen.

-Omaetxebarria eta Villasante ez dira abertzale eta euskararen alde ateratzen dira.

-1960. Goian aipatutako Kongresua Arantzazun: euskara onartua da. *Cantabria Franciscana* Probintzia barruko dibulgazio-organoa da. Bertan agertzen dira gure iritzi eta erabakiak, besteak beste. Venezuelan, atzerrian irakurtzen da, euskararen aldeko gogoeta erabakigarria izan zen.

-Omaetxebarria, Andimak, Orixek-eta ezagutzen dute.

-Euskara ondasun publikoa da. Geurea eta unibertuala, partiduen gainetikoa beraz.

Eskolarik sortu al dugun?

Eskolarik sortu ez. Gu Arantzazuko taldekoak gara. Diferenteak gara, baina elkarri eutsi egin diogu. Azurmendiren eta nire poesiak diferenteak dira, baina guk elkarri lagun egin diogu: hirurogeian nire poemak irakurtzen ditu, nik bereak ezagutzen ditut. Komunitate literarioa osatzen dugu. Villasante eta Salvadore Mitxelena (arras diferenteak), lagun handiak eta elkarren miresle dira. Agirretxe, Karmelo Iturria, Julian Alustiza: komunitate humano bat, elkar pozten dugu. Kandido Zubizarreta, Anjel Madariaga, Kandido Izagirre, Joxe Antonio Garate, Joxe Antonio Astigarraga, Manex Erdozainzi, Pello Zabaleta...

-Eskolarik ez, bai nukleoak eskualdeka. Aresti fenomeno gipuzkoarra da. Txillardegi eta ni ez gara eskola bera, baina bai komunitate literario berekoak. *Leturiaren egunkaria*. Nik erantzuna. Beste tradizio batetik etorri arren eta diferenteak izan arren, ez dugu elkar arrotz hartu, anaiak bezala baino.

-1956: *Jakin*. Sorrera aztertu gabe dago oraindik. *Jakin* zaleak abertzale ziren gehienak: Iñaki Bastarrika, Iñaki Bereziartua, Fernando Mendizabal... Paulo Agirrebaltzategi, Azurmendi, Intxausti, Enbeita, Manolo Pagola. Villasantek ez zuen sekula gaitzetsi ez *Jakin*, ez *Jakin*-taldea.

-Garaiko euskaldunon kontrako mundu hartatik liberatu behar izan dugu: aldeano, cashero, euskara ez da edukazioa!

-Euskara politika da: konplexu horietatik liberatzeko lana.

-Liberazio prozesua. Euskal literaturari dedikatu ahal izateko.

Hiru gizon bakarka, borroka horren seinale da. Ideia batek, helburu batek lotzen gaitu.

-Ez dugu sortu eskolarik. Ez Arestik ere. Edukien eta jarrerren elkartasuna. Liberazioa elkarrekin osatu dugu.

-Elkar irakurri egin dugu. Elkarrengandik ikasi eta elkarri zuzenketak egin dizkiogu. Elkarri pasatzen genizkion lanak eta batak bestearenak irakurtzen genituen.

-Batasunaren problema. Ni bizkaieratik nator. Batasuna kulturalki etorri zait. Gipuzkekin tratua. Gure medioan gipuzkera; baina medio pluridialektal batean bizi izan gara. Prozesu normala. Lizardi-Orixe irakurritz.

-1954. Villasante eta Krutwig: Euskara kulto baten problema. Kulturaren gaitasunari begira. Iparraldekoa hartu eta kulturalismoa. Greko-latinoa. Euskara mordoiloa. Dilema: garbi-mordoilo.

1960. Euskal hitz jatorrak: deklarazioa. Hamar urtera: publikazio kultoak. Batasunaren problema betikoa da. Zaharrak hil dira: Orixo, Andima, *Euzko Gogo*a-eta sortzen dira... batasunaren problema.

-Bizkaiera baztertu izanaren penarik badut. Euskara batze honetan bizkaiera gutxietsia izan ote den nago. Euskara idatziari begiratu zaio bakarrik, ez mintzatuari-eta. Bizkaiko euskara gal-tzen atera da, jendea aspertu ere egin dugulako batua mintzatura ere eramatean.

-Ni batuarekin bat nator. Baina!

-Pedagogia falta.

Literatura zer den?

Gaiaren arabera hitza maneiatzeko abilezia.

Zertarako balio du?

Hitzak eta espresioak eraberritu, balioak berritu. Hitzei balio berriak eman. Bibliaren itzulpena gaur ez da literatura, baina Leizarraga bai, Lutero bai. Hizkuntza produzitu egin dute. Natur-zientzietako hiztegia = poesia.

Euskal kultura eta literaturaren egoeraz

Euskal kultura bat eta literatura bat bazenik oso berandu arte ez nuen entzun ere egin. Guretzat kultura eta literatura Euskal Herriaz kanpoko errealitateak ziren: Mesopotamia, Babilonia, Grezia, Erroma eta haiengandik ikasi zutenen altxorra. Espainiakoa bai, bazen kultura, grekoengandik eta erromatarrengandik eta arabeengandik eta haien obrak ikasi eta berenganatu zituztelako eta beti ere haiek zituztelako eredu eta jarraibide.

Guk Euskal Herriaren aipamen gutxi ikusi genuen gure es-

kuarteko liburuetan. Historiakoetan izen batzuk eta karlistadetak gerorako gerra galduak. Geografian gure luraren txikitasuna eta pobrezia. Literatura liburuetan ez zen euskararik.

Euskara berreskuratzen

-Euskara eskuratu (*ELORRI*)

-Euskara barruan gorderik neukan neuk ez nekiela. Hiztegirik ez eta behar nuen hitzaren edo esamoldearen zain-zain egoten nintzen, arreta guztia barrurantz jarrita eta beti eta hutsik egin gabe, putzuan puzpiloak edo burbuilak bezala punpa sortzen zen. Behin otoitzeko garaian ari nintzela, erabat ahazturik nuen umetan ikasitako kantu oso bat agertu zitzaidan dena segidan.

-Arantzazuko nekazari eta artzain auzokideei ere zorrik badiet.

-Sermolarien hitzaldi asko ipini behar izan nituen euskaraz.

-Teologia ikasten niharduela mutikoen lanak zuzendu. Irakasleek horretarako ematen zizkidaten.

-Gure garaian euskarak ez zuen osperik.

-Euskaraz egitea, ikastea, idaztea gaizki ikusia zegoen. Politikakerietan, edukazioari faltatzen eta karitatearen kontra ibiltzea zen.

-Euskara bazen aladura bide: kezka ematen zuen, ea bide oneko ote zen euskarari emana bizitzea.

-Gure taldeko azkarrenek ez zuten euskararen biderik jarraitu nahi.

Zein faktorek eragin didaten naizen bezalakoa izaten

-Erdaraz idazten irakatsi egin zidaten. Euskaraz idazten ikasi eta asmatu egin behar izan nuen.

-Euskaraz idazten ikasi ahala sortu nituen *Elorri*-ko poematxo asko

-Euskaraz idazten ikasi nahi izan nuen euskaraz idazteko gauza izatearren.

-Niri poesia purua edo aratza zait gustuko.

-Poesia lirikoa gehiago gustatzen zait epikoa baino.

-Hezieraz eta gustuz klasikoa naiz, antzinakoa.

-Euskal idazleen artean Lizardi, Lauaxeta eta Orixe ditut begikoen. Espazioan kointziditzen dugu. Modernismo harikoa naiz.

Bizikizun sorta hau EIEk Goierriko Kulturkideren partaidetzarekin 1997ko udaberrian antolatatu hitzaldiaren funtsa izan zen. Bitoriano Gandiagaren burutazioekiko, fidelotasuna gordeztearren, mantendu dugu memoria egitura.

“Strip-tease” saio bat Goierri-n

EIEk Kulturkideren partaidetaz Beasainen 1997ko udaberrian antolatutako hitzaldia.

Galdera aunitz egiten zitzaidan honaino ekarri nauen pape-rean. Haibertze non, orain, zuen aitzinera agertzean, strip-tease saio bat egiteko prest dagoen dantzari(s)a sentitzen bainaiz. Pro-blemarik ez horretarako. Gutti edo aski, idazleok –beharbada singularrez baizik ez nuke mintzatu behar– berezko omen dugu exhibizionismoa. Idaztea terapia molde bat dela erran izan da orain baino lehenago. Auskalo. Beharbada, idatziko ez banu, soinean gabardina luze bat baizik ez jantzia dudala ibiliko nintza-teke, barrandan, eskola eta idaztetxeen inguruko karrikaxketan.

Hartara, galdetegia irakurririk, neure bizia kontatu behar di-zuedala erabaki dut. Pena hartzen dut zuengatik. Nire menean zaudete eta ihesbiderik ez duzue.

Zergatik idazten hasi? Norberaren barne mundu aberatsaren berri emateko idazten dugula irakurria naiz (berriz ere plurala!), baina gauzak prosaikoagoak ere izaten ahal dira.

Nitaz den bezainbatean erantzun bat baino gehiago eman nezake. Egia ala gezur, bat hautatu dut. Nire kasuan idazteak badu, noski, ikustekoa zazpi anai-arrebetan bigarrena izatearekin. Badakizue, familia ugariatian zaharrena beti lehenbiziko, zernahi gerta ere. Haren ondotik heldu direnen erregetzak, berriz, hu-rrengo anai-arreba munduratzarekin izaten du akabaila. Niri berehala gertatu zitzaidan hori. Beraz, zokoraturik geldituko ez

banintzen, premiazko nuen inguratzen ninduten jende larrien arreta erakartzea. 8 urtetan jakinarazi nien aita-ama ustekabetu eta berehala penatuei idazle izan nahi nuela. Erran eta egin, agudo idatzi nuen lehenbiziko ipuina. Hartan, indioak nagusitzen zitzaizkien bakeroei.

Familia solas jadaneko. Ez da iragaitzean joanen zaigun afera. Beldur naiz aspertuko ez ote zaituztedan familia-kontuekin, baina erran berri dizuet neure bizia kontatu behar dizuedala. Denoi bezala, niri ere familiak atsekabeak eta alegrantziak eman dizkit. Kontrara ere, lehenbizikoetarik bereziki. Honat bildu gaituenari bagagozkio, zordun baizik ez natzaie gure aurrekoei, egin dizkidaten opariengatik. Ez bat baizik eta hiru, eta hirurak baitezpadakoak gero idazteari lotzerakoan. Zer eta abiapuntu bat, tresna bat eta lehengai edo material bat. Nire heredentzia kobratua dut jadanik.

1. Zer ikusi hura ikasi

Tristeziak aiseago saldu izan dira beti, baina irribarretsu nauzue. Ezinbertzez, aitortu beharrean bainago: zorionekoa izan naiz. Aitaren nahiz amaren aldetik, irakurtzaile amorratuak (izan) ditut etxeokak. Batek entseguak maite zituen gehienbat, eta biografiak, eta gai historikoen gaineko lanak edo kazetaritza arlokoak. Bertzeak, berriz, fikziozko lanak ditu gogoko, nobelak batik bat. Gure etxean, ganbara edo logela bakoitzak bere apalak zituen, eta salan bertze bat handiagoa. Osaba-izebenetan berdintsu.

Ene irakurtzaletasun goiztiarrak, beraz, ez zuen merezimendu handirik izan nire aldetik. Hautzaroa eta nerabezaroa liburu-segida luze baten gisara dut gogoan. Ekintza eta abentura nobelak maite nituen oroz gain, gaur egungo euskal literaturan hain bakan aurkitzen ahal direnetarik: Julio Vernerren bidaiak eta zientzia fikzioa eta Emilio Salgariren paisaia exotikoak eta pertsonaia ado-

retsua; Enid Blyton-en haur detektibeak eta Karl May-ren bisonte ehiztariak; Defoeren itsas-galduak eta Dumasen Mosketa-riak; Walter Scott-en zaldunak eta Marck Twain-en haur eta esklabo iheslariak; Fenimore Cooper-en mohikanoak eta Melvilleren balea zuria; Londonen otsoak eta Curwood-en arte-ehiztariak... batzuk beren osoan eta bertzeak argitalpen laburretan, larruazala haragiari bezala itsasirik geldituko zaizkit gogoan. Horietariko zenbaitek nabarmen elikatu dituzte gero idatzi ditudan lanak. Bertze batzuek zubitako balio izan zituzten irakurgai orduan ustez eta «helduagoetan» murgiltzeko.

Adinean aitzina egin ahalean, 18-20 urtetik goiti bereziki, bertzelakoen bisita hartu zuen nire liburutegiak: *beat generation*-go idazleak (Kerouac, Bukowski), hegoamerikarrak (García Márquez, Vargas Llosa, Cortázar, Borges), gerraondoko nobela-egile alemaniarak (Böll, Grass), eta bertze aunitz gehiago: Sholokhov (*Don Barea*) M. Yourcenar (*Opus Nigrum, Hadrianoren oroitzapenak*), Dos Passos (*Hiru soldadu, Manhattan Transfer*)... Mundua nire zangoetan.

Hain juxtu ere, irakurketen aldetik deskubrimenduen aroan murgitzeko bezperan, gauza erabakigarria gertatu zitzaidan: ni alfabetatzea begitartean sartu zitzaion izeko bati. Anarteraino jakin gabea bainintzen euskaraz ere aditzik bazenik ere, Nor-Norken laukiekin batera, irakurgaiak ere eman zizkidan: *Amaia*, Navarra Villosladaren obra mardularen bertsio laburtu eta hagitzez irengarriagoa; Antso Abarka eta Nafarroako bertze zenbait erregeren biografia nobelatuak; liburu xarmangarri bat: *Harkaitz, elurra ari zueneko haurra*, Historiaurreko mutiko baten bidaia euskal mitologian barna.

Luze gabe bakarrik hasi nintzen hegan une horietan pil-pil sumatzen nuen euskal literaturaren zeru gainetik. Hainbat lan zirraragarri gertatu zitzaizkidan: Saizarbitoriaren *Egunero hasten*

delako eta *Ehun metro*; Txillardegiren lehenbiziko nobelak, *Leturiaren egunkari ezkutua* bereziki; Mikel Zarateren *Ipuin antzeko* eta *Utopiaren fantasian*; Haranburu Altunaren *Karitate* eta *Itsasoak ez du esperantzarik*; Miranderen *Idazlan hautatuak*; Koldo Izagirrerren *Gauzetan* eta *Guardasola ahantzia*; Jon Casenaveren *Zutaz amoroski* eta *Azkenean dilindan...* Eta horiekin batean, tantaka eta modu erdi klandestinoan, Iruñeko bidea aurkitzen zuten literatur aldizkariak: *Panpina ustela*, *Oh Euzkadi!*, *Pott*. Horiek guztiak nire eskuetara ailegatzeak barne iraulketa eragin zidan. Norainokoa izan zen ongi mamitzeko, hizkuntzarekin orduan bizi nituen harreman gatazkatsuei so egin behar.

Egizue kontu. Ni, Iruñeko eukaldun, erdaraz eskolatua, eta 60ko hamarkada osoa bizi eta kaskoan barneratu ondoan, 80. hamarkadaren hasierara burua agertzen ari. Gehiegikeriaren beldurrik gabe, erran dezaket anarteraino nortasun erabat eskizoi-deak bizi izan ninduela, bi mundutan arrentik berezia:

- Euskarari lotua, ttikia, barnekoia, kaskarra, zuribeltzekoa, etxeko atean akitzen zena (nire kasuan, orduko Iruñea hartan, ez da metafora bat: etxeko atea nuen euskararen mugarri, eta etxeko esparruan ere erdararekin partzuer).

- Erdarari atxikia: zabala, handia, erakargarria, argitsua, kolorez jantzia...

Jakina, nirea ez da kasu berezia, garai bereko bertze frankorena baizik. Niri dagokidanez, harreman pertsonaletan bezalatsu geratu zitzaidan orduan –berriz diot, 70. hamarkadaren bukaera, 80.aren hasiera– literaturarekin ere. Aipatu berri ditudan idazlan horiek guztiak irakurtzea nire adintsuko neska batekin euskaraz solastu nintzen lehen aldian egoerak sorrarazi zidan zimikoaren pareko izan zen; edo Uztaritzeko plazan –77an– Niko Etxart eta bere Minxoriak rock an roll bat jotzen ikusi nituenean bezala. Anarteraino banuen etxeko bakardadean aditzeko musika –La-

boa, Benito, Lete-eta lagunartean entzutekoa: Rollings, Allman Brothers, Who, Deep Purple... Nikoren ikuskizunak ohartarazi zidan hain berezirik ikusten nituen bi mundu horiek ez zutela zertan etsai izan.

Bulkada ttipi bat gehiago baizik ez nuen behar. Hura aita zenak *Jakinen Euskal idazleak gaur* liburukote mardula etxera ekarri zuenean etorri zen. Hango argazkiak, hango zerrendak (zer urria Nafarroari zegokiona! «Farregarri» zeritzon liburuak, idazle erdiak baino gehiago aipatu gabe uzten zituelarik) irakurri eta berehala, 8 urtetan mahaira jarrita geundela egin nuen deklarazio ponposoa berritu nuen, aita-amendako samingarri. Idazle izan nahi nuen, baina ez nolana hiko. Euskal idazle izan nahi nuen.

2. Nola ikasi hala idatzi

Famili kontuetara itzuli behar.

Anabasa. Horra zer etorri burutara etxekook garai hartan generabilen euskarari ezaugarri bat bilatuz gero. Anabasa. Ama Lizarrakoaren erdararen ondotik, aitak gure aitita bilbotar-orozkoarrarengandik jasotako bizkaiera zen oraino garai haietan nagusi, nik, ondikotz, orduko aski kamustua banuen ere (Mirandek Parisen bezala, 13 urtetan nik ere gorrotatzen nuen gure aita nekagaitza Iruñeko karrketan euskaraz egiten zingularik). Udan, Iparraldean bolada luzeak egiten genituen, gerla garaiko familiarren erbestea aterbetu zuen etxean. Hortik, lapurteraren azaleko ezagutza. Bertzalde, anai-arreba gazteagoek gipuzkeraren gisako zerbait ekartzen zuten ikastolatik.

17 urtetan, hizkuntzaren berreskuratze edo alfabetatze bidean abiatzean, nafarrerarekin egin nuen topo. Iruñean lehenbizi, herrietatik etortzen ziren lehenbiziko irakasleen ahotik. Eta udako ikastaro deitzen genituen egonaldi akademiko-festiboetan parte hartzen hasi nintzelarik -«barnetegi» hitza ez zebilen oraindik,

ezta «ikastaro trinko» ere- Mendialdeko herrietan beretan ere bai. Bertze barne iraulketa ttiki bat: gorputza ez ezik, gogoia ere «ghetto-tik» kanpora ateratzearen pareko izan zen niretako, «erreserbara» bazen ere. Nafarrera nire euskalduntasuna sozializatzekeo tresna izan zen, hatsa hartzeko bidea. Arnasa.

Neuretu nuen.

Xabier Montoya gasteiztarrak honela dio *Anfetamiña* bere lehen liburuaren atarian:

Batzuentzat
Jesukristo gurutzera
(lapurren artean)
igo zenean,
historia hasten da.
Beste batzuentzat, aldiz,
Lenin-ek -txapela kenduz-
«Botere osoa sovieterako»
dehiadar egin zuenean,
Finlandiako geltokian.
Neretzat
David Bowiek ile moztu zuen
egunean.

Apur bat esajeratuz, nik ere erran nezake neure historia –istorioa?–, idazle gisa bederen, «izango» utzi eta «izanen» erratea erabaki nuen egunean hasi zela. Gero, badakizue hautuak noraino bilaka daitezkeen berezko.

Neurezte prozesu horretan nintzen euskal literatura zaharrarekin zaletzen hasi nintzenean. Bertze batzuek baina erraztasun handiagoak izan eta Iparraldeko klasikoek hainbertzeri sorrarazi zioten liluraren partaide izan nintzen ni ere. Mugaz bertzaldeko lanen ugartitasunak, gainera, nafarreraz idatzitako literatura zaha-

rraren arakatzera abiarazi ninduen. Basamortuaren pareko eremu gorria aurkitu nuen gehienbat: M.Izetaren lanak (*Dirua galgarri* lehenagokoa, eta *Nigarrez sortu nintzan*, orduantzekoa) eta, bereziki Irigaraitarrenak, Pablo Fermin, *Larreko*, Aingeru eta Jose Angelenak. Eta fini. Bilaketa ez zen, hala ere, hain elkorra gertatu, lehen urratsak ematen hasi bainintzen buruan jira-biraka zebilkidan zerbaiten norabidean. Orduko, arestian erran dudan gisara, Mikel Zaratek Bizkaijan eta Jon Casenavek Iparraldean garai berean egiten ari zirena irakurririk (hau beltza, bata heriotzak eta bertzea biziak isildu izana!) banekien «batua» delako hori liburudendetan zebiltzan (dabiltzan) idazlan gehienetan agertzen zena (dena) baino gauza zabalagoa zela (dela), oraindik hilabetean behin arrazoitu behar dudan baieztapena, bera. Ondorioa ere, logikoa zen: posible zen nafarreratik abiatuta idazteko sortu zen «hizkuntza komun» horri ekarpena egitea.

Nik jakin gaberik, garai beretsuan, bertze hainbat lagun ondorio bertara ailegatzen ari ziren han eta hemen.

3. Zulo-tapaketan

Inoiz euskal literaturaren azken bi hamarkadetako historia egiten denean, norbaitek, beharbada, «zuloak tapatu zireneko garaia» erranen die 20 urte hauei. Gure literaturan zer hutsune ikusi, hura estaltzera abiatu gara heriosuharrean (hau figura ñabarra!). Bada horri kritikagarri iritzi dionik, baina gauza jakina da idazleak berak izkiriaturik aurkitu nahi lituzkeen liburuak –irakurri nahi lituzkeenak, nahi bada– idazten dituela. Gurean, euskaraz irakurri nahi lituzkeenak. Alde horretatik, euskaldunak ez gara «zuloak tapatu nahirik» ari garen bakarrak: Hein batean idazle guztiek berdin jokatzten dute, nonahikoak izanik ere.

Nire idazteko erabakia gorpuzten hasi zenean bederen, bi ezauzgarri zitzaizkidan bereziki etsipengarri esku artera ailegatzen zi-

tzaizkidan euskal liburu gehienetan. Batetik, gure izkribu «ja-soek» –bertzerik zen herri literaturan– oro har hartzen zuten aire serio eta goibela. Bertzetik, gogoeta geldoaren pisu niretako gehiegizkoa. Horien kontra umorearen eta akzioaren txertoa paratuz plazaratu nituen nire lehenbiziko bi lanak: *Mugetan irri* antzezlan eta *Sasiak ere begiak baditik* nobela laburra.

Bertzelako kezkarik ere bazebiltzidan buruan. Arestian aipatu ditut Izetaren edo Irigaraitarren liburuek nigan izan zuten eragina. Bazen zerbait, baina guttixko nire «umezurztasun» konplexuari gaina hartuko banion. Funtsean, tradizio sendoagoa behar nuen, makulu, zerbaiten gerizapean bidea eroso urratzeko. Hondarrean, beharra bilakatu nuen bidailagun, eta eskas sumatzen nuen tradizioa neure kasa emendatzeari lotu nintzaion, apokrifotara joz. *Etxebertz* delako izkribatzaile zahar bati egotzi nizkion narrazioaren eremuan idatzi nituen nire lehenbiziko bi lanak: *Sasiak...* arestian aipatua eta *Garretatik erauzitakoak*. Batek baino gehiagok sinetsi zuen hezur-haragizko pertsonaia zela.

Nafarroan ez naiz bakarria bide hori hautatzen. Patziku Perurenaren lehen poema bildumak ere (*Joanes d'Iraola...*, *Iraingo apaiz gaztearen. Kantutegi zaharra, Emily*) bide beretik doaz. Orobat, ez da kasualitatea Jon Alonsoren lehen nobelak –*Katebegi galdua*– apokrifoto batean ardaztea kontakizuna. Umezurztasun aferak. Niri dagokidanez, lehen lan horien bitartez, ez dakit bertze deus elikatu ote nuen; neure burua bederen bai. Erran nahi baita, neure buruarendako tradizioa sorturik –guttieneko segurtasun bat izanda, nahi bada– bitartekorik gabe hasi ahal izan nintzela hegaz. Horiek jorratu baino lehen, bertze kontu batzuk ekarri nahi nintzuke hona.

Nirekin batean ari diren bertze idazle batzuk aipatu berri ditut, eta horrek oroitarazten belaunaldi aferez ere galdegin zaidala. Nire zokoan, hainbat urtetako lehortearen ondotik, bateratsu

plazaratu ginen Patziku Perurena, Eduardo Gil Bera eta hirurok. Denak arras diferenteak, ez bakarrik izaeraz edo pentsamoldez, baita literatur genero gogokoenaren ikuspegitik begiratuta ere. Badugu, alabaina, bateratzen gaituen ezaugarririk: nafarreraren inguruko kezka, batetik, eta halako distantzia kritiko bat gaur egun euskalgintzan nagusi agertzen diren joerekin, bertzetik. Hori aski ote belaunaldi bat osatzeko? Ez nuke baietzik erranen.

Nolanahi ere, gu plazaratzea irteerako danbadaren gisakoa izan zen gure ondotik bertze batzuk agertzeko. Poetak, bereziki, hala nola, Olasagarre, Mugartza, Taberna, Valentzia, Azkona eta bertze zenbait. Guttiago, oraingoz bederen, narradoreak (Jon Alonso bera). Gaur egun, euskal literaturaren historia osoan baino euskal idazle gehiago dugu Nafarroan eta hori ezuste alimalekoa izan da, kritiko batzuek oraindik sumatu ere ez duten susper-tze suerte hau etsipen gorrienaren garaian gertatu delako.

70-80 hamarkadetan, Nafarroako euskaldunek, nagusiki, lurralde batasunaren ametsa ezagutu dugu. Hortik abiatuta, probintzia bakarraren amesgaiztoa gero. Hirugarren fasean, arruntkeria etsiaren ametsondoa. Giro horretan hazi da han euskal idazleen azken txitaldia, eta giro horretatik sortu da zenbait idazlan. Horietariko bat nire *Ur uherrak* da.

Idea eta burutazio multzo galanta zebilkidan mormor kaxko barnean nobela horri ekiterakoan. Xedeak, ausarki: pertsonaia batzuk gorputz eta arima zertu nahi nituen, istorio bat hasi eta buka kontatu, eta horrekin batera, nire ikuspegia agertu gure gatazka eternal eta pasakoez: tradizioa/modernitatea, gaztaroa/zahartzaroa, herria/ziudadea, erreserba/ghettoa, maitasuna/gorrotoa, bakea/gerla, egia/gezurra... Porrot pertsonal baten kronika da *Ur uherrak* eta, aldi berean, porrot kolektibo batena ere; nobelako pertsonaiena, baita –seguraski– gurea ere, finean. Sobera gauza, beharbada, liburu bakarrean.

Ur uherrak duzue egundaino gauzatu dudan proiekturik luze eta mamitsuena. Handik goiti, hats laburragoko lanak gehienbat. *Lur zabaletan* hastapenean aipatu dut. Gazteendako literaturan gaurdaino egin dudan sarraldi bakarra, euskaldunek Ipar Ameriketara izan duten presentzia aitzakia hartuta. Berriz, orainditsa, egitasmo zahar baten lehen saioa burutu dut, berehala *Tigre ehi-zan* izenburuarekin karrikaratuko den nobelaxka. Ez naiz haren propaganda egitera etorri, baina hizpide emanen dit mintzaldi honen hondar atalari lotzeko.

4. Zer aditu, hura aldatu

Izan ere, hasieran nioen bezala, familiak, abiapuntu bat eta tresna bat eman dizkit opari. Eta horiez landa, lehengai ere bai.

Egungo euskal literaturan ahozketasunaren fenomeno aztertzen delarik, haren alderdi estilistiko edo formalak jorratzen dira gehienbat, baita ahozketasun horrek sorturiko tradizio amankomuna ere. Horren parean, ordea, bada, edo izan daiteke, tradizio partikularragoa ere. Gure kasuan, erran nahi baita, familiarenean, hainbertzetako bazkalondo edo afalondotan aditutako istorioak dira gure tradizio partikularrak.

Hirikoa naiz, karrikarra. Eta telebistaren belaunaldikoa. Ez aitatxik ez amatxik digute supazter xokoan edo sutondoan istorio liluragarriak kontatu neguko arrats luzeetan. Aldiz, gure familiak, maiztasun handiz, eta edozeren aitzakian -bizien nahiz hilen egunak; garaipen eta derroten urtemugak- mahai baten inguruan biltzeko ohitura (izan) du. Bistan da, mahai baten inguruan sutondoan bezain istorio xarmangarriak adi daitezkeela bazkari edo afari oparo baten ondotik. Gure kasuan milaka istorio ttiki pasarte handiz zipriztinduak. Dela Elorrioko frontea 1936ko neguan; dela hegazkin alemaniarren erasoak Dunkerke parean 1940an; dela

tigre baten oldarraldia Orinoko ibai bazterretako oihanean, 1944an; dela Mirandako kontzentrazio-esparrua 1946an...

Alde horretatik, nik orain, gure etxeko zaharrak, *Blade Runner* filme gogoangarriko errepikante kaxkazuria bezala idurikatzen ditut. Oroit bukaerako eszenaz, azotean, euri erauntsiaren azpian, bakar-solasean: «Ikusia naiz zuek sekula ikusiko ez dituzuen gauzak. Ikusia naiz untziak sutan Orionez haraindi, eta arrastiria Trannhäuser-ko aean...» Orobat, gure etxeko zaharrak (eta aitarren aldeko familiez ari naiz gehienbat). Bazuen zer kontatua. Gerla zibila bizi izan zuten; presondegia ere. Batzuek; erbestea Iparraldean, Europan nahiz Hegoameriketean; alemanen okupazioa; erresistentzia... Nobela bana idazteko adina zeukaten beraien bizi, sentitu eta ikusitakoarekin. Ez zuten egin. Eta ez dute eginen. Eta horretatik, berriz ere oroitzen naiz *Blade Runner*-ez eta Harrison Ford protagonistaren aitzinean azken hatsetan dagoen errepikanteaz, bere bakar-solasaren segidan: «...Baina horretatik guztitik ez da deus geldituko... Malkoak euri tantekin nahastean desegiten diren bezala deseginen dira horiek ere...».

Memoria galtzeari –nire memoria galtzeari– erran diot nik ezetz *Tigre ehizan* idatziz.

Izan ere, literatura deusetarako ez dela erraten dutenak oker daude guztiz. Ikusi niri nola balio izan didan. Hasieran nioen gisan –gabardina eta– terapia bat izan daiteke. Gure grinarik eta guraririk kukutuenak kanporatzeko edo mozorrotzeko ere balio digu. Baita mendekurako ere, Ur uherretan egin nuen bezala. Edo ustezko okerrak, ustez zuzentzeko, hala nola *Lur zabaletan*-en. Hasian hasi, bertze erabilera batzuk, bertze balio batzuk, bertze xede batzuk aurkituko genizkioke literaturari. Baietz hiru lau orrialde belzteko adina. Nolanahi ere, niri, neure honetan, bat interesatzen zait oroz gain: literaturak oroimena atxikitzeko, oroimena ez galtzen laguntzeko duen ahalmena. Eta hori arras

inportantea da. Ezen –eta barkatuko nauzue, hitz potoloez baliatzen banaiz akitzeko, baina halako mintzaldi serioari halabereko bukaera zor zaio–, ezen, beraz, oroimena ez galtzea heriotzari iruzur egitearen parekoa baita.

Nik, bederen, horrela uste.

EIEk Kulturkideren partaidetzaz Beasainen 1997ko udaberrian antolatutako hitzaldia.

Liburu-iruzkinak



Joseph Conrad

Jon Kortazar

Anjel Lertxundi

E. Anni Proulx

Nawal al-Sa'dawi

Oliver Sacks

Ramon Saizarbitoria

José Saramago

Susana Tamaro

Joseph CONRAD. 1994. *El Agente Secreto*.

Madril: Alianza Editorial.

El Agente Secreto

Hobe genuke, irakurtzea den *keria* honek hartuta gauden guztiok, esaldia esaldiaren ondoren irakurtzeari ateratzen diogun gozamenaren nolakoa besterenganatzen jakingo bagenu. Batzuetan ez da erraza.

Conrad idazlari larderiatsua da, edo hala dirudi. Gurean askok bezala, jatorriz bera ez zen hizkuntzan zertu zuen lana. Horrek zerbait frogatzen duela uste nuen orain gutxira arte. Orain zalantzak ditut; izan ere, ez al da simulakroa izango? Conrad komediante?

Idazle eskuindarra da, halakorik esaterik badago. Idazle handia da, itzulpenek eragiten ahal dioten kalteetatik gora hegaldatzen dena. Beraren testuei literaturtasunaren agerpen gorenetakoa bat darie, oparo; esaten duenaz, *esan nahi omen duenaz* haratago esatea, usain, kolore, giro, zer esplikagaitz baino identifikagarri batez blaitzea, *zipatzea*.

El Agente Secreto filme bihurtu dute, eta horra hor aitzakia horretaz mintzatzeko. Filmea berriki ikusi dut. Liburua urte batzuk direla irakurri nuen. Bertan, anarkistek gizonak —eta gizonak diot, ez pertsonak, edo gizakiak— nazkagarri eta okaztagarritik duen oro hezurmamintzen dute: alperrak dira ezinago, emakumeen bizkar bizi dira, nagikerian segitu ahal izateko zer asma-

tuko, beste xederik ez dute, beste ezertan ez dute euren talentu badaezpadakoa erabiltzen. Are, *potentzia atzerritar* baten txon-xongiloak ere badira:

Irakatsiko dizut, nire ikuspegitik, zein den bonba terroristaren ganean dudan filosofia, (...) Irtenbide da zeuen erasoak gizateriaren ohiko pastotatik landa dagoen zerbaiten aurka bideratzea (...) Erasoak debaldeko biraoak duen eskandaluzko burugabekeria eduki behar du (...) benetan eraginkorra litzateke, hau ahalezkoa balitz, bonba zientzia mantematiko hutsaren beraren aurka botatzea.

Atentatuaren helburuaren aukeraketak bizpahiru orri antologiko hartzen ditu. Esan nahi baita liburua ez dela, ez, errugabea, inuxentea. Halakorik bada?

Bidenabar esan dezadan, banuela jakinmina ikusteko nola erabakitzen zuen pasarte hori: bada, ia hitzez hitz. Azken esaldia –bonba matematikari paratzearena– behintzat, hitzez hitzezkoa da.

Hasieratik ez bada, berehalatik susmatzen den tragedia –tragedietan, denik eta doilor eta ziztrinena– gauzatu egiten da, noski. Baina, hara non, iragarririkoa gertatzeak ez du iragarririko gertararen krudeltasuna ezabatzen, ez du ankerkeriaren sentimendua gutxiagotzen. Areagotu, agian. Idazten ikasi nahi dugun guztiok, bestalde, arreta handiz aztertu beharko genuke hari narratzailea pertsonaien psikologia-azterketa zirudiena noiz eta nola bihurtzen den ekintza-eleberria, eta alderantziz, atzemateko, tragedia gertatu eta gero kontatzeko ezer geldituko ez dela dirudi, artean orri mordo bat falta delarik eleberria bukatzeko. Baina orduan sekulako indarrez Verloc andrea eraikitzen da nik gogoan dudan literaturaren emakumezko pertsonaiarik antologikoenetakoa osatu arte.

Izan da Conraden eleberria hau Estatu Batuetako gaur eguneko *Unabomber* pertsonaia egizkoarekin lotu duenik. Ez dut uste

oso alderaketa egokia denik. Baliteke Verloc izatea *Unabomber* horren ahaide zaharra, baina, ahaidetasunak bilatzen hasiz gero, Unabomberrek antza handiagoa du Paul Austerren *Leviatan*-eko Benjamin Sachs-ekin Verloc jaunarekin baino. Haatik, *Unabomber* delako horri gustu apur bat gelditzen bazaio, Conraden eleberria nahiago izango duelakoan nago, Austerrena baino.

Jon KORTAZAR. 1997. *Luma eta Lurra. Euskal poesia 80ko hamarkadan*
Bilbao: Bilbao-Bizkaia Kutxa. Labayru Ikastegia.

Poesia 80ko hamarkadan

Urte honi hasiera eman genionetik ugari agertu zaigu Jon Kortazar euskal liburugintzan, hiru baitira, honekin, dagoeneko argitaratu eman dituen liburuak, haietariko bat elkarlanean. Hirurak saio jori eta mardulak, baina azken hau guztietan jori eta mardulena. Izan ere, aspaldi ez genuen horren testu luzerik euskal literaturaren inguruan, azterketa literario bat eginez esan nahi da; zeren, jakin badakigu Joan Mari Torrealdairen azken liburuak ohizko ez den orrialde kopuru itzela duela.

Liburu hau berez zazpi diren bost atalek osatzen dute. Zazpi diot, hasierako *Sarrera* eta gibekeko *Bibliografia* eta *Eranskina* gutxienez besteak bezain garrantzitsu eta interesgarri suerta lekizkiokelako irakurle espezializatuari. Lehendabizikoa, lana bideratu duten irizpideen azalpena ez ezik, testuinguratze labur baina zehatza da, besteak beste. Agian pittin bat luzeago ez izatearen penaz geratzen gara baina, idazleak berak dioenez, lan hau, berez, elementuen deskribapen multzoa da, multzoaren deskribapena baino. Bigarrena, bestalde, datu zerrenda da, ikerlariantzat, eta zerbaiten bila dabilen edozeinentzat, oso estimagarria beti, oraindik sailkatzeaz dagoen gure literaturaren mundu honetan.

Eta mutur erako bion artean, oraingoan bai, bost atal. Azkena da luzeena, honek besteetan sailkatu gabeko hamahiru idazle biltzen baititu. Sakonena, ordea, lehendabizikoa dugu, bertan

azaltzen baita *Pott* bandakoen lana eta haietako hiru idazleen poesia.

Hiru atal daude tartean. Bigarrena *esperientzia-poesia* deitu izan zaionari eskainia, bertan sei idazle nagusi. Hirugarrenean Iparraldeko poesiagintzaz aritu zaigu, batez ere *Maiatz* inguruan; bost idazle hartu ditu Kortazarrek eredu, baina bertan ere beste sei olerkari aipatzen zaizkigu interesgarrien artean. Eta laugarren atala *Susa* eta *Ustela* sailetan agertutako hogeita hiru idazleei eskainia dago, horietariko sei bereziki aztertutak.

Alde eta kontrako kritikak jasotzeko arrazoiak izango ditu liburu honek, baita hutsuneak ere, horietariko ugari egileak berak bertan aitortuak. Azterketak, ikus daitekeenez, ez dira hein berekoak –Atxagari edo Miguel Anjel Unanuari eskainitakoak kasu–, baina idazleek eta haien lanek gaur duten garrantzia ere desberdina da. Bestalde, benetako asmo entziklopediko batetik, behar bada, ez litzateke inolako izenik edo lanik kanpoan geratu behar. Horien guztien balioztapena irakurlearen eskuetan jarri nahi dugu, ordea.

Nolanahi ere, lan honen gaiaren eta egilearen arteko hurbiltasunaz jabeturik, Kortazarrek batere erraza ez den lanari ohizko duen seriotasunez ekiteko adorea izan duela aitortu behar dugu, berriz ere gaurko euskal literatur kritikaren esparruan duen nagusitasunaren zergatia erakutsiz.

Esapideen harrobietan barna

Espreziobide moderna gauzatu guran, urte askoan diharduen ahalegin serioan, makina bat irakurraldi burutu duela igartzen zaio Anjel Lertxundiri. Gainera, liburu honek frogatzen digunez, arreta handiz egindako irakurketak ditugu. Zenbat azpimarratze, ohar edo iruzkin egin behar izan ote du horrenbestearainoko materiala pilatzeko! Hein batean, gure ahozko nahiz idatzizko literaturaren hautaketa bitxi eta jakingarria eskaintzen digula esan daiteke.

Inazio Mujikak hitzaurrean esaten duen legez, berba eta esapide guztiek daukate euren aurkia, ifrentzua eta kantoia, hots, txanponen antzera, aurreko, atzeko eta ertzeko alderdia. Lan honekin hitz eta esamoldeen alde ezkutuak bistaratu nahian aritu zaigu Andu, testuiguruak zehazten, jatorriak ezagutarazten, esangurak argitzen.

Alfabetoaren arabera sailkatutako izenburuz bereizirik, neurri eta hedadura desberdineko idazgaiek osatzen dute liburua: Hiruzpalau lerro soilik izaten dira batzuetan; dozenatik gora sarritan; lauzpabost orrialde ere bai inoiz. Ia konturatzeke, iraizean eginiko komentario laburretik sakonago garatutako gaira pasarazten gaitu egileak. Literaturak aitzakia ematen ez dionean, bertso-laritzak eskuratzen dio hizpidea, edota historia, etnografia, erlijio edo paremiologiak. Beraz, sasoi eta eremu zabaletako iturrietatik datorkio idazteko isuria Orion jaiotako zarauztar honi.

Hartarako, Euskal Herriko nahiz atzerriko idazle askoren harrobiak ustiatu ditu Lertxundik; baita Cerquand, Salaberri, Azkue, Donostia, Barandiaran, Barbier, Lekuona eta besteren bildumalanak ere. Testu horietan xurgatuz, atsotitz zaharrak, esapide kuriosoak, ahapaldi deigarriak, hitz-joko politak aukeratu dizkigu, gehienetan euroi buruzko argibide aberasgarriak ematen dizkigularik. Igarkizunak, herrietako letaniak, gaitzizenak, pertsonifikazioak eta beste hainbat baliabide erabiltzen ditu, maiz galzorian dauden hizkuntz-oparotasunak azpimarratzeko.

Arakatutako irakur-saila zenbaterainokoa den ikus dezazuen, lagin gisa eta han-hemenka jasota, liburuan agertzen diren idazle, biltzaile, ikerlari eta bertsolari batzuen izenak aipatuko dizkizuet:

* **Euskal idazleen artean:** B. Etxepare, J. Etxeberri Ziburukoa, P. Axular, S. Pouvreau, A. Oihenart, J. Tartas, P. Urte, M. Larramendi, A. Kardaberaz, B. Larregi, J. A. Ubillos, J. A. Mogel, P. A. Añibarro, J. B. Agirre Asteasukoa, J. I. Iztueta, J. Duvoisin, J. B. Arxu, F. Laphitz, J. B. Elizanburu, G. Adema, «Zaldubi», F. Arrese-Beitia, M. Soroa, A. Apaolaza, J. Hiriart-Urruti, D. Agirre, E. Arrese, «Kirikiño», J. Barbier, «Jautarkol», «Orixe», «Lizardi», «Lauaxeta», J. A. Irazusta, N. Etxaniz, A. Zubikarai, J. Etxaide, J. Mirande, G. Aresti, M. Zarate, X. Lete, B. Atxaga, A. Eguzkitza, J. Sarrionandia, K. Izagirre, J. Garzia, E. Jimenez, A. Epaltza e. a.

* **Bertoko zein kanpoko euskalari eta ikerleen arloan:** E. Garibai, B. Etxabe, L. Isasti, P. P. Astarloa, A. Xaho, F. Michel, L. L. Bonaparte, W. Webster, F. Navarro Villoslada, E. Arriaga, E. Dodgson, J. Vinson, J. Jaurgain, A. Kanpion, R. Ma Azkue, S. Arana-Goiri, J. Urkijo, J. A. Donostia, K. Eleizalde, P. Lhande, N. G. H. Deen, N. H. Holmer, T. Etxebarria, J. M. Barandiaran, J. Garate, P. Lafitte, J. Ma Iribarren, S. Onaindia, F. Idoate, K.

Izagirre, J. Caro Baroja, L. Villasante, L. Mitxelena, J. San Martin, A. Zabala, Tx. Peillen, J. M. Satrustegi, A. Arejita, P. Urkizu e. a.

* **Mundu-literaturako idazleen multzotik:** L. Apuleio, M. T. Zizeron, G. Boccaccio, J. Manrique, F. Rabelais, W. Shakespeare, Sor Juana Inés de la Cruz (aurreko sailean sartzeko modukoa ere izan arren), J. eta W. Grimm, A. Dumas, G. Sand, T. Gautier, P. Verlain, H. Melville, B. Pérez Galdos, G. B. Shaw, K. Kavafis, G. García Márquez, M. Kundera e. a.

* **Bertsolariei dagokienez ere hona izen batzuk:** P. Topet *Etxahun*, «Pastor Izuela», Jose M^a Iparragirre, «Xenpelar», «Muxarro», «Bilintx», «Pello Errota», Pello M^a Otaño, «Txirrita», «Xalbador» e. a.

Anjel Lertxundik amaieran aitortzen duenez, berea moldatu ahal izateko, lau liburu hartu ditu, batez ere, eredutzat: Joseba Sarrionandiaren *Ni ez naiz hemengoa*, José M^a Iribarrenen *El porqué de los dichos*, Claude Duneton-en *La puce à l'oreille* eta Néstor Luján-en *Cuento de cuentos*. Dena den, obrak daukan alfabeto-egiturarengatik edozein orrialdetatik hel dakiok e irakuketari.

E. Anni PROULX. 1993. *The Shipping News*.

New York: Simon and Schuster.

Ilunaren xamurra

Batzuetan, liburu batek bere mundura eramaten gaitu, irakurtal-
diak bidaiak bezalakoak dira, edo amets bizi-biziak: behin orrie-
tan idatzirik dauden letrei erreparatuz gero, inguratzen gaituene-
tik aldentzen gara eta, liburuaren munduan gabiltza bat-batean,
hango kontuak ezin benetakoago zaizkigularik. Ontzi espazialak
bezalakoak dira liburu hauek, irakurleak *abdukzio* baten bitartez
hartaraten dituztenak, egiazko munduko ardatz espazio-denbo-
razkoak zirriborraturik. Hauetarikoa duzu *The Shipping News*
eleberria.

Quoyle izeneko gizona da istorio honen haria. Porrota bera da
Quoyle, gizon egina. Lodierraldoia, egun Ipar Ameriketako gizar-
tearen bazter etsietan aurkitzen diren lodi munstrolakoetako bat:
zuria, pobrea, etxearen ordeztaler-auzo batean bizi dena, New
York estatuko iparralde hitsaren zoko desolatu izenbakoren ba-
tean. Maitasuna aurkitu duelakoan, *Pearl* aurkitzen du: "Poz
kiskaltzailezko hilabete bat. Gero sufrimenduzko sei urte gotor."
Pearlekiko harremanak eta bere ondoriek, zoritxarraren superno-
va bat sortzen dute, eleberriaren istorio nagusia elikatuko duen
energia dongea. Quoyle jaiotzetik mesprezatzen zuen aita krude-
laren heriotzak eta haren hileta bakartiak, ordura arte ezagutu
gabeko izekoa aurkezten diote. Izekoak eta bere segetuek era-
mango dituzte Quoyle eta honen alaba txiki biak Ternuako itsas-

bazterrera, beren endaren zuztarra omen den jatorrizko etxera. Etxe hori haitezetan zutunik aurkitzen badute ere, bizitza osoa eraikitzeari ekin beharko diote biek, eta hemen eteten dut argumetuaren ildoan, ez baitiot irakurlegaiari sorpresen kutxa zapuztu nahi.

Kontagaiak ezin latzagoak izan arren, pertsonaiak errukiaz haratagoko basamortuetan galduta ibili arren, *The Shipping News* irribarre xume batean irakurtzen da gehien bat, Proulx-ek umorea erabiltzen baitu, pintzel fin eta ongi neurtuaz, kolorerik ilunenetan ere samurtasunaren argia azalduz. Ez daitezela hitzak nahas, baina. Istorioak, emeki kontatuta egonagatik, ez du bigunkeriarik ageri, ez du oinazea gozokiz mozarrotzen. Proulx-ek aukeratu duen idazkera nabarmenak azal lezake, beharbada, gaien larritasun kasik ezin sinetsizkoak baliatzen den kontakizun honetan, sekula melodrama negartiaren aztarrenik ez sumatzea inon. Esaldiak labur-labur, maiz aditz jokaturik gabeko hitz andana umezurtzak, ingelesak onar dezakeenaren muga-mugetan; izenak eurak, biluzik agertzen zaizkigu gehienetan, ondokorik bat ere gabe. Agertzen diren izenondo gutxiek eztañak sortzen dituzte beraz, beren esaldietatik kanpo zabaltzen diren uhinak eraginez. Hitz gutxitan hamaika gauza esateko talentua. Gutxitasunaren idazkera aipatzean, Carver etor lekizuke gogora, baina Carverrek laztasuna bilatzen du, gertakari nimiñoen disezio hotzak eskaintzen duen ondorio argigarria. Ez da hori Proulx-en idazkera etenetenak helburu duena; neuri, behin baino gehiagotan, Lizardiren sintetikotasun samurra ekarri dit gogora, Proulx-ek bere saldari Lizardik erabiltzen ez zuen ironia mingotsa gehitzen badio ere.

Itsasoa eta itsasoaren aldarteak dira eleberri honetako bigarren pertsonaia nagusia, gizakien gorabeheretan nahasten ez den itsaso ahalguztiduna. Proulx-ek ez dio itsasoa eta eguratsaren arteko hartu-emanari errezel islatzailearen lana ematen, eskertzekoa dena.

Inguru fisikoak izaera propioa du. Gizon-emakumeen arteko gertaerek harengan eraginik ez izaki, hark erabakitzen du giza-ibilbi-dea sarritan, nahiz gehienetan, jainko gorra bailitzan, seme-alabei bat ere jaramonik egin gabe iharduten duen bere aldakortasunean. Itsasoaren aurrean urtetan bizi denak marraztuko lukeen erretratu, hain zuzen ere.

Marinelek erabiltzen dituzten korapilo ezberdinek ematen diete izena kapituluei, eta korapilook nola egin eta zertarako diren azaltzen diguten pasarte eta irudien aipamenak eskaintzen zaizkigu kapitulu buruetan. Aipamen guztiak, esaten zigunez, *The Ashley Book of Knots* izeneko liburutik datoz. Aipamenok, kapituluan zehar frogatu eta eztabaidatzen diren hipotesi bilakatzen dira; agian, begibistakoegi irudi lekiok norbaiti korapilo eta bizitzarekiko analogia hau, baina neuri behintzat ez zidan kontakizuna merketu, inteligentzia handiz burutu duelako Proulx-ek korapilo eta kontagaien arteko lotura bihurri hori, lantzean behin korapiloen zerrendan sorpresa txikiak tartekatuz. Arretaz irakurtzea gustuko duenak, hainbat keinu jostari aurkituko ditu bai liburuaren egituran eta baita abarrez abailduriko kontakizunaren oparotasunean ere. Eta bai, balearen arrantzan Ternuako kostaldera iritsi ziren euskaldunak aipatzen dira, birritan-edo, bidena-bar, kontakizunaren haritik.

The Shipping News liburuak hainbat sari jaso ditu Estatu Batuetan, euren artean ezagunenak *The National Book Award* eta *Pulitzer* saria. Proulx-en aurreko lan argitaratuak bi dira: *Heart Songs and Other Stories* ipuin laburren bilduma, 1988.ean argitaratua, eta *Postcards* eleberria, 1992.ekoa. Egun Estatu Batuetako literaturan duen itzalaren lekuko, aurtengo *Best American Short Stories* bilduma ezaguneko hautatzailea bera izan da, adibidez.

Ziur naiz liburu honek hainbat eta hainbat irakurle eramango dituen, gorputzaz kanpoko *abdukzio* literario batean, New York

estatuko lautada suntsituetatik, Ternuako kostalde izoztuetara. Beraz, nahiz itsasoz bestaldetik bidaiari batek oparitu ez, nahiz Europako bihotz menditsuan, ura ikiliklak leihoetan, uztaile euri-tsu batean irakurri ez, egiazki agintzen dizut, zauden lekuan zaudela, Ternuako itsaso zabalak eramango zaituela, kulunka, liburuak eskuetan iraun artean.

NAWAL AL-SA'DAWI. 1994. *Mujer en punto cero*.
Granada: Al-Nahda.

Zero puntuaren desatseginak

Feminismoaren munduan txit ezaguna dugu Nawal al-Sa'dawi 1931an Karf Thala izeneko herriskan jaiotako idazle egiptoarra. Literatura ez du, hala ere, jardun bakarra izan, zeren sendagile, kazetari eta hizlari gisa ere aritu baita, beti emakume arabiarren egoera salatzea helburu izan duelarik. Eta Egiptoko agintariak errukirik ez: Nawal al-Sa'dawik ondotxo daki kartzelan izatea zer den.

Zenbait liburu idatzi izan du: besteak beste, *Emakume arabiarren aurpegi biluzia* eta *Emakume sendagile baten egunkaria*. Oraingo honetan aipagai dugun *Mujer en punto cero* honek, bi bertsio ezberdin ditu espainieraz: bata, jatorrizko testutik hurbilagoa, López Herradak arabieratik zuzenean egindako itzulpena (Al-Nahda bilduma, Granada), eta bestea, itxura aldetik txukunagoa, Mireia Bofill-ek auskalo zein hiz- kuntzatatik egindakoa (horas y horas la editorial, Madril).

1992ko abuztuan erregalatu zidan liburu hau Bergarako lagun batek. Liburu guztiek zuri eduki ohi duten lehenengo orrialdean poema eder bat kopiatu zuen, Mario Benedettiren *No te salves* deritzona. Eta Bergarako lagun harekin nuen adiskidantzaren hondarrak salbatu nahi ditudanez, hona hemen *Mujer en punto cero*ri egindako iruzkin laburra.

Liburuan ageri den emakumeak Firdaus du izena, eta haren kartzelariak aldarrikatzen duenez, «hiltzailea izan edo ez izan, ez du urkarik merezi». Presoaren eta kartzelariaren arteko lokarriren bat aurkitzea gaitz samarra gertatu ohi bada ere, hemen bada ezaugarri bat bi emakumeok lotzen dituen eta batari bestearen jokabidea justifikarazten diona: emakumetasuna. Biak lubaki bannatan daude, biak baita lubaki berean ere.

Liburu hau ez da atseginez irakurtzekoa. Izan ere, latzak baino latzagoak dira bertan aurkitzen ditugun pasadizoak, Firdausek ttikitatik ibili behar dituen bideak. Baina horrexetan datza, hain zuzen, Nawal al-Sa' dawiren meritua: laztasunak zirrara eragiten digu, ez gaitu axolagabe uzten, eta zer pentsa ugari ematen digu gure emakumezko edo gizonetzko izaeraren gainean. Baina lasai: ez da hau antropologi-tratatu bat, ezta gutxiago ere: istorio bat kontatzen zaigu, istorio asmatu bat, bestalde ere errealitateari tinko atxekia. Esango dit baten batek munduko gizonak ere ez direla (garela) berdinak, ezin daitezkeela (gaitezkeela) konpara mendebalekook herri arabiarretakoekin, Nawai al-Sa' dawik herri jakin bateko kasu orokorra salatzeo, *feministilla* ahobero bat dela, mendebaleko emakumeek asko lortu dutela berdintasunaren borrokan, eta ez dagoela onartzerik inork haxe esatea: «gizon guztiak kriminalak dira: aitak, osabak, senarrak, putazainak, abokatuak, sendagileak, kazetariak, eta lanbide guztietakoak». Zu ez zara kriminala, baina erreparaiozu emaztea jipoitzen duen bosgarren solairuko auzokoari edota zure lantegian langileak aukeratzear arduratzen denari.

Firdausek bere bidean topatzen dituen gizonak, ordea, ezin uka pittinka-pittinka Firdaus hiltzen dutela, duintasuna zapaltzen dioten heinean. Eta ez dira gizon asmatuak. Ez dira *feministilla* baten amesgaitz batek sortutakoak. Hezur-haragizko gizonak dira, ohituraz, erlijoz eta legez emakumeon jabe sentitzen dire-

nak. Aita, osaba, Mahmud senarra, Bayumi, Fawzi, Dayá, Ibrahim eta, azkenik, Marzuq, txanpon bereko alde ezberdinak dira, Firdaus errealitate kolorebakarraren jakitun jartzen dutenak. Sufri-mendua ikasbide du beti aldean bigarren mailako ikasketen agiria harro-harro (eta alferrik) eramaten duen emakume honek.

Firdaus egiaren bila dabil, eta liburuaren (hau da, bere bizitzaren) bukaeran baino ez du aurkitzen, ez salbatzea duela irtenbide bakar erabakitzean. Ez dizut orain esango egia horren berri: atzeman ezazu zuk, liburu hunkigarri hau irakurrita.

Oliver SACKS. 1996. *An anthropologist on Mars*.
New York: Vintage Books.

Neurologiaz, geure buruaz

Azken udaberrian Oliver Sacks aipatu zidan adiskidearekin zorretan naiz. Esan zidan ziur zela gustatuko zitzaidala. *The man who mistook his wife for a hat* liburua aipatu zidan, hizkuntzazko kontu interesgarriak omen zituena. Izenburua behintzat erakar-garri gertatu zitzaidan.

Udan, Sacksen lanak ezin aurkiturik liburudenda batean la-guntza eskatu nuenean, saltzaileak medikuntzazko sailera bidali ninduen. Harritu egin nintzen. Banekien Sacks doktorea neuro-logilaria dela eta bere kasuen gainean idazten duela, baina nere adiskideak kontatuagatik uste nuen bere lanak fikziozkoen artean aurkituko nituela. Oraindik ez nuen ezer bererik irakurria. Orain amaitu berria dudana *An anthropologist on Mars* liburua ezagututa, sendoago pentsatzen dut Sacksek literaturazko apaletan ere ba-duela lekurik.

An anthropologist on Mars (gaztelera *Un antropólogo en Marte* itzuli dutena, antropologilaria emakumea bada ere: femeninoak serio-antza kenduko ote ziolakoan?) istorio-bilduma bat da. Zaz-pi istorio, zein baino zein zoragarriago: koloreak ikusteko gaita-suna galdu zuen pintorearena, berrogei urteren buruan berriro ikusi ahal izateak zorigaitza ekarri zion itsuarena, tumore gaiztoa santutasuntzat hartu zioten hippyarena, Tourette-en sindromea zuen kirurgilariarena, bere txikitako herriaren oroimen zehatz obsesiboak pintore bihurtu zuen erbesterautua.

Sacksi bere gaixoak osorik interesatzen zaizkio, gizaki oso bezala nahi ditu ezagutu, gizakion funtzionabide mentala nahi duelako ulertu eta uste duelako gure burmuina gai dela, bere atalen bat gaizki dabilenean, behar bezala bete ezin daitekeena bestela konpentsatzeko. Sacksek gainera bere pasioa irakurleari helarazten dio, ongi idatzi eta egituraturiko istorioen bidez, narratzaile on batek bakarrik egin dezakeen moduan. Istorioan harrapatuta, ohartzen gara nola azken batean geure buruaz ari garen irakurtzen: gure oharmenak nola funtzionatzen duen, nola amets eta memoriak eginda gauden, gure irudimena zertazkoa den. Esaten digu ametsa nola den zentzuen daturik gabeko kontzientzia eta kontzientzia errealitatearekiko ametsa. Gure irudimena nola den adimenaren egoera eta memoria gure irudimenaren biltegia.

Istorio bakoitza, oinohar bakoitza, galdera bakoitza, ispiluaren zati bat: gure nortasun hautsiaren zatiak. Sacksek aurrean jartzen dizkigu bere gaixoenganako erakusten duen begirunezko maitasunaz, plazerraz irakurri eta eroso hausnar ditzagun.

Ramon SAIZARBITORIA. 1997. *Bihotz bi. Gerrako kronika.*

Donostia: Erein.

Bihotza eta gerrak

Bihotza eta *gerra* zailtasunez uztartzen diren hitzak ditugu eta hortik, R. Saizarbitoriaren azken nobelak hasieratik bertatik guggan eragin zuen asaldura. Behiala A. Schopenhauer-ek erabilitako irudiaren ildotik, gure ardura eta igurikimenak baldintzatuko zituen gezi baten gisara genekusan nobelaren titulua. Eta titulu horrek bikoiztasuna iradokitzen zigun, gerretan bezala, erritmo desberdinez, taupada desberdinez kasu honetan, mugitzen diren bi fronteent irudia.

Liburuaren *paratestua* (titulua, epigrafeak, oharrak...) datekeenaren irakurketa osotuz, gerrako kronika gisara aurkezten zitzazkigun barrukoak, gertakarien kontaketa objektiboa izan nahi zuketena kronika gisara, hain zuzen. Baina, oraingoan ere, R. Saizarbitoriaren helbururik behinena ez da historia bat soilik izan, haren nobelagintzan ezaguna zaigun estrategia narratiboaz baliatuz (ik. *Hamaika pauso*), hasieratik bertatik irakurleok jakitun baikara bertan kontaktzen den istorioaren amaieraz.

Ez dago, beraz, inongo sorpresarik narratzaile-protagonistak gertakizunei emango dien konponbidez, adarrak jarri zizkion emaztea leihotik botata hil zuela hastapenetik aitortzen duen kontalariaren aurrean gaude-eta. Aitormena diot, lehenengo pertsona narratiboan taiututako nobela hau, ezer baldin bada, aitortza bat delako. Modu honetan irakurleon konplizitatea eta ardura

dira bilatzen direnak, eta hala frogatuko lukete testu barneko irakurleari (terminologia kritikoan *narratarior* deritzonari) etengabe egiten zaizkion erreferentziek, hala nola: «ez dakit diferentzia ulertzen den» (105), «eman dezagun» (108), «honezkero mila aldiz esango nuen» (108), «petrila ezagutzen ez duenarentzat diot hau» (133), «esan dudan posturan» (226), «esana nagoela uste dut» (272)... bezalakoeak.

Aitortzetan, M. Bajtinek zioskun moduan, gizarte arauen haustek (transgresioak) azaleratzen dira, eta nobela honi dagokionez, Bibliaren agindu oinarritzkoenak dira preseski urratzen direnak: «Ez duzu inor hilko. Ez duzu adulteriorik egingo». Bikote baten arteko harremanen gainbehera datorrenean, zilegi litzatekeen irteera bakarra (nobelan Beltranen hitzez edo Leo Ferrer-en kantez irudikatzen dena) banaketarena da, hain justu, protagonista koldarrak hautatzen ez duena. Duintasunez bukatu ordez, nahiago du mendeku hartu eta maitea hil, modu honetan, G. Baraille-ren hitzak gogoratuz, «desiratutako objektuaren sakrifizioarekin» amaitzen duelarik bere amodiozko istorioa.

Beraz, narratzailearen ahotik testuratzen zaigun aitormen honetan iraganeko gertakariak, amaiera tragikoa izango dutenak, dira kontagai. Eta, M. Prousten nobelagintzaren ostean, iragan hori *iragan bizitua* den heinean, protagonistaren oroimenetan oinarritzen da. Atzerunzko anakronia handi bat bailitzan, pertsonaiari funtsezko zaizkion bizipenetan harilkatuz doaz lehenaldiko gertakarien kontakizunak, eta horretarako, *errepikapenak* eta *aurrerapenak* denbora narratiboa zehazteko estrategia funtsezko bihurtzen dira. A. Robbe-Grillet-en nobela gehienetan bezala, denbora psikologikoa da, finean, irakurleoi aurkezten zaiguna.

Etendako kronologia hau bi plano narratibotan azaltzen da, eta titulutik bertatik adierazten zaigun bikoiztasuna bi gerra desberdinen kontaktetan gorpuzten da: Hanbre sagardotegiko jubila-

tuek behin eta berriro kontatzen dituzten Gerra Zibileko pasadizoek eta protagonistaren «etxeko gerraren» eskena errepikatuek xehetasun berriak eranstean dizkiote narrazioari. Izan ere, narrazioak dioskuntzaren moduan, «kontakizun baten emanaldi desberdinen arteko xehetasun eta nabardurak atzematea» (23) baitzaio gogoko edo, beste modu batean esanda, «kontaketa, historia bera baino» (23) erakargarriagoa baita. Horregatik jotzen du beti istorio edo gertakari berak kontatzen dizkioten zaharregana, Calvo Sotoloren hilketa aipatze hutsarekin gertakari jakinaren kontaktari xehadura berriak eranstean dizkiotela, «beste era oso desberdin batean gerta zitekeela» (101) pentsatuz.

Ene Jesuseko (1976) protagonistak bezala, «historiak kontaktuek eta entzuteak libreago egiten gaituela» (101) onartuz, behin eta berriro errepikatzen diren gertakizunek mataza-narratibo konplexua bilbatzen dute. Alabaina, hirugarren nobela hartan kontaktaren beraren ezintasuna, metafikzioa beraz, testuratzeko bazitzaigun, *Bihotz bini* historia maila da gailentzen dena. Horregatik suertatzen da irakurterazago R. Saizarbitoriaren azkeneko nobela hau, ez dagoelako narrazioa behin eta berriro eteten duen idazketaren gaineko hausnarketa literarioa. Modernitatearen ostean nobelaren baitan nagusitu den narratibitatearen bira posmodernoan, *oroimena* da donostiarraren azken nobeletan kontakteta behin eta berriro bideratzen duena. *Hamaika pausoko* (1995) «memoria plater hautsi bat da» *simoniar* hartatik, *Bihotz biko* «oroitzea beti da imaginatzea» *robbe-grilletiarre* iritsi gara, eta azken nobelaren kasuan, erraza da oroimen horren zutabe bihurtzen diren eskenak aurkitzea.

Zutabe nagusia, eta nobelan adiera sinboliko izugarria duena, 13arekin lotutako data-zerrendak osatzen du: 1936ko irailaren 13an sartu ziren erreketek Donostian Ategorrieta gainetik okupazioa burutuz (55...); ia hirurogei urte beranduago, irailaren

13an, haserretu ziren protagonista eta bere emaztea azkenengoz eta egun berean ezagutu zuen senarrak Bioleta (58); 1936ko otsailaren *13koa* da, halaber, Mikele de Abando eta protagonistaren aita azaltzen diren argazkia (eta gerora esango denez, Bioletaren ama egun horretako harremanen fruitu da); 1936ko utzailaren *13a* da Calvo Sotelo hil zuten eguna...

Guziarekin ere, maisutasun handiz testuratzen den errepikapenaren teknika narratibo honen adierazkortasuna historiaren beraren nolakotasunak indartzen du, dudarik ez baitago edozein irakurleren begietara arras erakargarriak suertatzen direla infidel-tasun kontuok. Azken batean, bikoteen arteko inkomunikazioak, mixeriak, bakardadeak, obsesioak dira nobela honetan kontatzen direnak, hurkoa zigortzeko erabiltzen diren estrategia pentsatu eta kalkulatuak.

Senar engainatuaren obsesioa J. Joyceren *Ulises* (1922) edo *Finnegans wake* (1939) nobeletan iraunkorra bada ere, irlandarren Harold Bloom protagonistak, Mollyren fideltasunik ezaren jakitun izanik ere, ez du bere emaztea hiltzen. Hark ere, *Bihotz biko* protagonistak Donostia eraldatuan egiten duen atzera, adulteroen eskenak imaginatzen ditu Dublin literarioan barna. Hori gutxi balitz, «*Bloom*» ingelesaren itzulpen kontsidera genezakeen *Flora* izena duen pertsonaia, musikazalea eta oparoa dugu, Molly bezala (etengabeak dira beraien ipurdi «naharoei» egiten zaizkien erreferentziak).

Hortik aurrera, ezin esan bikotearen arteko gatazkak tratamendu bera duenik irlandarraren nobelan eta Saizarbitoriarenean. Hasiera batean esan dugun bezala, donostiarrarena sentimendu-gerra baten kontaketa da, ikuspuntu bakarrez egituratua gainera, hau da, senar adardunaren ikuspuntutik. Protagonista futbol eta boxeozalea da, *Love story* bezalako kantez hunkituta geratzen zaigu eta bere jokabide arrazionalistaren frogagarri «jaki-

turia» kulinario dudaezinezkoa dauka: zehaztasun *flaubertiarrez*, arrautzak frijitzeko moduak, entsalada edo lasagna gustagarriak egiteko prozedura zehatzak, edo legatza prestatzerakoan kontuan hartu beharreko aholkuak eskaintzen dizkigu; baita emazte eta emakumeei buruzko topiko matxista guztien adibideak ere: guri, emakumeoi, *Tomate berde frijituak* (120) bezalako filmeak gustatzen zaizkigula esanez edo «nobela lodikoteak» (215) irakurtzen ditugula adieraziz. Hori gutxi balitz, Florarekin izandako eztabaida nagusienak «bere jakituria entziklopedikoaren aurrean» emaztearen nortasuna finkatu beharrak (35) eragindakoak zirela aitortuko digu protagonista itsu honek.

Ezin esan gizonetzkoen irudi ona ematen denik nobelan. Floraren ahotan jartzen diren «ona zaude» (65) etengabeak eta Hopper-en *Hoteleko logela* (1931) koadroarekin egiten diren etengabeko gonbaraketak (10, 63, 170, 186...) desolazioaren, abandonaren erreferentzia plastikoak ditugu. Liburuaren lehenengo argitalpenaren azalean agertzen zen koadro horrek J. Updike nobelagilearen poema bat merezi izan bazuen, gizakiaren bakardadea irudikatzeke duen indarrarengatik izan zen.

Izan ere, Flora, ezer sentitzen bada, emakume «abandonatua» sentitzen baita, hasieratik bertatik senarrari egozten dion abandonoa dela medio (9). Eta argi dago, bikotearen indiferentzia hori dela emazteari jasangaitzена suertatzen zaiona. J. Ortega y Gasset-ek bere *Estudios sobre el amor* (1939) gogoangarrian zioskun bezala, maitemindutako emakume batek nahiago du bikotekideak eragiten dizkion nahigabe eta sufrikarioak jasan, bere indiferentzia pairatu baino. Hortik, Florak pianoz jotzen dituen piezetan aireratzen den irudi malderra: «Look at me, I am as helpless as a kitten up a tree» dioen kantan bezala (18).

Flora eta Mikele de Abando gizon koldar batek abandonatutako emakumeak ditugu. Lehenengo, sasintelektuala den senar

jeloskorrak; bigarrena, senarraren aita antiheroikoak, haurdun utzi ondoren, frontetik desagertu zenak. Bi pertsonaia femenino hauen deskribapenak (dela fisikoak, dela psikikoak) emakume sendoaren irudia ematen dute: Florak Artetaren koadro batetik irtendakoa badirudi (13), Mikele *Emakume Abertzaleen Batza* elkartearen (103) kide aktiboa dugu, Lauaxeta, Aitzol edo Orixe-rekin batera Euskal Herri osoan mitinak ematen dituenena. Hogeita hamalau urterekin, lepoko erezta dela kausa hiltzen den pertsonaia honen izenak, *Emakume Abertzaleen Batza*n bazkide kopuru handiena izan zuen taldeari, Bilboko Abando auzokoari hain justu, egiten dio erreferentzia.

Biktimak izango dira bi emakumeok, gizonezko baten biktimak hain zuzen, eta narratiboki Floraren kasua suertatzen zaigu nobela honetan garrantzizkoena. Emazteak iruzur egiten diola dakienetik, deliriora eramango duen obserbazio eta antsietateak guztiz ezkutagaitzak suertatuko zaizkio protagonistari. Desiratu-tako objektuak ihes egiten diola pentsatzeak beragan sortzen duen urrikaltasun eta ziurtasunik ezaren adierazle ditugu bere buruaz dituen irudi penagarriak. Protagonistak kiratsa besterik ez dio sumatzen bere buruari (linimento eta sardin-usainaren nahas-mendutik eratorria, 86) eta zakur-deslai baten modura abandonatzen da etxean (121). Senar horren jeloskortasunak, *La Jalousie* (1957) nobelako protagonistaren kasuan bezala, emaztearen eta amoranteen obserbazioa eragingo du, ezaugarri optikoz soilik transkribatzen diren eskenen errepikapena bultzatuz. Dena dela, infideltasun gertakariak imajinatzen dituzten bi narratzaile hauen artean bada alderik: A. Robbe-Grillet-en nobelakoa gela batean entzerratuta dagoen bitartean, *Bihotz bin* pertsekuziozko lasterke-ta paranoikoen protagonista bihurtzen da.

M. Kunderak zioen moduan, maitasuna ez da sexu-desioan soilik nabarmentzen, norbaiten ondoan lo egiteko desioan ere

bai, eta horregatik dago kondenatuta bikote hau asteetan bananduta lo egitera. Irtenbidea, nobelan adierazten denez, senarraren erabaki tragikoan egongo da, eta berau iradokitzeke *misé en abime* teknikaren adibide ditugun kontakizunez baliatzen da narratzailea. Funtzio iragarle hori lukete, hortaz, dominan aurkitutako ilebiloa Gustave Doré-ren (164) grabatua azaltzen den orrialdean gordetzeak edo Hanbreko jubilatuek infidelitatea konpontzeko (201) ematen dizkioten gomendioek.

Protagonistari alferrikakoa izango zaio sexu-harreman desiozkoetz galdutako emaztearen «jabegoa» berreskuratzen saiatzea. Berdin generake Bioleta gaztearekin –sexu-fantasia guztien batura kontsidera daitekeenarekin– dituen harremanez, hauetan, bere grinak asetzeaz gain, oraindik «gauza» dela frogatzen baitio bere buruari. Telefono kabinako eskenan azaltzen den «Macho de Guerlain» (132) iragarkiak ongi baino hobeki irudikatzen digu protagonistaren ustezko errealitatea.

Azken batean, gezurra badirudi ere, Florarekiko desioa «debe-kuzkotzat, intzestuozotzat» jotzen du protagonistak (84), bere iloba datekeen Bioletarekikoa ez bezala. Bikotearen arteko harremanen gainbeheratzea bistakoa denean, eskuragarriagoa izango zaio intzestuaren adierazgarri den Bioletarengana hurbiltzea emaztearengana baino. Horixe baita pertsonaia gazte honek nobelan irudikatzen duena: desioa, debekua eta amildegiairen amaieran dagoen heriotza. Misterio edo fantasiatzko narrazio askotan bezala, argazki baten azterketak erakutsiko dio, heriotzaren ikurra lepoan daramaten emakumeak debekatutako desioaren ikurrak direla.

Seguraski, amaieran bere buruaren biktima suertatzen den senar honek ezin du aitortu bere emaztea beharrezko zaiola bizitzaren segitzeko, bere burua erabat ez suntsitzeko, eta Florak egingadako aukera (Mollyk bezala, senarrarekin geratzea erabakitzen

baitu), sinestezina iruditzen zaio. Saizarbitoriaren aurreko bi nobeletan bezala hemen ere agertzen zaigun J. J. Lasa psikiatrak dioen moduan (136), larrialdietan fabulazioara jotzeko joera baitauka protagonista honek. Baina fabulak (literaturak) arriskurik ez duen bitartean, bizitzak bai. Horregatik da hain erakargarria nobela hau, bizitzaz eta bere amildegiez hitz egiten digulako.

Jose SARAMAGO. 1994-1996. *Cadernos de Lanzarote.*

Diário I; Diário II; Diário III.

Lisboa: Caminho S.A.

José Saramagoren egunak

Lanzaroten hartu zuen ostatu eta bizileku J. Saramago idazle portugesak orain dela urte batzuk; latitude eta etxea aldatzeak dakartzan berrikuntzak eta urduriak orekatzeko, egoera berri hori hobeto bereganatzeko, Saramagok 1993ko udaberrian ekin zion kaier hauen idazteari, oraina, denborarik iheskorrena, egunez egunez kontakizunaren bidez finkatu edo islatu nahian. Eguneroak egunero idazten da egunkarietan, ez ihes doan eguna betiko bilakatzeko asmo eroz, ezpada egun horrek utzitako aztarnez oroimena, historia eta kontakizuna osatu ahal izateko, gauza ezdeusen kontakizunean kontakizunaren mamia, eta bizitzarena, egongo balitz bezala. Saramagoren ustez pertsonaia bakarreko nobela da egunkaria, idazten duenaren ispilu atsegina, beraz egiazkotasunaren arazoa nobelaren esparruak zehazten du. Lur eta argi berrietan bere baitan pausatu du begirada Saramagok, guri, besteak presente baitira beti egunkari guztietan, den idazlea eta den gizona zehazkiago azaltzeko.

Idazle baten egunkariak dira hauek eta idazteari buruzko hausnarketek betetzen dute egun eta orri asko. Saramagok berak idatziriko liburuez zein lagunen eta ez hain lagunen liburuez argibide anitz aurkituko du irakurleak. Interes handikoak dira *Ensaio sobre a Cegueira* nobelari buruzkoak, Saramagok argitaraturiko azkena,

kaier hauek idatzi bitartean ekin baitzion *Ensaio* horri: lehen kapitulua osatzeko zailtasunak, pertsonaiei izena ematearen ala ez ematearen erabakiak, kontakizunaren garapena hasierako ideietatik bukaerako emaitzetaraino; hori guztia hobeto ulertzeko datu gutxi baina oso argigarriak agertuko zaizkio irakurleari han-hemenka. Zer esanik ez, *Ensaio sobre a Cegueira* irakurri duenak gehiago gozatuko du. Berdin esan daiteke beste eleberriei dago-kienez; nolana ere, *O Evangelho segundo Jesus Cristo* liburuak piztutako iritzi eta eztabaidek bat baino gehiago harrituko dute, Saramagok jasotzen baititu egunkari hauetan irakurleek (katoliko itxienek zein judu kezkatuenek) berari bidalitako gutunetan azaltzen diren aldeko eta kontrako kritikak. Horrela, egunkariek solasaldiaren tankera nabarmena hartzen dute askotan. Kontuan hartzen badugu, gainera, Portugalen kaierak urtez urte argitaratu dituztela, elkarrizketa-zantzu hori handiagoa da, aurreko urteetan idatzitakora itzultzen baita Saramago urte berrian irakurleen ahots eta hitzek bultzaturik, egunen joan-etorri aspertua izan zitekeena bizitzaren batasunean bilduz.

Egunkarietan Saramagoren bizitza ageri zaigu bere osoan, ezin berezi idazlea, gizona eta herritarra. Gizatasunaren lurraldean eraikitako engaiamendutik Saramago saiatzen da munduan diren eta Historian izan diren gizon-emakumeak oro, bizitzak oro, aintzat hartzen. Eszeptikoa, baina ontasunaren aldarrikatzaile sutsua (*Idazleak pertsona ona behar du izan?* mahai-inguruaz idatzitakoa irakur ezazue, 1993ko ekainak 1), gure gizabiderik ezaz gogaiturik, Saramagok esperantzaren bat sumatzen du Lanzarote-ko harkaitz beltz-beroetatik nekez jaio diren liken bizietan. Lanzarote eta bizitza, Portugal eta gizartea. Kaieretan barrena barreiaturik oroigarri ttipiak loratzen dira, Lanzaroten landareak bezala, Saramagoren itzala hobe ezagun dezagun: haurtzarora, familia, ekintza politikoa, Portugal, esker ona eta eskergaitza. Itzala diot, zeren Saramagok berak gogoratzen baitigu itzal horren mugak

erakusten dituela bakarrik. Barrua ilunbeetan estalirik gelditzen da, gizaki guztien baitan gertatzen den moduan.

Gomita dute helburu lerrook; irakurleari liburu atsegina izanen zaiola ziurtatzea edo horrelako zerbait. Ez dakit nik zer nolako harrera dukeen narzisistatza jo daitekeen genero batek gure artean, non usu gizabanakoaren bizipen eta iritzi propialak guxtiesten baititugu taldeenak hobestearren. Baina irakurle den edozeinek izango ditu gustuko umorea, istorio barregarriak, beste idazleei buruzko hitz ironikoak, gogoetak, bidaiak, ikasbideak eta egunen igarotzeak destilatzen duten ardo on bat-batekoa.

Eta liburu on guztiek bezala, edozein izanik *generoa*, kaier hauek ahalbideratzen dute baita irakurle gehienek maite duten solasaldi isila idazlearekin, iritziak, emozioak eta ideiak berarekin batera hartu edo eztabaidatzeko. Ez dut uste oker nabilenik esaten badut Saramagok idazten duela gizon-emakume izatearen bereziaz, zailtasunaz eta beharraz jabe gaitezen.

Portugesez:

Cadernos de Lanzarote, Diário I. Lisboa: Caminho S.A. 1994.

Cadernos de Lanzarote, Diário II. Lisboa: Caminho S.A. 1995.

Cadernos de Lanzarote, Diário III. Lisboa: Caminho S.A. 1996.

Espainieraz:

Cuadernos de Lanzarote (1993-1995). Madrid: Alfaguara-Santillana. 1997.

Susanna Tamaro. 1997. *Adonde el corazón te lleve*
Barcelona: Seix Barral (Biblioteca breve).

Best seller baten jakinduria

«Gizon modernoaren ohitura guztien artean okerrera eguneroko prentsaren irakurketa da. Goizean, arima zabalenik dagoeanean, munduak aurreko egunean sortu duen gaitz guztia pertsonarengan jaulkitzen du prentsak». Aipu baten aipua da eta neuk itzulia, ezinbestean. Susanna Tamaroren *Adonde el corazón te lleve* nobelan aurki liteke. Protagonistak Isaac Singer-en esan horri zera gehitzen dio: gaur egun, prentsa ez ezik, irratia eta telebista ere gainean izanik, nahikoa dela une batez horiek konektatzea «...gaitzak harrapa gaitzan, gure baitan sar dadin».

Nonbaiten irakurritako aipamen batek aldendu ninduen Tamaroren liburutik. *Politically*—kasu honetan feminismoaren ikuspegitik begiratuta— ez ote zen oso gomendagarria. Horrezaz gain, *best seller*-ekiko dudan aurreiritzi behin eta berriz baieztatua zegoen: normalean ez ditudala gustuko izaten alegia. Honela bada, lagun batek hogeita seigarren argitalpeneko ale bat oparitu didanean bakarrik heldu diot *Va' dove ti porta il cuore*-ri. Heldu eta hiru gauetan irentsi dut, filme batek zinemako aulkien deserosotasuna ahanztarazten dizunean bezala, loari orduak kendura, eta amaitu delako penatan geratuz.

Beharbada honenbestez pentsatu behar dut *best seller* jalea izan nintekela eta feminismo kontuetan ez nagoela oso puntan. Litekeena da. Nolanahi ere, amona batek bere bilobari gutunaz uzten

dion testamentu horretan aurkitu dudan onestasan sentsazioa ez dit inork kenduko. Horren adierazle, «emakumeen malezia»-ri buruzko hausnarketa. Protagonistak kontatzen du zer nolako diferentzia aurkitzen zuen gaztaroan bere lagun eta ikaskideekiko, emakumezkoak denak. Diferentzia «emakumeen malezia» horretan zegoen, «emakumeen armak» deritzaten horietan. Lagunek bazekiten malezia hori erabiltzen, berak ez. «... Nigan leialtasun zentzu sakon bat zegoen, eta leialtasun horrek esaten zidan, inoiz ere, sekula ere, ezingo nuela gizon bat endredatu. Pentsatzen nuen aurkituko nuela noizbait gazte bat, berarekin gauean berandu arte aspertu gabe hitz egin ahal izango nuen bat...». Adiskidetasuna bilatzen zuen beraz oinarri gisa, ezinbesteko baldintza modura, horren gainean maitasuna ondu ahal izateko.

Tamarok, bere eleberriaren protagonista eta kontalari den emakume adinekoaren bitartez, oraindik ere gizon-emakume harremanean bizi dugun bikoiztasun biziatu hori gardenki azaltzen du. Izan zintezke zure buruaren jabe ekonomikoki, molda zintezke etxearen esklabo ez izateko moduan, arrakasta profesional eta soziala ere eskutan izan ditzakezu –horrenbesteraino onartzen du dagoeneko gure gizarteak– baina erne, beste sexuarekiko harremana, harreman intimoa, berdintasun eta leialtasunean oinarritu nahi duzunean, uxatuko dituzu gizonak. Hartuko zaituzte lagun eta konfidente lez, onenera jota baita ezkutuko maitale modura ere, baina nekez bizikide gisa. Azken batean emazteak emagaldu ere izan behar baitu, etxeko pareten barruan beti ere, eta horretarako ezinbestekoa da «emakumeen malezia» erabiltzen jakitea. Horri uko egiten badiozu, garai bateko santujazleen oinordeko izateko zorian zaude.

Zuribeltzean pintatu dut koadroa, ñabardurarik gabe, salbuespenak badirela eta ugarituz doazela jakinda ere. Tamalgarria zera da, maitasunari, apur bat zorionsuago izateko aukerari, zenbat

ate ixten zaion molde zaharreko jokabide honekin. Eta hor, gale-
ran, alde bata zein bestea ateratzen dira, nahiz eta Tamarok zera
dioen: «...zorigaitzak emakumeen lerroari jarraitu ohi dio. Akats
genetiko batzuk bezala, amarengandik alabarengana pasatzen da».

Bizitzaren jakinduria bai igarotzen dela horrela, belaunaldiz
belaunaldi, eta baita zeharka ere, senideen artean, lagunaren sarean,
idazle-irakurle katean... Kasu honetan bezala, aukeratu batzuen
hesia gaingiditu eta talde zabaletara hedatzeak ematen du poza.
Azken batean denok topo egin behar baitugu bihotzak zarama-
tzan toki horretan.

Italieraz:

Va' dove ti porta il cuore. Oscar Mondadori.

Frantsesez:

Va ou ton coeur te porte. Plon-Feux croises.

Hegats 17/18

1997ko abenduan Nafarroan
inprimatu zen






EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEA

Hegats

17/18



Literaturbideak

WISLAWA SZYMBORSKA
*Ahizparen laudorioa eta beste
zenbait poema*

IBAN ZALDUA
Ertzainarena

ANDOLIN EGUZKITZA
3 poema

Kritikabideak

EMILIO LÓPEZ ADAN
Erbestean idaztea

ITXARO BORDA
Nor da nor

JUAN GARZIA
Hamaika pauso alferrik?

Idazletzaz mintzo

BITORIANO GANDIAGA
Ni neu euskal idazleetako bat

AINGERU EPALTZA
"Strip-tease" saio bat Goierri-n

